

EGĀN



1-4

1959

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

Págs.

<i>Adiskide Berri</i> : Berriketan. A. Steiger irakasleak esan digu.....	1
<i>G. Aresti, A. Erdozaincy-Etchart, F. Schiller</i> : Olerkiak.....	4
<i>Mistral-Orixe</i> : Maite mintzoa.....	20
<i>A. Irigaray</i> : Euskal-literaturaren bilduma laburra, VII. P. de Axular..	23
<i>J. M. Satrustegui</i> : Esneketaria....	29
<i>Ansola'tar G.</i> : Europa'ren Alkartzea.....	33
<i>Etxaitar</i> : Fabliaux izeneko ipuiñak..	40
<i>I. Mirande</i> : Izkuntza baten eriotza eta berpizkundeaz.....	43
<i>D. Peillen</i> : Jondone Denuxi.....	52
<i>A. A.</i> : Jan-Edenak.....	55
<i>Apat Etxebarne</i> : Naas-Maas.....	59
<i>Maite</i> : Emakumeak.....	66
Adabakiak.....	69
<i>Yon Etxaide</i> : Euskal-Ortografiaren batasun alde.....	72
<i>L. Mitxelena</i> : Zinema.....	74
<i>Ansola G.</i> : Jai-Alai.....	77
<i>Urrea</i> : Musicaz.....	80
<i>A. M. L. Eduardo Mokoroa jauna</i> ilzaigu.....	83
<i>A. Arrue, A. M. Labayen, L. Mitxelena</i> : Liburuak.....	84
Loramendi'ren gorazarrez sariketa..	101
<i>Sustraitz</i> : On-egitean dago zoriontasuna.....	102
Euskaltzaindiaren agiria euskal-itzei buruz.....	110

DIRECCION Y REDACCION:

A. Arrue, A. Irigaray y L. Michelena

EGAN

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca

Vol. XIV

Abril, 1959

BERRIKETAN

ARNALD STEIGER IRAKASLEAK ESAN DIGU:

Arnald Steiger'en izena aspaldixko entzuna nuen. Nola ez, bada, romanisten artean, latiniaren ondorengo diren erderak aztertzen ari direnen artean, ain ezaguna izanik? Sail batean, agian, ifiorena baiño ezagunagoa. Luzaroan aztertu ditu arabe-izkuntza eta España'ko erromantzeen arteko ar-emanak, ia zortzireun urte iraun zuten etengabeko ar-emanak, baita mozarabeen izkuntza ere, mairu-errian bizi ziren kristaueña, alegia. Bereak dira, besteak beste, bi obra gaillen: *Contribución a la fonética del hispano-árabe y de los arabismos en el iberorrománico y el siciliano*, 1932'an agertua eta aspaldi aitua, eta *Die Sprache der Mozaraber*, au Jakob Jud'i eskeiñitako gorazarrean azaldua.

Enekenien, ordea, euskerari buruz arduratzen zenik. Iñoiz edo bein euskal-itzen batez edo bestez mintzatzea gertatu zitzaioela, baiña beste orrenbeste gertatzen zaie romanistarik geienei. Orrexegatik arritu ninduen, euskera bera eta bakarra artu zuelako gai, berak daraman Suiza'ko *Vox Romanica* deritzan aldizkarian onako idazlan au ikus-teak: *Die baskische Sprache. Eine allgemeine Orientierung*. 1956'an eman zuen argitara.

Enuen Steiger jauna berealakoan ikusteko usterik, artikulu ori irakurri nuenean. Orretarako Madril'a jotzeak, izan ere, ez tirudi bidezko, Zürich'en bizi den ezker. Alaz ere, Madril'a joan nintzan, bestetara bazen ere eta Madril'en nengoen, an euskal-kulturaren mandatarari dugun Patxi Etxebarria "Minotauro"-koarekin, Steiger'en izena entzun nuenean.

—Bai, gizona. Emen zegok aspalditxoan.

Itzaldi bat egitekoa omen genduen orduantxe, astero bezala, geunden etxean bertan, ain zuzen ere.

Orrela ezagutu nuen. Dozenaren bat giñan entzuleak, zaar ta gazte: batzuek urduri —gazteak geienbat—, zirriborroak egiten paperean entzun-ala; besteak geldi, izlariaren itzei edo nor bere pentsakizunei adi eztakit. Lasaitu nintzan: gaztelaniaz ari zen, eta nolako gaztelaniaz! Aoa zabalik nendukan. Entzuleok baiño obeto egiten zuela esatea elitzake ezer. Aren eta gure izkeraren artean bazegoen, gutxi gora-beera, nere ta gaurko zenbait euskal-idazle garairenaren artean dagoen bitartea. Batetik bestera zebillen gelditu gabe, paperei begiratzeko edo pizarran zer bait ipintzeko izan ezik, itz baten ibillaldi luzeak —Eurasia'n eta Afrika'n barrena— azaltzen zizkigun bitartean.

Itzaldi-aurreak eta itzaldi-ondoak ez tira egokiera erosoak izaten berriketa lasairako. Ori dela ta, afaritako bildu giñan urrengoan. Steiger'ek berak egin zuen jakien eta edarien aukera, eta etzitukean obeto aukeratuko emen sukalde-berriak ematen dizkigunak. Ori bai, Euskal-erriko jan-edaneï opari bat eskeiñi bear geniola eta, ezin bakallaoari ezetz esan.

Bitartean, etzen atertzen jarduna:

—Eztut oraingoxea euskeraganako ixuria. Sartaldeko Europa onetako izkuntzekin, zaar naiz berriekin, ari denak nola ez eduki euskera gogoan? Antziñakoen berri jakin nai badugu, eztaukagu ia beste aztarrenik: aztarren bizirik, beintzat, ez. Gerokoekin ari bagera, berriz, euskera dago beti lekuko, ezin-baztertuzko lekuko. Mozarabe-izkuntzaren ondarrak biltzean, etzitzaizkidan aaztu, esate baterako, euskerazko *atorra* eta *izara*. Orañiago, *maindire* eta bere euskal- eta erdalsenideak aipatu bear izan ditut, baita Bizkai'ko *atundu* ere, gaztelaniazko *atuendo*-ren jatorria garbitzeko. Ni, gaiñera, Humboldt eta Schuchardt'en jarraituna nauzute, biak jakintsu bezain euskaltzale. Orrexegatik, Etxebarria'k eskatu bezain laster eman nion Humboldt'en *Prüfung* ezagunaren itzulpen berrirako nai zuen itzaurrea.

—Noiz asi ziñan euskeraz ikasten?

—Aspaldi, eta Suiza'n bertan. Euskaldun bat, Apraiz'tar Odon, izan nuen leenbiziko maisua.

Odon'en galde egin ziguneko lasaitu genduen: bai, onik duzu; ez,

eztizu batere galdu betiko "unorea". Irurok agertu genduen, bear bezala, biotz-damua afalдарren artean etzegoelako. Izan ere, Odon'ekin egindako afari eta afal-ondoen oroitzapen atsegiña ezta agudo galtzen. Goraintziak ere eman zizkidan Steiger'ek eta eztira oraindik bear zuten lekura iritsi. Beteko aal dute lerro aukere nerea etsa!

—Euskal-errian izana zera, noski?

—Bai, bein baiño geiagotan; ez, ordea, nai adiña. Nere lanbideak bestetara eramane nau geienetan. Afrika'ko ipar-aldera, batez ere, bereberez ikastera eta aritzera: badakizute alderdi orietan arabea eztela nagusien kultur-izkuntza berria besterik. Arabe-erri guztiak ere inguratu ditut. Ejito'n nintzan azkeneko gerrateak etxerazi ninduenan.

Orrela jakin genduen, arri eta zur egifiik, irakasle paketsu au jenerala dugula Suiza'n eta gerrak ar-arazi ziola jeneralta bere ikastaldien kaltean. Jende arrigarriak gure aldean orrelako jeneralak dituzten suizarrak. Gerrate batean okerrago ibilliko ote lirakean ezta erraz esaten, aspaldian ezpaitute erakusteko modurik izan, baiña pake-denboran eztira bear bada galduan irtengo.

—Zer arkitzen diote euskerari izkuntzalariek?

—Bi gauza, iñon gutxitan idoro ditezkeanak. Au aurrenik. Ezta izkuntzarik Europa osoan euskera bezain illun eta izkutu ageri denik, bere jatorriari eta kondairari buruz. Ezta gaiñera historia osoan gertakaririk euskerak azaltzen duen bizinai egoskogorra bezain miragarririk. Indarra metatu izan da indarraren gain menderik mende izkuntza ori urratzeko eta desegiteko eta eztu artean iñork menderatu. Non arki bestetan orrelakorik?

—Zerbait esane nai ote zenduke euskaldunentzat, EGAN-en birtartez?

—Bearrezkoa genduke jakintza-bideetan euskaldunen laguntza, ezpaita iñor aiek adiñean argi litzakeanik euskeraren alde illunak. Egiteko dago zorioneko Euskal-atlas ori eta eginkizun geldituko da, noski, zerok ekiten ezpadiozute lanari. Baiña bada besterik eta nagusiagorik. Orainengo artikulu orretan egiten nuen deia egingo nuke gogoz, berriz ere. Biziko aal da luzaroan, etsaiak etsai, beñola ugaria zen familia zaar batetik gelditzen zaigun aur bakar ori! Ez aal da ilko antziñako Iberia'ren ondorengo baliotsu ori! Saiatuko aal dira aurrera ere euskaldun amak, gaurko bizimoduaren lillurei entzungor egifiñaz, antziñako izkuntza bere umeei irakasten! Eta entzungo aal dute datozen mendeek ere Euskal-erriko mendietan euskeraren soñu izkutua, Europa'ko bazter onen historia asi baiño leenagoko aldietara garamazkien izkuntza maitearena!

Zer erantzun? Eskerrik asko, Steiger jauna, eskerrak biotz biotzetik. Eta ala biz.

ADISKIDE BERRI.

NULAZ ERRAITEN DUZU...

J. D. J. Salaberry mauletar famatuaren izkiribuen artean, bere billoba Henri Forel jaunak arkitutako goren mailako olerkia.

Nulaz erraiten duzu
Maite naizula ni?
Korthe egiten zaude
Zu beste orori.
Enezazula trunpa,
Mintza zite klarki;
Esperantxa falsurik
Ez eman nihuri.

Aiei! Aiei!
Hau da doloria!
Bi maite uken eta
Ez jakin zuin haita;
Batak dizu xapela
Bestiak boneta,
Xapelduntto hura da
Oi! ene bihotza.

Lumarik ederrena
Paluñak buztanin,
Maitia etzuntudan
Ikusi aspaldin;
Gaiaz eta egunaz
Ba zintut saietsin;
Maitia, enaiteke
Debeia zurekin.

Xori papogorriak
Tristerik kantatzen,
Gaiazko alojia
Kanpoan xerkatzen;
Ni ere gis-berian
Nuzu edireiten,
Maitiak ezpaderait
Bortha idokiten.

Orai zireia jiten
Gaiardi onduan?
Iratzarririk nintzan
Eta zu goguan;
Enzuten dudanian
Zure boza kanpuan
Ohetik jeiki eta
Jarten niz leihuan.

Gora dago leizarra,
Gorago izarra;
Aspaldi du, maitia,
Ikus'etzutudala;
Jin zatzkit ikustera
Ardura ardura,
Eginen ba dut ere
Oi! ene malhurra.

BIZKAITARRA

Iretargi barriak
Eztauko argirik
Ez gauberdiko
Eguski otzak.
Berorik
Ezta egongo
Bizkai maitea
Iños penadu
Bagarik.

Alan diragutsue
Gabriel Arestik.

I

Orienteko perlea
Nobia neurea
Biotzeko puskea
Melitxu maitea
Non da zure legea
Ta karidadea
Eukizu piedadea
Egin mesedea.

2

Guraso biak jaio jatzuzan
Leongo erreñu zarrean
Eta ezenduan euskeraz eiten
Ikasi txiki denporan
Difñotsudana eztozulako
Entendietan arean
Lastima andia egin jatana
Arimearen barruan.

3

Melitxu Basurtuko
Piko meladua.
Mesperu ustel gozoa
Sagar eztsua
Laster izango zaraz
Neugaz ezkondua
Neure bizi lekua
Ezta komentua.

4

Zabal zabalik dago zeruko
Bentana ikaragarria
Ikusi neban ordutik zeure
Arpegi zoragarria
Neska galanta zuk dirudizu
Paradisuko txoria
Uxala itsutu egingo banintz
Ezpadiñotsut egia.

5

Kantadu gura deutsut
Amabi bertsotan
Euskotar neska batek
Zer egindu eustan
Ene biotza orduan
Erdibitu jatan
Ikasi neban ondo
Dolorea zer zan.

6

Neuk artu neban txiki denporan
Euskerearen gauzea
Euskaldun utsa izango zala
Artuko neban andrea
Bere zanetan zan korriduko
Garbia geure errazea
Mutil txikerra izan da beti
Bastante zentzunbagea.

7

Nire apelliduak
Ninduen arrotu
Aresti Segurola
Orreikaz itsutu
Gizonen tonteriak
Milla itxura ditu
Baña apelliduenak
Gustiak bentzidu.

8

Neure semeak ezebelako
Iños eukingo lotsea
Erdal izen bat eroateko
Egin neban promesea
Aberriaren altara otzean
Emoten neban mezea
Jangoiko todo poderosoa
Izanik gure errazea.

9

Arakatu nebazan
Bilboko kaleak
Eta Bizkai gustiko
Baserri maiteak
Mandadurik bialdu
Eneutsan neskeak
Kontestaduten eustan
Ezetz gisajeak.

10

Emengo jente gastea dala
Basozale amorratua
Badakit ondo eztaukazuna
Ezelan bere aztua
Esan deustazu askotan dala
Apezifio ori tontua
Eneuke esango izan nintzala
Egun areitan listua.

11

Denpora eder bategaz
Udagoiengan
Urbira gindoiazan
Urriko bostean
Kotxea jente alaiaz
Beterik egoan
Baña lupua nintzan
Ni bakartadean.

12

Andikan ona pasadu diraz
Zoritzarreko lau urte
Tristura andia emon deustenak
Eta alegrantza bapere
An ezagutu neban neskea
Bai azartuko nintzake
Orain esaten bildur barikan
Apur bat nebala maite.

Akerraren gurea
Auntza tapetea
Gizonaren biotzak
Bear dau andrea
Autortuko deustazu
Errua maitea
Agaz ibiltekoa
Ezala nirea.

Neska polita zan a benetan
Tximifoiaren lerdena
Christian Diorrek sedaz jantzita
Ikusten jako bustana
Esperantza bat jatan kabidu
Gitzi poztu ninduana
Egunen baten geldituteko
Zorionez alarguna.

Bizimodu tristea
Daroe gizonak
Enbleri eskuz lotuta
Goikoak emonak
Zeuen eskuetatik
Eskapetan danak
Errezibitan dituz
Ene zorionak.

Andratxu arek eukiten eban
Ulle bellegi lastoa
Eta begiak azulak
Zelan balira itsasoa
Kolare orreik orain nastuta
Badirudie ostoa
Arbolatikan udazkenean
Lurrean jausitakoa.

Etse bateko zan alabea
Iñor badago aberatsa
Zaspi giltzagaz gordeta eukana
Bankuan diru mataza
Danok dakigu zidar artean
Arkituten dana satsa
Onegaitikan etorkizuna
Presentadu jatan gatxa.

Mandadua bialdu
Neutsan zoritxarrez
Zergaitik kontestadu
Egin eustan baietz
Agaz gelditu nintzan
Azegaria lez
Musturra pasmaduta
Ta lepoa aldrebes.

Zerua goian ta lurra bean
Ori zan ene ondasuna
Pobrero jaio banintzan bere
Enas iñoren zorduna
Eskeindu jakon gorputz fuerte
Sufriduten ekiana [bat
Eta ezer barik eskatu barik
Arima bat fededuna.

Gorengo esperantzea
Eraz galdu neban
Arima penau batek
Deseginduz eustan
Aldarriz kantatuaz
Domu Santueta
Zeruetan eztala
(Enperadorikan?).

Baña gizonen alanbearrak
 Asko nindun arduratu
 Zergaitik gure sufrimentuak
 Etxakuzan akabatu
 Jangoiko fuerte amoroso bat
 Zeruan dogun paradu
 Egun danetan trankil ta umillak
 Areri egiteko erregu.

Umanidadeari
 Fabore emoteko
 Semea prestau nintzan
 Gure Euskalerriko
 Ainbeste borondate
 Nebala eukiko
 Zelan nire odola
 Agaiti emoteko.

Egondu nintzan ordu luzeak
 Euskal libruen ganean
 Izakerea berbakuntzea
 Geureak estudietan
 Eskribidurik egoan dana
 Legidu eneban artean
 Eneban sartu ago mingots au
 Euskaldun lagun artean.

Neure fede sendoa
 Neutsan ofrezidu
 Penak eta gloriak
 Eiteko partidu
 Obra miragarria
 Gura neban sortu
 Euskaldun jenteari
 Lurra makiñatu.

Etxeko alaba gustiak ondo
 Dakiez gure barriak
 Plaza gizonak eztireala
 Etseko jaun egokiak
 Bolatokian galdu egiten
 Badiraz postura andiak
 Eskaratzean eztireala
 Prijiduten aragiak.

Euskalerra maitea
 Bolatokia zan
 Eta neure fedea
 Posturak zirean
 Gizon andi gustiak
 Amaitu dira alan
 Itoten direala
 Berakatx zopetan.

Nire biotzak ulertu eban
 Egun aretan ederto
 Zergaitik neska buru bako arek
 Tratau ninduan ain txarto
 Pentsadu eban dirurik baga
 Enebala maitatuko
 Euskaldunaren Jangoiko altuak
 Urrezko ipurdia dauko.

Neure amodioa
 Probadutearren
 Bear nebazan itzi
 Al baño lasterren
 Nire pentsamentuak
 Eta oindikarren
 Nire ukaerea
 Ezteust parkatuten.


Gaztelu atako torre fuerteak
 Lurrera jausi zirean
 Neure fedea zarateagaz
 Deungaro apurtu jatan
 Zeru gorena urraturikan
 Ekatz amorratuetan
 Zelango negar malko mingotsak
 Begiok busti ebezan.

Utsik gelditu nintzan
 Munduan errege
 Eneunkala barruan
 Kezkarik bapere
 Zelan elai alaia
 Galtzadetan libre
 Afrikarantza doian
 Usoa legetxe.

Parkatu istazu nobia maitea
 Zeu ezagutu baño len
 Enbren atzetik modu gatxean
 Arin banintzan ibilten
 Arito itsuak arroken kontra
 Adarrak dauz apurtuten
 Eta gizonak bere griñea
 Tristurazko sabel baten.

Oneik bertso tristeok
 Abendu onetan
 Erdotar neska batek
 Aditu eutsazan
 Gabriel Arestiri
 Ulertu barikan
 Neskari galantenak
 Amelia Esteban.

G. ARESTI.



EMAZTEKI BAT ENE BIZIAN...

Giza-seme guziek ezagutu diau gure bizian emazteki baten itxura: gure Ama'ren itxura. Batzuk eta bestek, haurretik gizon adineraino haunditu arau, beti hobekiago, beti barnago, beti osokiago... zilatu izan diau emazteki horren itxura... Nola ene bizian ene Ama'ren itxura sartu izan den eta nola ezagutu izan dutan haunditu arau, ber denboran haren amodioa ene izaiteari untsa josirik senditzen nuela: hori duk "poematxo" hunen muina, mamia eta iturria, gure izkuntzako hitzetan ene bihotzak bere maneran kantatua!

I

Uano haurra nintzelarik
Bospasei urte, eniakikek xuxen erran...
Udako atsalde eder batean
Beroak samin joiten beitzuen
Otteka nindabilen, haurra jostetan.
Eta ikusi nikan pentze ordokian,
Putzundeko pentze hertsian
Belarka ari ziren hiru gizonen ondotik
Emazteki bat
Belar undarren biltzen.

Otteka, haur bat jostetan
Putzundeko pentze ordokian
Eta emazteki ttipi bat
Belar undarren biltzen
Denborarik galdu gabe
Hiru gizonen ondotik:
Xapela buruan
Bokanesa lepoan
Izerdi trenpan.

Putzundeko pentze maxelan
Haur bat irriz jostetan
Otteen ondotik arranguran;
Eta hiru gizon serioski lanean
Belarra airatuz xixpen puntan;
Eta emazteki bat heien ondotik
Belar undarren biltzen
Ez hainbeste xahar
Ez hainbeste gazte
Bena anitz akitua
Lanak eta penek higatua.

Hiru gizon azkar:
Gazteena orgen gainean;
Beste biak, zoin erneago, sahetsetarik
Xixpatraka belar emaiten
Eta beti, heien ondotik,
Emazteki ttipi hura:
Xapela buruan
Bokanesa lepoan
Izerdi trenpan
Belar undarren biltzen.

Oroitzen nuk, emazteki horri
"Ama"
Nakola oihu egiten,
Gizon bati "Aita"
Beste bati "Ellande"
Eta beste batzueri "Piarraño", "Anbroxi..."
Erraiten nioten bezala,
Ezpeinakien zendako!
Ezpeinakien zer gisaz!

Oroitzen nuk, emazteki horri
"Ama"
Nakola beti erraiten,
Zuhaitz bati "haritza..."
Xakur bati "Llabri..."
Behi bati "Adar-xaala..."
Erraiten nioten bezala,
Ezpeinakien zendako!
Ezpeinakien zer gisaz!
Alta senditzen nikan etzela arras berdin.

Iruzkia mendi haundien gibelean
Gorde orduko
Belarrak bildu zireztean.
Arrestelia bizkarrean,
Urrats pizu batean,
"Ama" jin zitziakan ondoraino
Eta hartu eskutik:
"Hea haugi etxerat" erranez.

Otteak utzi nintikan
Amarekin etxerat joaiteko;
Amaren eskuan
Ene esku ttipiaren ezartzeko.
Etxerat abian ginelarik
Ene begi ttipiekin
Petigora behatu niokan
Amaren harpegi eztiari:
Xapela kendua zikan
Eta biloak ziozkan kopetaraino eroriak.
Ordian, lehen aldikotz
Ohartu nindukan Amaren begieri:
Bi begi argi,
Zeruko urdina beno urdinago.
Oh... lehen aldikotz
Ohartu nindukan Amaren ezpaineri:
Bi ezpain gorri,
Udako beroa beno beroago,
Eta biloek doi bat kukuturik
Bi beharri ñimiño
Bat zoin bestia beno ederrago.

2

Gaztarorat doi-doia heldua
Etxetik joan behartu izan zitziakan eskoletarat,
Diotenaz gain oraiko mendean
Eztela jakitaterik gabe ibili behar.

Utzi nintikan ene etxeakoak:
Ene Aita xaharra nigarretan,
Lagundu beinindien bideberriko xeheletaraino.
Lagundu ixil-ixila bideberriraino
Bihotzean gordez bere pena izigarria.
Ene Aita gaixoa, bere gizon bihotzarekin

Iduri hetsia eta hain beitzien zabala!
Iduri gogor eta hain beitzien beroa!
Aitaren bihotza bere semeentzat!
Aitaren bihotza bere umeentzat!
Bere beso idorretan finki tinkatu beinindien:
"Izan untsa, Mañex", erranez...
Eta egon beitzen bide gainean luzaz
Pauxaldeko bixkarrean
Ni arrunt gorde artino.
Utzi nikan bide gainean nigarretan
Lur huntako egoitzan
Gehiago besarkaturen ezdutan...
Lur huntako egoitzan
Gure alorretan lurrarekin borroka,
Gure Ostogian ot'epeiten,
Etxondoko bazterretan dailuka
Gehiago ikusiren ezdutan...
Lur huntako egoitzan
Zonbeit ilabete etxetik urrun egon onduan
Gibelerat itzuliko nizan aldi guziez
Supazter xokoan, beroki
Gehiago elektaturen ezdutan...
Ene Aita gaixoa!
Ene Aita maitea!

Utzi nintikan ene etxeokak:
Ene Ama akitua nigarretan
Sukalde barnean
Ezpeitzuen ene laguntzeko kuraierik.
Utzi ixil-ixila sukalde barnean...
Pott bat emanik ezpainetan
Ur benedikatuaz kurutzearen seinalea
Kopetan markaturik:
"Kasu bide hoitan minartu gabe", erranez,
Eta bere nigarrez ene begiak garbituz...
Ene Ama gaixoa, bere emazte bihotzarekin
Deneri zabaldua eta hainbeste nihauri!
Deneri emana eta hainbeste nihauri!
Amaren bihotza bere semeentzat!
Amaren bihotza bere umeentzat!
Gau eta egun ene altxatzeko
Dena arrangura, dena nahigabe;
Gau eta egun ene hazteko

Dena urrats, dena esku-ukaldi
Lokartu orduko berriz jeiki behar;
Holaxet egun batetik besterat
Gauik ezagutu gabe...
Enetzat higatu dien bihotza!
Eta ni, haur ezazola, jakin ukan banu!
Bainan nola zer nezaken konpreni
Ama batek bere haurrarentzat
Duen Amodioan?
Betidanik betikotzat
Bere bihotzean maite ninduen
Ene Ama gaixoa!
Ene Ama maitea!

Amaren ezagutzeko
Nolazpeit konprenitzeko
Behartu izan zitziakan
Etxekoak utzirik
Ene sor-herritik urrundu
Kanpotiarren amodio hotza senditu
Eta, erran-zaharrak dion bezala,
Kanpoko salda jastatu.

Amaren altzotik urrunduz geroztik
Zonbeit denboraren buruan
Gau batez bakarrik nindagola
Gogo ilun gaueko ilunpe beltzean
Ikusi nikan, ezpeinakike zer nola esplika
Aments batean bezala
Emazteki bat
Lehenago, haurrean, Putzundeko pentzean
Belar undarren biltzen
Ikusi nuen emazteki hura ber-bera.

Ene aintzinean xutik ziaukan.
Haren aintzinean xutik nindaukan.
Bere bi begiez ene bi begietan so egiten ziakan.
Ene bi begiez bere bi begietan so egiten niokan.
Eta biak ginauzkan gure bi begiez elgarri so:
Iduri elgar nihundik ezin ezagut,
Iduri elgar nihundik ezin konpreni.

Ene aintzinean xutik ziaukan.
Beraren aintzinean xutik nindaukan.

Eta biak ginauzkan gure bi begiez elgarri so.
Oh... Emaztekiaren begietan
Miraila batean bezala
Ene bi begiak ikusi nintikan:
Bi begi argi
Zeruko urdina beno urdinago;
Berdin-berdina, ene begietan
Miraila batean bezala
Emaztekiak bere bi begiak ikusi zitezkan:
Bi begi argi
Zeruko urdina beno urdinago.
Emaztekiaren ondoraino hurrandu nindukan
Ezpainak ezarri haren ezpainenetan
Ene ondoraino hurrandurik
Ene ezpainenetan senditu nintikan emaztekiaren ezpainak
Uda beroa beno beroago
Elgarren ondoraino hurrandurik
Ezpainak ezpainenetan
Bere ezpainenetan senditu zizkekan emaztekiak ene ezpainak
Uda beroa beno beroago.

Orduan jatzartu bezala nindukan
Ezagutu beinuen lehengo emaztekoa
Erran niokan:
"ENE AMA"
Oihartzunak ihardesten duen bezala
Ene Amak ihardetsi ziakan:
"ENE HAURRA".

3

Gaua argitu zukan enetzat
Eta bihotzean sartu bozkarioa
Undarrean ezagutu beinuen
Kaskoz bezala bihotzez
"NOR" zen
Lehengo emazteki akitu fura:
ENE AMA!

Orduan bihotzeko bozkarioak
Jauziarazi ziakan nigarra burrustan
Begietan gaindika.
Amak besoetan hartu nindikan
Lehengo denboretan bezala,

Iratze metatik erortzen nintzelarik.
Bere altzoan pausatu zikan
Ene gazte gorputz gordina,
Bularren kontra tinkatu
Ene buru iluna;
Bere hatsaz berotu
Ene harpegi hoztua
Eta bere begiez xukatu
Ene begi bustiak...

Nigar egin nikan
Burrustan nigar egin bozkarioz
Gau hartan ezagutu beinuen
Eta betikotz ezagutu eta konprenitu
Lehengo emazteki ttipito hura
Ene Ama dela
Eta ni haren Haurra
Haren sabeletik sortu umea
Haren haragitik moldatu haragia
Haren odoletik hazi odola.

Zonbeit urteen buruan
Ene etxondorat
Itzuli nintzan batez...
Negua zukan: denbora ilun
Mendi kasko, landa eta alorrak...
Elurraren pean.
Biloa xurritua, matelak ximel
Eriak iddor, zainak esku gainean ageri...
Ene Ama hatzeman nikan
Supazter xokoan
Su haundi baten aintzinean
Berotzen ari.
Lehengo Ama
Betiko Ama:
Bi begi argi
Zeruko urdina beno urdinago;
Bi ezpain gorri
Udako beroa beno beroago;
Bi beharri ttipi
Bat zoin bestia beno ederrago
Bilo petan gorderik.
Eta bihotz bat!

Nihungo gazte batena beno gazteago
Egiazko amodioz gainditua
Amodio fresko batez beti ereberritua
Amodiozko iturri freskoa
AMAREN BIHOTZA!

Parise'n

1958'ko Urriaren 2'an

ARNAUD ERDOZAINCY ETCHART



Atzerriko neskatilla

(Das Mädchen aus der Fremde)

Aran baten, artzain-artean,
Agertzen zan urte-berriz,
Lehengo larratxoriekin,
Neska bat, ederra guztiz.

Ez zan aran hartan jaioa,
Iñork ez zekin nongo zen,
Galtzen ziran haren oiñatzak,
Neskak aldegin ondoren.

Haren ondoan pozez zegon
Biotz oro irigia;
Andraurenak urrundu arren
Lasaitasun larregia.

Ba zekarzkin lore eta frutu
Beste lur batek emanak,
Beste eguzki batek ondurik,
Izadi obe batenak.

Bakoitzi zerbait zemakion,
Nori frutu, nori lore;
Doaiturik zijoan etxera,
Naiz mutiko, naiz agure.

Arrotz denak ongi-etorri
Zitun; baiñan maitariei
Zemakien emai onena:
Lili ederrenak haiei.



Erri-min

(Sehnsucht)

Laño otzak estalitako
Ibar honen zolatik
Irtetzeko ba nu bide,
Zer poza neduke nik!
Muño ederrik han dakust,
Beti gazte eta musker!
Baldin egorik ba neuka,
Egaz joan neinte laster.

Zeru-bake gozo baten
Harmonia ba dantzut,
Aize ariñak dakarren
Balsamua sendi dut,
Osto illunen artetik
Irriz urre-frutuak...
Han loratzen den lorerik
Ez du ozten Neguak.

Zein den eder ibiltzea
Han, beti eguzkitan,
Aizea zein freskagarri
dela gaillur haietan!
Baiñan ez nau uzten joaten
Artean den ibaiak,
Ur gora ozena gatik
Ditut biotz-ezbaia.

Ontzi bat dakust zabuka,
Ez, oi! ontzi-maixurik.
—Biotz euki! Utz ezbaia!
Velak arima bat dik.
Siñets ezak, ausart adi,
Naiz jainkoak ez berma:
Mirazko Errira soilki
Mira batek arama.

FRIEDRICH VON SCHILLER

(J. Mirande'k itzulirik)

MAITE MINTZOA

Aurten dugu Frederi Mistral'en *Mirèio* poema ederraren eun-urteurrena. Mistral'en eta gure izkuntzara poema ori gogo sutsuz eta esku trebez itzuli zuenaren gorazarrez, zaitxo bat artzen dugu emen, "Orixe"-k 1930'garrenean euskeraz agertu zuenetik. "La culido" deritzan bigarren kantuaeren azkena da.

Erori ta bela askatu zen neska besoetatik eta irasagar-lorea baño zurbillagorik zutitu zen. Bi gazteak eseri ziren muñaska batean elkarren ondoan. Elkarri apurtxo bat begira ta esan zuen saskigilleak: Miñik artu al dun, Mirei? Deabruen zugatza! Ostiralez aldatuko zugatz zorigabea! Iगतuko al aiz! Pipiak yanen al au! Nagusiak gorrotatuko al au! Neskak, aldiz, ikaretan erantzun zuen: Ez diat batere miñik artu; baña, zer duen ez dakiela nigar egiten duen kuñare-aurra bezala, zerbaitek estutzen neok, eta ikustea ta entzutea eragozten zidak; biotza pil-pil, bekokia ameska, ta odola irakiten zedukeat. Kiman berandutu zainalako amaren bildur ote aiz? Orixe gertatzen zitzaidan niri ere soñekoa zarpilduta masustetan aurpegia ubelduta etxolara berandu biltzen nintzanean. Ez, ez, esan zion Mirei'k; beste naigabek estutzen neok. Agian, esan zuen Bikendi'k, eguzkiak gaitz egin din. Ba dun sorgin zar bat, Taven, Baus'ko mendietan; lilluratzaile dun; baso bat ur bekokiari ezarrita eguzki-izpiak lilluratzen ditin, eta buru goritik basoaren barnera sartzen ditun kristalean barna. Ez, ez, esan zuen neska ederrak: eguzkiaren beroak ez ditik ikaratzen Crau'ko neskak... Baña zergatik ez esan?, barrena lertzen zedukeat eta. Bikendi, Bikendi, zer dudan yakin nai al duk? Ik maitemindurik nardukak.

* * *

Erreka-ertzean aize garbia, zotala ta sarats zaarrak atsegiñez arritu ziren. Ai, erregintxo! Ain ederra izanik olako mintzo gaixtoa

dun?, esan zuen saskigilleak. Arri ta belarri egiñik negon! Nola? I ni-regatik maitemindurik? Jaungoikoarren, Mirei, ez niri bizia kendu, orain arteo zori on izan diñat eta; ez niri siñestarazi eriotza lekarkidaken gauzik; ez, arren, niri istarik egin, Mirei! Ez dezadala zerurik gezurra ba diot, esan zuen neskak: siñista ezak. Maite aut, eta orrek biziko au, Bikendi. Andregaitako nai ez ba nauk ordea, anker orrek, naigabez gaizkituko nauk eta ire ofñetan akituko, biotzillunik. Ez olakorik esan, erantzun zuen totalik yaun Anbrusi'ren semeak: gu bion artean lezea zegon. I, Basaka-bordako erregiña aiz ta guziak inندان daduzkan; ni, Valabrega'ko saskigille ezereza, Mirei; nekazari gizagaxo bat. Eta zer ziok, ene maite, yaun naiz saskigille izateak, atsegin bai akit?, erantzun zuen arin, bala-lotzaillea bezain gorri. Naigabeak niri odolak urtzea nai ez ba duk, Bikendi, zergatik dirudidak ain eder ire zarpillekin?

Nexka zoragarriaren aurrean Bikendi naasirik zegoan, sugeak odeietatik geldituz etxerazten duen txori zorotua bezala. Sorgiña aiz bada i, esan zion zartez, ire begiratuak orrela zorutzen nauden ezkerok; ire mintzoak burura eman zidan eta nire baitatik atera neun moskorra bezala. Ire besarkak ene pentsamendua sutan yarri duela ez dakin? Ara bada, saskigillekume oni iseka egiñen ba dion ere, no, nik ere maite aumat, Mirei; maitearen maitez iretsiko induket. Ik esanen ba idanan "urrezko aumta nai diat; iñork larratzen eta yeitzen ez duen aumta; arkaizpeetan Baus'ko oroldioa milikatzen duen aumta bear diat", edo arrobietan galduko nindunaken, edo emen ekarriko niken urre-illezko aumt ori: ortarañio maite aumat. Izar bat nai diat nik, esanen bai u, ez itsasok, ez basok, ez ugotdek, ez urkatzailek, ez suk, ez burnik, ez lidaken galaraziko: zerua ukitzen duen mendi-tontorretara yoanen ninduken aren billa, ta igandean ire lepotik dilindan eramanen uke. Ikustenago ta zorutzenago naun... Adi zan, Mirei, bein batez ikusi ninan bide-ondoan arkaitz soillean errotutako pikondo bat, Valleclusa'ko aitzuloan. Muskerrari yazmin-txaparrak ere baño itzal gutxiago egiten zionan. Badakin nola bizi den pikondo ua? Urtean bein, uin batek ureztatzen zition erroak, eta bear duen ur guzia ordun edaten din, urte guziko egarria iltzen duelarik. Beatzari eraztuna bezala zegokinat au niri. Ni naun bada, Mirei, zugazño gaixoa, ta i aiz iturria ta ezoa. Yainkoari liotsan, gizagaxo onek urtean bein bederen, orain bezala, belauniko, ire aurpegi-erraiñu ortan atsegitea ta batez ere ire beatzak ikaraz biguinkiro musukatzea. Mirei'k maite-pilpiraz entzuten zion. Ark, berriz, zorabildurik gerritik eltzen dio nexka zorabilduari, ta besarkatzera doakio. Mirei!, otsegin zuen artan mintzo zaar batek zugaztian. Mirei! Seda-arrak ez diñate yanik gaur eguerdian. Ikusi al duzute ler-adaburuan etxetxori taldea kokatzen arrastirian eta, bat batean, buruxka-biltzailereren baten arri-ukaldiz

izutzen eta basora iges egiten? Olaxe ikaraturik doazi zabaldian barna neska-mutil maiteminduak. Nexka borda aldera itzik atera gabe, bildutako ostoaak buruan; mutilla berriz geldi, tutulurik, otalurrean barna laisterka doaien nexkari begira.



VII - Euskal Literatura-ren bilduma laburra.

Piarres de AXULAR. (1556-1644.)

Denek ezagutzen duten autore hunek etzuen liburu bat besterik idatzi. *GVERO* famatua. Lau edizione egin dira liburu huntarik; lehena eta bigarrena berdintsuak eta dembora bertsuak (1643), laster begien bistatik bakandu zirenak; naiz ongi etorri beroa izanki irakurleengandik, Larramendi-k dionez.

Bigarrena, urte gabekoa, *GUEROCO* izenakin agertu zena; irugarrena, Inchauspe kalonjearen edizioea ezta oberena; aldatu eta kendu ere egin zituelakotz zati osoak, izketa batzu garbitu beharrez.

Laugarrena, 1954 urtekoa, leheneko edizionetik itzez itz ateraria, eta graphia, egoaldekoen gisara pittin bat aldatua. M. Lekuona-k prestatu edizioea, L. Michelenak eta A. Irigaray-ek lagundurik.

M. Lekuona-k eratziki dio AITZIN-SOLAS luze eta eder bat. Orai Liburutegietan salgei dagona.

Piarres de AXULARR nafarra zen, Urdazubi-koa, eta apeztu zen Iruñen eta Leridan, geroago Sara-ko erretore izan zen eta han hil; eta eortzia dago, Bonapartek ezarritako euskal izkiribu baten pean.

Laudorio andienak egin dira liburu huntaz; mintzo den bezala idatzia dago euskara aberats eta bizi batean. Larramendik eta Ioanes d'Etcheberryk lehen eta gero Otsobik, Lafittek, Orixek eta bestek euskal liburuen nagusi bezala jo dute eta jotzen dute.

Eta hala ere estimatua izan da euskaldunengandik, naiz oso bakan ziren arkitzeko leheneko edizioeak. Beste batzuek berriz gordinegi agertzen zaigu AXULARR zaharra esakun batzutan, eta hau dela kausa noizpait *auto de fe* bat baiño geiago ikusi bide da gure

mendietako etxalde zokoren batean, DECHEPARE-renakin gertatu bide zen bezala.

Mirestekoa da, diote bestalde, deboziona erakusteko duen epeltasuna; bainan nago ez ote garen haren aroan eta ingurunean bear den bezala kokatzen AXULARR taxutzeko. Orduko euskaldunak aise euskaldun utsago ziren gu baiño; erdaratiko deboziona axaleko batzu etzituzten oraino etxekotuak.

Aitzitik, herriko gizonen egin bide zuzena eta prestutasuna obesten zituzten itxurapenak baiño. ERASMO-ren kutsu-ren bat ote zuen gure Irakasleak? Ez dut uste; aski zituen euskaldunki ikustatzea bere ingurumeneko jendeen gaiztakeriak eta obenak, eta euskaldunki sendabidea billatzea eskumenean arkitzen ahal zituen erremedioak emanaz, Jainkoari otoiztea aantzi gabe.

Kristauaren gaizpidea gizonki erakustea eta gizonki ere sendabideak emate molde hortan datza gure ustez, AXULARR andiaren arrakasta. Ez du AXULARR-ek predikatu nai izan serorendako; horrexengatik gizon arrontek, bai eta emaztekiek ere atsegin berezi batekin irakurtuko dute beti. Eta apeza izanik etzaio kasik nabari bere apeztasuna; arrantzale onaren doai hau eskas aunitzek.

AXULARR-en inguruko xehetasun eta zertzelada geiago nai tuenak arkituko du EGAN aldizkari hunen núm. 1-4, Axularrez 1953 urtean Irigaraiek egindako Solasaldian.

Eta aski neretik; demagun orai autore hortatik bi zati, irakurleen atsegiñerako, GVERO liburuko leeneko kapitulotik artuak.

* * *

GVERO bi partetan partitua eta berezia. Bordelen. 1643.

Nola bertzeak bertze direla, alferkeriatik ihes egiteagatik ere behar den travaillatu.

* * *

I

Erraiten du Aristotele'k on dela, alferkeriaren herritik kentzeko eta desterratzeko, eta herrien ere bere Erregeren edo bertzeren kontra jaikitetik begiratzeko, zenbait obra handiren astea, zenbait dorrenen edo gazteluren egitea eta hetan jendearen enplegatzea.

Nola ageri baita Egipto'ko Piramidetan, zein eragin baitzituen errege Pharaon'ek, jendeak alfer etzeudezin amoreakatik. Iduriturik errege hari ezen, baldin Israel'eko seme, gatibu bezala bere azpian

zedutzan hek (iragaiten baitziren seietan eun milla presunetan) uzten bazituen bere plazerera eta aisiara bizitzera, urgullutzeko eta nabusitzeko bidean jarriko zirela, eta handik bear etzena sortuko zela, egin zuen Piramide batzuen egiteko gogoeta, asmua eta pentsua.

Eta Piramide hetzaz mintzo dela, erraiten du san Isidoro'k: *Pyramides est genus sepulchrorum quadratum, fastigiatum ultra omnem celsitudinem, ut lato incipiant et in angusto finiuntur* (Isidor, lib. 5 *Ethimol. cap. II*): "Piramidea edo Piramideak ziren sepultura-suerte batzuk, pilare arroin edo tonba, laur kantoifetako gora ailtxatu batzuk, egin ahal zitezkeien gorenak, ondoan zabal eta puntan mehar."

Eta hetan travailla arazitzen zituen Pharaon'ek bere azpiko jende hek, seifialaturik bat-bederari bere eguneko lana eta sailla. Eta eskua-ren ibentzea bera asko bazuketen ere, ordea lanabesak, tresnak eta obraren egiteko gai guztiak ere berek bilatu eta ornitu bear zituzten.

Eta halarik ere ezin ausart zitezkeien arrenkuratzera, halako moldez ezen, hartako lehenbiziko itza aotik itzuri zeinenean, erran baitzerauen berehala Pharaon'ek; *Vacatis otio* (Exod. 5): "Asti duzue"; zeuen ongiagiak, alferkeriak, aisetasunak iratxekitzen deratzue; hark horrela kilikatzen eta mintza-arazitzen zaituztezate. Eta halatan aitzinerat kargatuago zituen, lana berretu zerauen. Eta hura guztia egiten zuen, baldin bat-ere astirik bazuten edo alfer bazeuden, handik zerbait kalte etor zekion gogan-bearrez eta beldurrez.

Pysistrato, Atenas'ko tirano gaixto hark, ikusi zuenean plaza guztia jende alferrez betea, eta hetarik anhitz malizia eta pentsu gaixto sor zitekeiela, deitu zituen guztiak berengana eta aitzinerat alfer egoiteko desenkusarik etzutentzat, eman zerauen mando, zamari, idi, azi, diru, finean, travaillatzeko bear zuten guztia. Eta gero igorri zituen lanera eta travaillura, iduriturik ezen, halatan etzutela kalterik eginen, maliziarik pensatuko eta ez herririk nahasiko. (*Aelianus, lib. 5, variis histor.*)

Munduko berri dakitenek erran dute eta erraiten dute, on dela herrientzat eta erresumentzat zenbait egiteko eta gerla, bere herritik eta erresumatik kampano, izaitea. Zeren, nola bat bedera bakearekin loakartzen, ez ansiatzen eta gorputzaren plazeretara emaiten baita, hala gerlekin, etsaiekin eta kontrastekin ernatzen, iratzartzen eta axolduritzen da.

Plutarko'k egiten du liburu bat etsaietarik ateratzen den probetxuaz, eta guztietako andiena eta prinzipalena dio dela alferren travailla arazitzea, lotien iratzartzea eta antsikaben ansiatsu eta arduratsu egitea. (*Plutar. lib. De Utilitate ex inimicis.*) Adiskideen artean garenean laxo gara, eztadukagu deusez ere konturik, eztugu gaizki

mintzatuagatik eta milla erokeria egiñagatik ere antsiarik. Zeren baitakigu ezen, adiskide direnaz-geroz, hek guztiak estaliko eta onera artuko derauzkigutela.

Baiña etsaien artean garenean, bear dira buru-beharriak ernatu, zer egiten eta erraiten den behatu. Zeren nola etsaiak beti-ere zelatan baitaude, zer-ere uts edo falta edireiten baitute, hura berehala arrapatzen dute, eta are batzutan berreturik, airatzen eta kanpatzen dute.

Hargatik erraiten du san Krisostomo'k: *Saepe vero ab inimicis non minus lucratur quam ab amicis. Cum enim nobis peccata exprobraverint, etiam invitos in ipsorum correctionem excitant.* (Chrys. to. 13, ad populum Antimoc. tom. 3.) Anitzetan egiten derakute etsaiek hanbat ongi eta ontasun nola adiskideek, eta bai batzutan geiago ere. Zeren etsaiek geure faltak erranez eta etzaz erantzute-eginez, emaiten derakute okasino ernatzeko, iratzartzeko, falta eginen emendatzeko, erremediatzeko eta bai ere aitzinerat geiago egitetik ere begiratzeko.

Arrazoin hunengatik erran ahal diteke, etzuela egundaino gure Jaungoikoak nai izatu akaba zekizten Israel'eko seme hei bere etsai guztiak; baiña ordenatu zuen edo permititu geldi zekien beti-ere zenbait bakotx eta ondar iratzartzeko, ernatzeko eta alfertzetik begiratzeko.

II

Irabazi zutenean Lazedemoniakoeak bere frontierako hiri etsai bat, mugakide zuten bat, erran zuten Lazedemonia hartako bereko gobernariek: *Sublata est pubis nostrae palaestra; non habebunt posthac quibuscum luctentur adversarios.* (Plutar. in Aphot.) "Egin da gure jende gazteaz; eztute hemendik aitzina jardukitzeko paradarik izanen, eta ez borrokatzeko etsairik."

Lazedemonia'ko hek berek etzuten desegin nai izatu hiri kontrast bat, beti ere bere kontra eta etsai izan zuten bat, erraiten zutela ezen, iri hura zela *juventutis cotem*, gaztetasunaren zorrotz-arria, zeren gaztek han bere indarra eta antzea frogatzen, zorrozten eta erdoiltzetik begiratzen baitzuten.

Hunen arauaz ihardetsi zuen *Kleomenes* Sparzia'ko hark ere, galdegin zeraukatenean ea zergatik, hala bere meneraz-gero, etzituen bere etsai Argiboak desegin? *Ut habeamus qui juventutem nostram exercent.* (Plutar. in Laco): "Eztitut desegin, dugun amoreagatik nork gure jende gaztea zertako den froga dezan."

Entzun zuenean *Publio Nasika*'k, egotzi zutela Erromakoeak herri-tik Anibal bere etsai andi hura, Kartago ere artu zutela eta hainber-

tez, bere ustez, aitzinerat segurean jarri zirela, erran zuen: *Atqui nunc in lubrico sumus (Plutar. in Aphothe.)*: "Aitzitik, orai gaude egundaiño baiño linburtzeko eta erortzeko peril handiagoan. Zeren ezpaitugu orai lehen bezala, iratzartzaillerik eta geure eginbidearen eragillerik."

Izatu zutenean erromatarrek desiratzen zuten abantaila eta garaitia kartagotarren gainean, sartu ziren kontseilluan erromatarrek ea zer eginen zuten Kartago'ko hiri hartaz. Eta Caton'ek (prinzipale-netarik bat baitzen) erran zuen, guztiak desegin, plaundu eta lurrarekin berdindu bear zuela, zeren, bere gerla guztiak eta egitekoak hiri hartarik sortzen zeiztela eta hura deseginez-gero, bakean eta soseguan jarriko zirela.

Baiña Scipion kapitain famatu hark, etorkizunari obeki behaturik erran zuen: etzutela neholatan ere hiria desegin behar, zeren baldin desegiten bazuten, gerla bat iraungi ustean, bertze andiago bat piztuko zutela; zeren berehala jendea alferkeriari, jan-edanari, erran-merranei eta aisiak dekazkeien gaixakeria-suerte guztiei emanen zeiea, eta handik nahastekak, diferentziak, guduak, auziak, etsaigoak eta kartagotarrekikoa baiño gerla perilosagoa bere artean sortuko zeiea. Eta hala gertatu zen; zeren, Scipion'en kontseillua utzirik, artu zuten Caton'ena, desegin zuten Kartago'ko hiria, jarri ziren bere ustez bakean, baiña Scipion'ek erran zerauen bezala, fite berak eta Erroma'ko hiria ere beheititu eta erori ziren. (*Vid. August. lib. de Civitate Dei, cap. 30, tom. 5.*)

Egia haur ezagaturik, *Perikles* famatu hark mantenatzen zuen beti ere bere herritik kanpoan zenbait gerla. Eta urteoro igortzen zituen utziak jendez beterik gerla hartara. Eta hetan bulkatzen zituen, ediren ahal zitzan alfer guztiak. Eta gero bizitzen zen bake andi batean. Zeren nola herri guztietan oi baita komunzki zenbait alfer eta jende galdu, eta hek anhitz kalte eta nahasteka egiten baitute, ontasun andia eldu zaika herriari halako heken kentzeaz; nola lurrari ere eldu baitzaika probetxu jorratzeaz eta belar gaixtoen ateratzeaz. (*Plutar. in Pericl.*)

Korintioak hain zeitzen aiher alferrei ezen, ikusten zutenean gizon bat bizitzen zela errentarik gabe, ofiziorik gabe, eta travaillatu ere gabe, berehala bertze frogantzarik gabe bizia edekitzen bait-zioten, zeren erraiten zuten ezen, presuna alfer, ofiziorik eta errentarik etzuenak, ohoinkeriaz, enganamenduz edo zenbait arte gaixtoz usatu bear zuela, eta halakoak bizia zor zuela; eta hala edekitzen zioten. Eta on lizate orai ere halakoekin hala egin baledi. (*Laert.*)

Solon andiak ordenatu zuen, ezen aita batek bere semeari ofiziorik erakusten etzioenean, etzela seme hura bere aitaren faboratzera, bearran ikusiagatik ere, obligatu izanen; zeren, ofiziorik ez erakusteaz, alfer eta gaixto izaiteko bidean eta perilean utzi baitzuen bere aitak. (*Plutar. in Solon.*)

Gimnosophista zerizten jende batzuek hain gaitzesten zuten alferkeria, ezen beti ere afal aitzinean deitzen baitzituzten presuna gazteak beregana jakiteko ea zertan iragan zuten eguna; eta baldin frogatzen bazeien alferkeriarik, etzerauen afariak gaitzik egiten. (*Patricius lib. de republica.*)

Caton zensorino hartaz irakurtzen da (zeñiek baitzuen alferren gañean esku eta botere), ekartzen zeraukatenean gizon bat bere aitzinera akusaturik, erraiten zela, ezen alferra zela, berehala lehenbiziko gauza, eskuetakoa larrua azkatzen eta ferekatzen zioela: eta baldin latz, lodi eta gogor edireiten bazioen, ahalik eta arintkiena uzten zuela; baiña baldin mehe, leun eta bera ba zuen, alfertzat kondenaturik falta gutigatik ere bortizki gaztigatzen zuela. (*Plutar. in vita Caton. Censor.*)

Caton hark berak erraiten zuen, irur gauzatarik bere mendean ahal bezan-bat begiratu zela: emazteari bere sekeretuak fidatzetik; leihorrez ahal zihoakeiela, itsasoz joaitetik; eta egun guztian alfer egoitetik.

Lukanoek edireiten zutenean, nehork jende alferrei deus prestatzen zerauela emaiten zuten berehala sententzia prestatzaillearen kontra: zer ere prestatu baitzuen, hura guztia gal zezala. Baiña nik uste dut ezen, etzela halako sententziaren emaiteko premiarik, bera baitago emana; zeren ezpaitu halakoei prestatzailleak koberatzeko perilik. (*Nicolaus, de moribus gent.*)

Indietako herri batzuetan etzen bat ere, bere gorputzaz balia ahal zitekeienik, eskean ibiltzen. Itsuek ere tornuan edo arrodan bedere ari bear zuten: *Apud Synas Indiae populos, caeci molas trusatiles versando, sibi victum parant.* (*Osor. lib. II.*)

A. IRIGARAY. Alda-aratzaillea.



ESNEKETARIA

Denbora batean etzen Gaxux bano gisakoago neskatorik errian, berrogei urtetarik gorako mihiak diotenez.

Gaxux karrikako esneketaria zen; eta zer berri mamitsuak etzituena bildu etxez etxe!

Emezortzi urteko or nunbait zabilan orduan eta, dena erraiteko, aski aunditzen, etzuen denbora galdu.

Ori bai: biribila bezain pinpiripoxa izan zen beti.

Egun aietan etzabilan huntsa, edo ar ttipi zonbait bazuken nunbait. Gero jakin da: amets batek lorik gabe zekarzkion gau aiek oro. Zorigaitzeko, orduan eremaiten ziren txapel egal makur baten nahieria ba-zuen aspaldi, bana igandezkeroz...

Berdin du erranik: Michel ikusiz geroz...

Bazoan zubiko bidetik eta Michel eldu aldaturik.

—“Jésus! —egin zuen Gaxuxak bere baitan—; bordatik ote, arropa oriekin?”

Bordatik edo ez bordatik, konten zela errekontratzeaz erraiten zion tarrapatan biotzak eta, etzion galdegin nahi izan nun zabilan.

Michelek ere etzuen erran, bana istampat egin zuten biak.

—Eztinuke nahi ogiak eremaiten laguntzea?

—...beste mezarat etorriko baita ama, bidean errekontratzen gintuzke...

—Ez joanik ere, zure aldetik erreparurik bazen, ikus nahi nuen bakarrik.

Eta gero, begiak lekutuz:

—“Gaxux; San Mikolasetan ba-dut pilota partida. Nik uste aisa irabaziko dutan. An bazina...!”

* * *

Gaxuxak oraiakoan txapela nahi du, Bai, bai; bana nork erran amari?

Iduri beti amaren erasiak luzkela beharritan:

—“Ez ditun laborari etxeko manerak. Gu ere izan gitun gazte eta egundaino holako lanbide ergelik etxean plantatu gabe. Aur-tzar mentsa! Alainso!! Nor dugu etxean?”

Eta berdin badu amari ez erranik, sosen mokañes iluna koropilatzea da aitari artea.

Gaxuxen gau-tegun ilunak!!

—“Bana ni plazan izain; —zion eztitzeko—, eta nere txapela bezalakorik ez an...”

Atera ditu kondu guziak, eta etzabilan gaizki Gaxux.

Gero-re etzuen nehork jakinen. (Elaike ez, polit jendeak agotan ar nezan.) Bana... beti ba-zuen bere arrangura kutsua biotz barnean.

—“Ori ezpalitz orain berean as nainke”, —zion bere baitan—. Ezin deliberatuz galdu ditu bizpairu egun.

“Jésus maitea, zoin zozoa nizan! Niaur arritzen nun:

”Zer ote da amar pinta esneri, pintta erdiño baten emendatzea?”

”Eta ez nik erraiten dutelakotz; bana eztun erri guzian sartzen beste xorta bat gure esnearen parrekorik.

”Nondik...?”

”Perutxeneko behiak eta... OGEI PINTA EGUNIAN!! —aski dine ori satifos bizitzeko.

”Gero... deus ez. Ez behi ta ez esne:

”Esnea saltzen asi ta bataiatu gabe mehe.

”Ustez sekulako azienda baduten, eta denbora gabe adina artzen.

”Araiz! Nun ikusi da, arnoa edan eta ogia zopatzeko ori?”

”Ni berriz emen, “Suiza” zarmantaren sei pinta lodiak, beste lau handik-eta-emendikakoen prezio berean saltzen ero bat eginik...”

”Erosiko dinat ba, nik, txapela!”

* * *

Zubi inguruan ikus izan dute Gaxux batek eta bestek. Norbaitek erran ere ba noizpait;

—“Gaixo aurra! Zoin akitua dateken! Ori da zinezko gazterik bizitzen ikastea.”

Beste alde, berriz, behin edo beste laguntzaz bota nahi izan zioten esku bat, etzuen sekula on artu.

Egia erran behar da: etzuen deus ikusteko biderik eman.

Etxean.

Aitak: —Aurra, txapel bat erosi omen duzu! Eta nundik zinin sosa? Segur niz huntsa pahatia duzula!

—Ez anitz, ez!!!

—Aisa jakinen egia? Eta zoin alorretan bilduko dugu txapel orren azia?

—Zaude, otoi, ixilik, —dio artetik amak—; ezta oraikoan zurez baliatu. Balitz gure Gaxux gastu aundi-aundiko oitarik ere, zu orai erasika asteko!

—Eztuzu erran nahiko aizetik dela azi eta bezti, bestiak ez bezala!! (ez, ez; bien kontra ez da deus egitekorik).

Bego bere gisa txapela; bana “estalgi” oriek nik ez maite...

“Jinko huna, zer bizimodu tristia, —dio Gaxuxak bakarrik gel-ditu delarik—; beti leher-zapartaka lanian sos baten jabe ez izaiteko. Utsa zen jatekotik kendu izan banu txapelaindako!!!

Joan behar nuke etxetik. Nunbait lan eginez bizitzeak ez nu bel-durtzen; ala izain nuzke beti sakelan bi sos.

Betidanik ukan dut nik nahikeri ori. Besterendako lan egin; bana irabazien nagusi, ni.

Emengoa ikusia dago: beti ari eta... deus ez, beti.

Eskerrak noizean-behin San Mikolas bat ba-dugula!”

Abenduaren lehen igandean ba-zen Bezpera ondoan elapide gaitza bazterretan.

Eliza bortan bi ezpain gorri:

—Aizan; entzun duna? Txapel arro xarmentaikin ikustekoak omen gitun Gaxux Eiherabidekoa?

—Baia?

—Atzo korreuak ekarri paketa ori omen zunan.

—Ba-dakin zer zaitan bururat eldu?

—Nik dakita?

—Kaiola orrek behar ote digun xoria. (HUM!!!)

Auzoko senar-emazte batzu:

Senarrak: —Nik erraiten dutana, ta erranen, gaizo Ernest burua galtzen asi datekela. Eta nola!! Gastu ori egin behar zixin orai de-baldeko gauz batian?

Emazteak: —Urteko ogia segurtatia dikexi diruak bururat joan zaizkiolaik!!!

Sen.: —Alta, zerbait-zerbait behar bizitzeko bakarrik!!

Emaz.: —Eztiakixit batre zonbaitek nola biltzen duten sosa. Gu ere ezgitxu lanez gaizki; bana urre-landatzen eztixiu nunbait ohono ikasi...

Sen.: —Txapel-fantesia ginixiu behar orai...!

Jinkoak entzun ba-neza errirat gabe ergel orrena ego-aize batek eremaite ortan...!

Ostatuan :

—Iritarrek ezdakikete engoitik nola bezi bazterretxetako neska-totarik beresteko.

—Ik errak; eta “aideplanuen” moda jin baladi, bat beharko ginikek esne ekartzeko.

—Elukek gaizkio gure ogi egiteko oaska xaharra ur bazterrean balitz! Ur garbiagokoa nahas lezakokek belarduna bano!!

—Belarra esnean?

—Zubi ondoko belar guri-guria!

—Urdia! Aisa erosi dik txapela.

* * *

San Mikolas eguna. Argi sendiaikin karrikan Gaxuxen esnea. Lehen meza entzun eta itzuli da etxerat. Egun pausa zuten karrikako konduak.

Goiz guzia kantuz egin du. Denbora-re txoriak kafitik ateratzekoa zen; etzirudin abendua.

Ori ba; lan artetik lau-bost aldiz sala ttipira bere itzulia... an baitzen korreuak ekarri paketa.

Idekitzen duen bakotxeko lehen ez ikusi zerbait badu.

—“Zer den, bestenez, moda! —dio bere baitan—; ez eneatzea sohitez?”

Bietan erran gabe kuzi dazko amari unzia bazkal ondoan, eta noapait joan da.

—“Ama, —dio istampaten buruko—; huntsa niza? Izain dea ote beste Gaxuxik karrikan?”

Nahi gabe egin ditu bi yauzi bidian. (Ori-re ezta ez huntsa: zer erran lezake ikusten nauenak?)

Zubirat eltzean eztaki xuxen Gaxuxak zer gertatu den: “Michel...? Ura...?”

Sobera gauza ba-ziren buru artan...

Aize parrasta batek ereman zuen txapela, eta an doa orai ur gainian iostetan...

Nigar malko aundi batzutan bustirik atera zitzaion Gaxusi bertsu bat:

“Askitto dait txapelak erran:

Urak emanak, urak ereman.”

JOSE MARIA SATRUSTEGI.

EUROPA'REN ALKARTZEA

Azken gudu ondoren, Europa'ko errien alkartasuna lortu nairik, ainbeste alegin bizi dagiten gizon prestuak, bildurra eta bearraren eragiñez gañera, ba dute gogo barrenean ats izkutuagorik, ekiñaldi eta buruausteen eramangarri. Europaren dei samiañak erantzukizun latza egotzi diote agintariai, ta De Gasperi, Schumann eta Adenauer batek, kondairaren bidegurutze larri onetan, erantzun baiezkoa eskeñi diote. Alkartasun ori ez dute ordea nai irazekoa bakarrik izan dedin, iraunkor eta sustraietakoa baizik, ta onetarako alkartasunaren oñariak Europaren jatorrian eta edestiean tinkatu nai dituzte.

Ba al du, ordea, Europak nortasun beterik, gogo bakar baten atsemallerik?

Lenen begiraldian, kontinente zaar au, ain zatitua ta tajugabea ikusita, badirudi batasunik ez duala. XIX ta XX mendetan ogeitabost Laterrik sailkatu dute mugaz Europaren lurraldea. Europatarrak ordea buruauste ta komeri berdiñiak dauzkagu, naiz eta pasaporte ezberdiñak izan.

Oсотasun bestelakoaren jabe dalako kontzientzia dunari, zibilizazioa deritza. Ta kontzientzi ori, kultura da. Gizakitasuna ta askatasuna arkitzen dan urik bazterrenean, an datza Europaren izpiritua. Goiatsak nunai arnas badagi, Europa'ren animak ere, geografiaren esi gaindik, giza-osotasuna lantzen dan tokian du bizitzegoitza. Ori besterik ez da Europa.

Edestilariak sustrai naiko arkitzen dizkiote Europaren batasunari. Onegatik diote, "sustraietariko batasuna dala batasun ori".

Grezitarren ereintzak gogo kritikulari ta adimenkorra utzi ziguten. Erromatarraren erakutsia, errikoseme izaten ta eskubidezko arauz gizartearen bititza eramanazten, omen dago. Kristau-berrionaren ezaugarriak, berriz, giza-nortasunari dagozkionak eta alkarnaitasuna dira batipat. Giltzarri oen gain jaiki ta nabarmendu dira, gizaldiak zear, Europaren ezaugarri bikañenak. "Agora" bat bezela izan da

Europa, okerbideratu arte. Enparantza eder orretan, aburu eta iritzietan bakoitzak besteari jarkitzeko duen eskubide jatorra zan doairik maitatuena. Politika arazoetan beintzat ez da zerutik inortxori jaulkitako jakinduririk. Iguñia eta muziñ besterik ez, alor igikor eta baezpako orretan, arrazoidun bakarra bezela datorren gizon iritxierentzat. Errikoseme orok du alor onetan zeregin eta erantzukizun berea, ta onetxegatik, noski, du edonork alkargoak eratzeko eskubide baiezkoa. Errialde ta uriak ziran askatasunaren tegiak. Orrela zioten erdi-aroan: “Uriko eguratsak jaregin gaitu.”

Bestalde, Europaren gogoeta orokorra da. Europak sortu du “nazioenarteko eskubidezkoa”. Vitoria ta Grozio'ren erakutsietan zer dago orokortasuna ezik, alkarrekiko erantzukizunak eta eskubideak, ta tratu egñiak, errespetatzen errieri erakustean?

Kulturari bagagozkio, jakintzan eta antze ederretan ezin aitortu “naziotar kultura”rentzat Kondairan erro sakonik arkitzen danik. Musikan, margazkietan, filosofian, zineman europaren izpiritua dabil, ta naiz eta bereixtasunak ageriko izan errialde bakoitzean, alaz guztiz ere, batasuna sakonagoa bereixtasunak baño. Gañera ok —komunkultura onetariko ezberdintasun ñabarrak, alegia—, estadu-nazio barrenetan baño, erritasunen bizigiroan geiago kokatzen diran, Montesquieu'k argiro auteman zuanez. Kulturondare bat bera dagokigula bada, beste zibilizazioen ezberdiñari begira, are nabarmentzenago da. India ta Txina aitatzea aski da, eredutzako.

Gaur-egunean, eraso beltzak lau aldetatik erasan nai dio Europa'ri. Estadu barrenetako sakabanaketa utzita, Errusia'k Iparramerika'k, eta Mendeerriak ondamendi biurtu dituzte Europarentzat onen askakariak berak. U.R.S.S. —Lenen Pedro Aundia ezker duan arauz, Toynbee'ren aitoretz—, europakume dan marxismoa jarki dio Europa'ri, eraldaketa gogorrena eragiñazi miñez. Amerikanismoak, dakarren indarrarekin, badirudi antzaldatu bear dituala oitura ta gizakera errotuenak. Mendeerrientzat beraien orduak jo du, ta salbaezieñzko lokarri etenketara eragin diote koloni jabeai.

Galbide guztien sorterroak arkitzeko, berriz, ez dago atxurketa aundi bearrik. Europaren sustrai batasunaren krisis lerrarazi duan lenbiziko indar erauzlea degu nazionalizmoa.

XIX'garren mendea ezkeroztik 29 estatu jaiki ziran, arresia baño muga gotorragoz gerizaturik. “Balkanizatua” gelditu zan Europa lurraldea, Saillketa onetan, Salomon'en epaian bezela etzan beintzat gertatu. Ainbeste erri, erdi bi. Estaduaren nagusikeriaren gaindiko araurik ez. Nora baztertu du, nazionalismo onek Suarez jakintsuaren “jatorrizko erri-alkartasuna”? “Jatorrizko etsaigoa” ezarri zan elburutzat, norgeiago izateko, auzokoa zapaldu bear bait zan.

Bigarren indar erauzlea, industrietan, au ere estaduaren nagusi-

keriaren ixkillu biurtu baitzan. Lan motaen banatzea, Europa zaba-lean egin ordez —alderdi bakoitzak dituan gai, ontasun eta gizon antzetsuaren ariora—. Estaduaren mugaz barrendik tajurik gabe ko-katu ziran industri-adar guztiak. Ori mukurutzeko, auzokoaren trebetasunari ta salneurri merkeagoari buruzki egiteko, babeskuntza ertsia jaiki, aduanen beaztopoz, etxean sar ez ditezen kampoko gauza eder ta merkeak. Guzia, geroak garbi erakutsi dun bezala, ez erri xumearen onerako. Europa kantoiatua gelditu zan babeskuntza edo protekzionismoari esker, ta norgeiagomifien etsaigopean. Inglatera zan txapeldun XIX'garren mendean, XX'garrenean Alemania nagusi ta Ingalterra beeraka.

Europak ez du naiko ondasuntegi, batipat aurreneko materiak bear aña eskuratzeko, ta mendeerrietara jo zun gai oien billa. Gudu bi ondoren, ordea, koloniak galtzen ditu, ta berriz ere bearreneko ditun materiak gal zorian dago. Spaak jaunak zion itzez “Errusiaren bildurrez eta Iparramerika'ren laguntzaz bizi Europa”.

Mundua indartsu biren mendeko ia guztiz erori da, ta Europa'k, len buruzagi izana, irugarren indar jeiki bear du, bai etorkizunari ats-emateko, bai pakearen aldezteko. Orregatik, edestilari denak “al-kartu edo il”, diote ao batez, beste irteerarik ez.

Alkartasuna, bestalde, arrazoi lerdanak goraintzi dute. Bai tekni-ka aldetik, bai ekonomi aldetik, bai kultura'renetik.

Teknikan egin diran aurreratzeak, “irugarren industri eraldaketa” iragartzen digute. Asmakizun berri oiek giro zabalagoa eskatzen dute, milloi anitzen azokalekua, alegia, neurriz eta eratsu teknika berriaren erabiltzeko. Ekonomilarien aburuz gaurko ekonomi lege ta bideak, guxxienez eun milloi gizonen tegi batezkoa eskatzen dute. Sintesis'ko ekaiak edo materiak, nukleo ta eguzkiaren indarra, ta kybernetika'ren etorkizun siñesgaitzak, aurki eskuratuko dituzte eroso indartsu bi oiek, baita ere, eraberean, politikan eta ekonomian garaille ta nagusi jeiki aurrerapen oieri esker. Spaak berak esan zuanez “25 urte barru, Europa lurralde bazter ta landerra izango da, atomo-indarra, guzcion alegiñez, industrirako egokitzen ez badegu”.

Gaurko egokeran, ordea, merkatu ertsiegiak dauzkagu, ta estan-dargiñerako Alemania ta Ingalterra bera ere estuegiak dira alor neu-rrizkoa eskeintzeko. Gañera aduanen gerizapean diarduten lantegiak, lozorro betean egonik, teknika'ren aurrerapenetara bideratzeko, ale-giñik ez dagite. Zenbat eta ariñago muga-zergak, ainbat zeatzago lantegien espezializatzea edo bereizketa. Or degu, eredutzako, Suiza. Txikiagoa izan arren, Prantzian eta Alemania'n baiño gorago dago an bizimodu-mailla.

Europaren egoera atzeratua ikusteko, kontuegizu kontinenteko estadu bat bera ez dala transporterako egazkin aundiak egiteko lain.

Iparramerika'ko galtzairutegi bakarrak, Alemania, Prantzia ta Belgika'k aña galtzairu ateratzen du. Eta abar, ta abar...

Gure mendeko gudu biok beerabide bildurgarrian jarri gaitu, bainan areago estadu bakoitza muga-esi barranean kuxkurtzeak.

Europa'n, 17 nazio, izenez "eskuko ta aske", alkargorik gabe, sakabanaturik, ta Errusia ta Amerika, bakoitza bere aldetik alkartasun sendoan, naiz ekonomian, naiz politikan. Onela, merkatutzarako duten lurralde ta jendetzari esker, urte gutxiren buruan jaiki bikañez nagutzara eldu dira, mundua oinpean ezarriaz.

Arrazoi oen eragiñez bildu dira Erroma'ko Kapitolioan, Europa'tar gizon prestuak ta "Komunazoka"-ren oiñarri aurrenekoak ipiñi. Paul Hoffmann ekonomilariak dionez, urte gutxitan batekoz iru geitu lezake Europa'k aberastasuna, ekifialdi oni esker.

* * *

Ekonomian baño geiago dago, ordea, Europa'ren izatea Kulturana, Kulturak ere azoka-enparantza zabala ta eragozpenik gabea bear du ekonomiak ezik. Ez da naziotar kulturarik. Adar bat bakarra ere ez da Europa'n, erresuma baten muga ta giro barnean asi ta garatu, landakoekiko zer ikusirik gabe.

Toynbee edestilariak zeatz dio: "Europa'n, ez nazio, ta ez erresuma batek, ez du norbere utsezko kondairarik." Osorik bilduta baka-rrik da ulertkizun Europa'ren kondaira, ta bildurik artuta, erabatez, bereizi ta argiratu litezke errien goraberak gizaldiak zear.

Kultura gaietan ere, nazionalismoak eragotzi du erriarteko artukizun jatorra. Irratiaren abots eta doñuak ez dituzte mugak geldiarazten, batzutan, bañan bai liburu, film, margazki ta abar.

Askatasuna bear du kulturak loratzeko. Ta iñun baiño geiago Europa'n. Gure kulturak gizakia bait du bere landukizuna, au da, gizakiaren osotasuna amerikanismoaren garaitzeko, ta gizakiaren askatasuna komunismo ta indarragintzen buruzki.

Aitortu gabe ezin utzi; Europa politikaz, oituralegez, ta gogoetaz osotasun biurri ta ñabarra danik. Onegatik sarri suspertu dira, berezitatez indarrez berdintasunera biurtzeko tentaldiak. Beste batzuk berriz, Europa'ren alkargoak nazionalismo edo berria sortuaziko duen bildur dira. Ok lirake, noski, okerrik galgarrienak. Bainan, ziñez, gure kontinente zaarra alkartasun bidean oldartzen bada, ez da Hitler berri baten oinpean eroriko. Giza-erri sendien ugaritasuna ta lurralde ezberdiñen bestelakotasunean dago Europa'ren ondasunik gotorrena. Onegatik "batasun-bestelakotasun" bakoitza arkitzen da beti Europa'ren auzietan. Dendu edo ekilibrio jator batean biziartezteko bakoitz ori, irteera bakarra daukagu: federalismoa.

XIX'garren mendean, nazionalismoaren jaiotzaroen, gizon batek begi kolpe argia izan zun auzi orretan: Proudhom'ek. Nazioen ber-jabetasun dotriña nausitu zanean Europa'n, Proudhom berak, pozez uste izan zun aurrena, dinastien Europa, erritasunen Europa'k lekuratuko zuela. Bainan estadu-nazioen artean azaleko ekilibrioak besterik ez lirauke, gizon norberekoiaren artean lez. Bereala auteman zion jatorrizko idea baino politikakume geiago zala. Orregatik federalismoaren aldezlari sutsua egin zan. Estaduak aundiegiak zerizkion gizona ezin bait da osobetea billakatu neurrizko alkargoetan ez bada, au da, erritasunen maillan. Gizonen askatasuna eta zuzentza betetzeko, auziak urrenetik aztatu bear dira, beraien giroan ta eguneroko goraberatan. Onek ez du erriak alkarrengandik aienatuak ezarri bear diranik, adierazten; alkartasuna erritasunen kidegotzan eraikitzea baizik. Federalismoak, bada, erriak batasunean erdikide biurtzen ditu. Sistema onek araudi zailua du, ta bere oñarriak alkarren bear eta laguntzaz jasoak dira. Jakifia sistema ori ez da batasunkeriaren pake aizuna, lei-bizizko artu eman biotz zabaleko ta zintzoa baizik. Gaur ori beraren aldeko dira federazale jatorrenak. Europa'ko politika—mapa guztiz berritu bear da, federalismo benetakoa gaurko estaduen lokarritzea ez baitda, Europa'ren errijende-aberastasuna eskubidezko bizieran bideratzea baizik.

Jakifia, naikunde kementsua bear idea ori aragitzeko. Ta, egiz, oraĩndik idea enen jabe ta adiskide elite urri bat besterik ez da. "Elite" urri onen garrantziaz jabetzeko, ordea, beraien egiñasmoak merezimenduz neurtzeko, kontuegigun ameslarien gogoetak baiño, geiago dirala gizaratearen naikunde izkutuaren abots eta igarle.

Ideak damaio indarra kondairari aurrerapidean. Federalismo idea au ere or datza gizaratean, bainan korputzik gabe. Ideak, ordea, ez du izate biribillik izakietan aragitzen ez bada. Orra bada, europagintzan lenbiziko eginkizuna, konzientzia onen jabetzea.

Asieran esan degunez, agirian da, biologiak parte aundi duela gaurko europagintzan; bildurrak, alegia. Bainan naiz eta ederrago litzaken gogoz eta adimenez alkartasun-idea ori oldar eta bultza, europal-abertzaletasunik ez da oraĩndik iñoiz izan.

Alere Europa, ekonomiaren bearrez batipat, aurrera doa, ta ezin uka estrukturapeak, gaiñestrukturan zer ikusirik baduela.

Alemaniaiko sozialistak etziran Europa-alkartasunaren oso zale, politikan daukaten jokabideagatik. Alare, arrazoi oien gandik, Europa'ko merkatuaren alde itzuli dira, bide oni eskar Alemania'ko langilleak Prantziko'ak aiñako alderdiak eta irabaziak izango baitituzte. Zalantzik gabe, bada, beste ekiñaldiaz gaiñera, ekonomiak ere eragin dio alkartasunari ezarian bezala.

Gure erriari buruz, Europagintza dala ta, zenbait gauza esan dira. Alemanitar irakasle batek zion, Europaren magalean, semerik kuttunena gure Euskal-erriak izan bear zuela, zaarrenetakoa izaki. Zubi bezela izan bear gendula ere, Donostian entzunak gera, itzaldi baten. Ez dago gaizki, baina alere aurrekorik badago.

Ez naiz asiko gure egokeraren zergatiak azaltzen. Bakarrik, auxe Europa'ra begiraturik gure erria egokera larrian dakustala. Geienok degu gogoia, noski; europatarrak izateko, ta europatasunari dagokion gizaroan bizitzeko. Gaurkoz ez det uste itxaropen aundirik izan genezakenik. Ona emen zergaitik.

Gure ekonomia ez dago etorkizunari begira, momentuko etekifitara baizik. Aldartea, berriz, ain itxuragabea izaki, lantegi-nagusi anitzek urtearo baten urte askotako uzta lortu nai dute. Egun, denak balio du, ta tresnarik baztertuenak egifituan ezartzeko, ta esku ikasi gabeak laneratzeko, lantoki zabalketa ausarta ta izugarriak nunnai jeikitzen zaizkigu.

Gaur da eguna, geroak axolarik ez. Bestela balitz, ta ala bear, gure lantegiak ez zabaldu, baizik berritu bear lirake, tresnaz, makiñaz, metoduz. Ekonomiaren aurrerapidea langille eskuetan tresna obeago ta baliotsuagoak ipintzean dago, batipat. Gurean ezin esan esku ugaritzeari neurrizko tresna ugaritzeak lagundu dionik. Berriz diogu, irabazi joriak dituzute, gaur, baina atzerapide beltzean elduko zaigu geroko laistera. Ta norako egongo gera biar, gaur iñorako ez bageaude?

Europa'ren nortasuna, ekonomian baino, kulturaren geiago ezarri badegu, gure erriari buruz ere berdin diogu. Ta gizonaren askatasuna ta osotasuna baldin badira, Europa'ren ezaugarri bikañenak, badirudi gure erriak kondairan dirdaitse erakutsi duela gizakitasun ori. Gaur ez bezela, zoritxarrez. Gaur, gure erriak kultur-bizitza kementsua daukala derizkiozute? Ez al gera ari gure nortasuna erailtzen? Nere aburuz, erritasunik baldin badago gurean, gauza guztien gaindik alkaritasuna landu bear degu. Ez aburu berdifitako biurtzeko denok. Ori eziña ta erabat kaltegarria litzake. Bañan, sustrai nagusirik eta guztionik ez badu gure erri-animaren arbolak, ez degu erritasunik ere. "Intelligentsia" edo deritzan jende aukerakoan adimen landu ta naimen bizia ere naitanaiezko degu, noski, bai euskal-animaren mezulari izan dedin, ta baita ere, gizarteko arazoetan, zuzentza sakonaren ereintza eraldakorra egiteko.

Iñoiz federalismoa nausitzen bada Europa'n gure erriak zeregin berezia izango du, baina ez, gure poema jatorrenak dion bezela, "erritasuna galtzen badegu".

ANSOLA'TAR GURUTZ.

FABLIAUX IZENEKO IPUIÑAK

Euskal-literaturaren berri ez-ezik, erdel-izkuntzetako eleder agerikizunak aintzakotzat artu ta estudiatzea benetan ernegarri ta jakin-garri deritzat literaturazale geran euskaldunontzat. Au dela-ta, gure auzo-erriak literatur-alorrean egin duten lan bikaiña aditzera ematen saiatuko natzaizute tarteka-marteka, ez, ordea, erudiziñoko lan sakonik egiñaz, egarin eta laburzur baizik, zabalkunde utsezko gogoak eraginda. Estudia ditzagun, gaurko ontan, Erdi-Garai'ko Phrantzia'n ain sonatuak izan ziren "fableaux" edo "fabliaux" ipuiñak.

"Fabliau" itzak "solas txipi", "izketatxo", "berriketatxo" edo orrelako zerbait esan gura du. Zuberoa'ko "elezahar" itzaren antzeko zaigu, iñolaz ere.

Fabliaux delakoak zortzi silabako bertsoan idazten zituzten eta euren elburua jende xehearen eta erdi maillekoaren jolasgarri ta entretenigarri izatea zen. Ziri-bertso laburrak izan oi ziren eta edozein gai on zitzairen bere ezten zorrotza trebeki erabiltzeko.

Irripar eta algara egin-erazteko bide oro zitzairen zillegi. Egia, erakusgarriren bat izan oi zutela (Emile Faguet'ek ongi diñonez (1), "ayant généralement une intention morale, ce qui ne veut pas toujours dire moralisatrice") ta bizio batzuk gaitzesten direla, baiñan, gaitzespen ontatik lizunkeria beti yare ateratzen zen. Eta yare atera ez-ezik, likiskeririk gordiñetan gozapena eta atsegiña billatzen zuten. Maiz aski, "fabliaux" ipuiñetan ari diren notiñak, senar adarduna, emazte xalantaduna eta apaiz alper, tripazai eta emazalea izan oi dira. Ezta

(1) "Histoire de la Littérature Française", Chapitre V, 30^{gn}. ediziñoko 50 orr-ald.

ba arritzekoa, tankera ontako notifiak dantzari dabiltzan tokian, oitura ta erakusgarri onak jai izatea.

Aitortu dezagun, ordea, ipuin auetan lizunkeria atsegingarri erabiltzen ba'da ere, aldi artako bizikera eta oituren ispillu antzo zaizkigula, iñolaz ere. Ispillu gardenegia bearbada, txarkeriaren margoak gordinki biziturik ematen baidizkigute eta gizartearen griña makurrak eta bizigiroaren ustelkeria gaurko karikaturetan bezalatsu nabarmen-tzen baitzuten. Oarkizun au gogoan arturik, bildurrik gabe esan dezakegu, ipuin oen mamia, Phrantzia'ko erri xehe ta erdi maillekoa XII'gn. ta XIII'gn. mendean bizi zen moralik gabeko giroaren lekuko paregabe zaizkigula.

Aipa ditzagun Faguet'i jarraituz, "fabliaux" ipuiñetan erabili oi diren gaiak: 1.^o) Onbidezko kontagaiak, santu bizitzetatik aterata eskuarki. 2gn.) Eliz-gizon xeheari erasoz, sekula ez ordea, apezpiku ta prailleai. 3gn.) Zillegikerizko (2) ipuiñak. 4'gn.) Jolas eragingarriak. 5'gn.) Ipuin goitar eta unkiarriak. 6'gn.) Litaratur klasikutatik artuak (3).

Riquer'ek ongi diñonez (4), ipuin askotan kontakizuna moralaren arrastorik gabekoa da eta aragizko griñak eta maltzurkeria garaille ertetzen dira, bertutea eta zintzotasuna parregarririk lotsagarrienean utzirik, Adibidez: "Zalduna saskian" deritzanean, amagiarreba, bere erraiñaren senarrarekiko zintzotasunaz espatsu egonik, iseka ta maxiorik gordiñenak egiten zaizkio, emazte lizunbera xalantarekin liber-titzen den artean.

Fabliaux delakoetan, aragikeriari ez-ezik, maltzurkeriari ta adimenaren argitasunari egiten zaio barkakizun eta omen. Orrela, gizon apal eta indargabeak, adimenak opa dioten zorroztasunaz baliaturik, maxiatzen dira eta nolabait apentzen, Erdi-Aroak nausikerizko agintea opa oi zien jaun eta agintari ahaltsuaz.

Ba-dirudi, ipuin auek XII'gn. gizaldian Phrantzia'n sortu zen latifizezko eleji-komeditik zutela etorkia eta Champaigne'ko eta Picardia'ko eskualdetan edatu ziren geienbat, Phrantzia'ko lurrik xamurrenak eta ongarritsuena, iñolaz ere, piperkerizko eta zipokerizko esanak eta ipuiñak sustraitu ta azitzeko.

Ipuin auen egillerik geienak eztitugu ezagunak, baiñan, nolanan ere, etziren, gure bertsolarien antzo, jende jakiñeza ta eskolik gabea, kulturaz eta jakitez oso jantzitako gizonak baizik. Rutebeuf olerkari

(2) Libertinaje.

(3) Aipatu liburuan eta atalean.

(4) Historia de la Literatura Universal, 392 orr-ald., Barcelona, 1957.

liriku bikaiña dugu Marie-Joseph Chénier'en iritzian, zalantzik gabe onena (5).

Gure irakurleak igarri ahal dezaion ipuin auen estiloari, Lanson-Tuffrau'en liburu ederretik aldaturik emanen dugu, "jolas eragin-garrizko" sailletik aterarik "Baserritarra mediku" deritzanaren laburpena.

"*Baserritarra mediku.*" Baserritar batek makilka astintzen zun maiz aski bere emaztea. Egun batean, onek, Errege'ren gizonak topatu ditu: Errege-alabak arrain exur bat irentsi du eta bazterrik-bazter dabilta mediku bat idoro naian. Apentza gogoak eraginda, orra, baserritarraren emazteak esan bere senarra mediku paregabe delo, baiñan kaskagorra, ifiolaz ere. Bere trebetasuna ezto aitortu nai, makilka astintzen ezpa'zaio, beñepein. Ezin obekiago aditzera eman: berebiziko astiñaldi bat erantxi ondoren, baserritarrak amor eman du eta eskatzen zaion guztia egin. Errege-Jauregira eramanez eta bere zirkiñaldi ta kiñuak Errege-alabari par eragiten diote eta ustekabean botatzen du itto-erazten zun exurra.

Berealaxe eriak saldoka datozkio. Aietaz nolabait libratzeko, baserritar maltzurak su aundi bat egin-erazten du ta albiste au barreiatzen: eririk gal-etsiena aukeratu ta sutara botako dula. Gaiñerakoak sendatuta geldituko arekiko sendakaia edan orduko... Berealaxe, orok sendatu direla diñote eta aienatzen dira. Errege'k oparo saritzen du baserritar maltzurra eta baita agindu ere onek bere emaztea ez geiago jotzerik. Fabliau onen lenengo zatia oifarriztat arturik mamitu zun Molière'ek bere "*Médecin malgré lui*" antzertia.

Ona emen "fabliau" baten jarduna lizunkerizko zipriztin tantorik gabea eta gizon apalaren adimen zorroztasunari gorazarre bikain egiten diona.

ETXAITAR

(5) Ikusi Emile Faguet'en "Histoire de la Littérature Française", Chapitre VI'ko 60 gn. orr.-ald., 30'gn. ediziñoa.

(6) Lanson-Tuffrau, "Historia de la Literatura Francesa", Barcelona, 1956, 41'gn. orr.-ald.

IZKUNTZA BATEN ERIOTZAZ ETA BERPIZKUNDEAZ

Modari jarraitzaletatik ez bainaiz, ez dut hemen hebreueraren “mirarizko” berpizkundeaz itz egin nai, baina askoz umillago den izkuntza baten berpizkunde askoz ixillagoaz, esan nai dut Inglaterrako duke-erri inglesezt Cornwall eta latinez Cornubia deritzaioneko izkuntzarenaz, XVIII-garren mendearen azkenetan osoki galdu baitzan.

Izkuntza horren gora-beerak ulertzeko, gain-so bat eman bear zaio Britainia Aundiko historiari. J. K.'ren eriotza-urtearen inguru, ugarteko biztanle guztiek, Kornubiakoak (1) heietan kondatuz, keltiko izkelkiak zerabilzkiten, dirudianez. Keltak ez ziran noski Britainia Aundiko lendabiziko biztanleak izan: lenengoak ez ziran Kristoren aurreneko zortzi- edo zazpigarren mendean baizik etorri, Europako legorretik; horiek ordea ez ziran hantxe egon, baina auzoko ugartera, Irlandara, igaro ziran, geienak bereren. Handik iruzpalau mendetara beste Kelta batzuk etorri ziran, izkera piska bat bestelakoa zeukateanak —Galiako Keltena bezelatsukoa— ta horiek errian egon ziran bertako jendeen nausi bezela. Dembora aurrera zijoala, Kelta nausio bertako jendeekin naustu ziran, hauei beren bizimoldea, jaurespidea

(1) Erri horren izena euskeraz nola eman ez-jakin, latinezko forma gorde diot eta izkuntzari esateko “kornubiera”, hartatik eratorritako itz-berria, asmatu dut, Euskaltzaindiak edo euskaltzale-bazkunen batek erri-izenak euskeraratzeara baki bat artzen ez duen arterako. Kornubieraz, erriak “Kernow” du izena, ta izkuntzak berak “Kernewek”. Shakespeare'n lanegiñak itzultzen ari zaigun *LARRAKOETXEA*'tar *BEDITA*'k “Kornuol'go duke” deitzen dio *Lear Errege* antzerkiko notin bat den “Duke of Cornwall” delakoari, ingles izenak duen soinuaren araura gure izkuntzara aldatuz. (Ikus *EUZKO-GOGOIA*, 1958, núm. 3-4, 264-garren orrialdeen.)

bai eta izkuntza ere emanaz, populu bategin bat eratzerainokoan, Briton izenaz ezagutzen dena (2).

Kristoren osteko 43-garren urtean, berriz, Erromatarrek eldu ziran Britainia Aundira ta laureun bat urte han egotekoak ziran, Britonen buruzagi bezela. Esan gabe dijoa hauien keltiko izkuntzak itz andana bat artu zituela, arte luze hortan, latin landuagotik. 426-garren urtean ordea Erromatarrek joan bear izan zuten, Britonak bertanbera utzita Europako legorra zaintzeko alde orotatik kaisar-erriari oldartzen zitzaizkion Germanen gandik. Hain zuzen ere, Erromatarrek lekuak ustu eta German gizeli batzuk, Ipar-itsaso bazterreko Angletar ta Saxonak, asi ziran Britainia Aundian sartzen. Erromatar kaisar-erriaren gandik laguntzarik ezin lorturik ere, Britonek bioztoiki gogor egin zieten Germanei. Arthur Erregea ta honen "Mai Biribileko Zaldunak" denen gogoan daude noski: egiantz ororen araura, "errege" hori Kornubiako Kelta bat zen, erromatar gudaloztean aintzindari izandakoa. Ugarte sartaldeko gizonak luzaro eroan zituen Germanen kontra, zorioneko gudaldietan. Azkenengotz ordea Angletarrak eta Saxonak, baita geroxeago erantsi zitzaizkien Danetarrak, ugartearen parterik gutxi gienaz jabetu ziran, Iparralde (Kaledonia edo Eskozia) ta Sartalde (Gales-erri)'ko mendiak baizik aske ez utzirik. Mendiota ige egin zuten aal zutenek... Beste zenbait itsasoa igarota, egotera etorri ziran Armorika zeritzaion Galiako eskualdera, orduan etorri berrion gandik Britainia izena artu baitzuen. Bitartean Germanak eten gabe sortaldetik sartalderantz aurrera zetozen: horrela berendu zituzten Kornubiaren lenen auzo ziren Somerset eta Devon'go eskualdeak, ordu hartan Kornubia bezain keltiko zirenak, eta IX-garren mendean Egbert Wessex'eko erregea Kornubian bertan sartu zen bere gudariekin. Hala ere asieran Saxonek beren lege ta agintariak utzi zizkieten Kornubitarrei, baina Athelstan errege aundiak (925-940) Kornubiako azkenengo errege kelta, Howel, garaitu eta, erriaren gobernu osoa bere eskuetan artu zuen.

Harrezkero Kornubiako Keltak ez dira beinere nausi izan beren errian: hau Inglaterrako duke-erri bat biurtu zen ta hala egon da gaurko eguneraino —Britainia Aundiko beste bi erri keltikoak, Gales-erria ta Eskozia, legearen araura beintzat jaurerri bereziak direlarik oraindik ere. Baita Kornubitar askok beren askatasuna galdu zuten, Saxon buruzagien jopu biurturik. Beren izkuntza gorde zuten ordea.

(2) Ugarteko lendabiziko biztanleok zein izkuntza ta odolotako ziren jakitea, zail da. Hispaniako Iberotarren edo Euskaldunen askaziak zirela uste izan dute jakintsu batzuek, bereziki Britainia Aundikoek hala nola Sir John Rhys eta Sir John Morris-Jones bi Galestarrek, baina bai atzerriko zenbaitek ere, esaterako Julius Pokorny Zürich'eko Unibertsitatean irakasle zen aleman keltikolari ezagutuak. Orain artean beintzat, ustekizun horiek ez dira egiaztaturik izan.

Bretainia Aundiko kelteraren izkelki bat dena, Gales-erriko ta Britainiako izkuntzen aide urbilla. Bretoiari urbillago zaio galesari baino, Britainia Aundiaren ego-sartaldetik (Kornubia, Devon, Somerset) etorri baitziran Armorikara iges egin zuten Keltak (Britainiako provintzietatik bati Cornouaille eman zioten izena) eta zailtasunik gabe elkar ulertzen zuten Kornubitarrek eta Bretoiek, kornubiera mintzatu izan den azkenengo egunetaraino. Jakiña, Saxonen uztarpean zeudelarik, beren nausien izkuntzatik itz asko berenean sar erazi zituzten Kornubitarrek... 1066-garren urtean berriz, askotan Nemesis bezela agiri zaigun historiak hala nairik, nausiok beren txandan jopu billakatu ziran, Frantziatik etorritako Normandiarrek Saxonen eskuetatik Britainia Aundia konkistatu zutelarik. Bainan Kornubitarrek nausiz aldatu baizik ez zuten egin... Beren lenengo askatasuna, Saxonek kendu zietena, atzera lortu ez ba zuten ere Normandiarren gandik, beren izkuntzaren usantza gorde zuten beintzat, naiz kornubierak itzik aunitz jesan zituen ugarteko buruzagi berriak, inglesaren orde, izkera ofizialtzat ezarri zuten normandiar frantzesetik.

1400-1600 arteko garaian kornubierak bere "urrezko adiña" ezagutu zuen, literatura bat naiko eder ta edatua sortu baitzuen orduan. Uste izateko da Kornubitarrek, aske zirelarik, jatorrizko literatura bat zuketela beren Gales-erriko lengusuek bezela: gudu-kanta, epopeia, mythologiazko elezar e. a. —hain zuzen ere, ba dirudi Arthur Errege ta Mai Biribileko Zaldunen ipuiak heien errian jaio izan direla, bai eta Tristan ta Isolda bi maitaleen kondaira ospetsua, Europatar gizalandu guztien sentimenari hainbat erason bear ziona Bérout'etik asita Richard Wagner'eraino— bainan aintxiñako literatura hortatik aztarrenik ere ez zaigu eldu, parterik geiena aozkoa zan eta. XV ta XVI-garren mendeetako kornubitar literatura guztia, berriz, erleginozkoa dugu, obeki esan, elizazkoa: Testamentu Zaar ta Berriko kondairak oinarritzat dauzkaten neurtitzetan egindako drama leitur-giko batzuek dute eratzen "myrakyl" edo latinez "Ordinalia" zeritzaienak, haietatik *Origo mundi*, *Passio Domini Christi* ta *Resurrectio Domini Christi* ezagunenak baitirade. Drama edo antzerki hoik kampoan jokutzen zituzten, "gwaryva" (=joka-leku) izendun zelai batzuetan. Erri kristau orotan orduan jokutzen ziren eliz-antzerkien antz aundia dute ta atzerriko antzerti horren eragiñetik sortuak ditugu noski, Zuberoako "pastoralak" eta, Britainian, Vannes-erriko "mister" delakoak bezela.

Erdi-mendeotan kornubiera aski bizi ba zen dakusgunaz, literatura landu bat sortzerainokoa, hala ere orduan danik eriotzara eraman bear zuen gaitzak jorik agiri zaigu, batez ere "Arrosen Gudate"-en ondotik (1455-1485). Eriotza horren zio bat baino geiago ba da. Nausienetatik bat Amerika idorotzea izan zan: alabainan Kornubitar

gazteak ugari asi ziran joaiten, itsasgizon bezela, Inghaterrak Mundu Berrian konkistaturiko eskualdeetara ta handik itzultzen ziran beren errira Inghlesen bizimoldeak lilluraturik, Inghles biurturik gogoz eta mintzairaz —ezen 1362-garren urtean Edward III-garrenak berriz ere inghlesa ezarri zuen jaurreriko izkuntza ofizialtzat eta, jakiña, ordutik hona geroago ta begirune geiago irabazi bear zuen izkera honek gizarte-mailla guztietan, normandiar frantzesaren kaltetan, bainan bai tokiko izkelkien kaltetan ere. Kornubieraren beerapenaren beste zio bat Reforma izan zan... Protestantismuak laguntza ekarri izan ba dio izkuntza txiki bati baino geiagori, Liburu Santuak hartara biurtuz, ez zen hala gertatu Kornubian, zeren kornubitarrak ez zitzaizkion jarraitu Henry VIII-garrenari errege honek Inghaterrako Eliza “eraberritu” nai izan zuenean. Aitzitik, erromatar katoliko egon nai izan zuten ta 1549-garren urtean, gobernuak Inghaterrako Elizaren “Book of Common Prayer” delakoa onartzera beartu nai izan zituenen, iskilluak artu zituzten beren sifiesmena zaintzeko, Sir Humphrey Arundell buru zutela, erantzuten zitelarik eliz-eraberritzalteei —inghleseean ematen dut, dituen indarra ta kolorea gatik—: “We will not receyve the new Service because it is but lyke a Christmas game, but we wyll have our olde Service of Mattens, mass, evensong and procession, in Latten, as it was before. And we the Cornyshe men, whereof certain of us understande no Englyshe, utterly refuse thys newe Service” (3). Bainan jazarleak garaituak izan ziran, baita garrazki zigortuak ere: Arundell Londonen lepo egin zuten ta beste batzuk urkatu zituzten, hala nola John Payne, Saint-Ives itsas-uriko endore ezagutua, berak, erregearen ordezkariaren aginduz, eraiki bear izan zuen urkabetik... Aldakuntza gaitza jasan zuen Elizaren eraberritze hori zela kausa, ez bakarrik Kornubitarren sifiesmenak, bainan bai heien izkuntzak ere; alabainan inghlesezko elizkizunak onartu bear izan zituzten nai ta naiez, eta, garai hartako jendeak elizara asko ibiltzalle ziren aldetik, ez zion gutxi lagundu neurri horrek erdera zabaltzeari Kornubia guztian. Bestalde, Sir Humphrey Arundell bezelako aitorseme katolikoei —erriaren buruzagi izaerazkoak ordura artean izan zirenak eta izkuntza errikoian askotan mintzatzen zekitenak, Euskaldunen “aide-nausiak” bezela—, aginte guztia kendu zien gobernuak, amor eman ez zuten artean. Gogoa sendo ez zutenak makurtu ziran inghles erregearen agindura ta, Gales-erriko aitorsemeak bezela, Inghles egin ziran fedez, pentsaeraz, jaunzkeraz, bizimoldez eta mintzairaz. Bainan

(3) “Elizkizun berriak ez ditugu onartu nai Gabonetako jolas bat bezela baizik ez direlako, bainan gure elizkizun zaarrak, matutiñak, meza, bezpera ta eliz-bira, latiñez izan nai ditugu, leen ziren legez. Eta guk Kornubiako gizonok, gure artean zenbaitek inghlesik ez baitute ulertzen, elizkizun berri horiek osoro ukatzen ditugu.”

Gales-errian, zio askoren gatik —esaterako autonomia utzi ziolako erregeak bere agindu-pera ekarri ondoren ere— jende xeak beintzat jatorrizko izkuntza ta kultura gorde zituen, Kornubian berriz gizarte-mailla goietakoek emandako erakusbideari jarraitu zion osoki, ingles biurtu arteraino. Inglaterrako Elizak ez zuen bere agintea osorik eduki bear Kornubian: XVIII-garren mendearen erditsuan John eta Charles Wesley bi anaiek Elizaren bigarren eraberritze bezela sorturiko “methodismu” delako igikundeak —laster sekta berezi bat izatera elduko zenak— erro sakonak artu zituen erri hortan, Gales-errian egin zuen legez. Bainan Galestarren artean bertako izkuntzan predikatzen ba zuten methodistek, hala non heien esker loratze mi-ragarri bat ezagutu zuen orduan Galesak, Kornubian ingleseze egiten zuten (hemen bertako izkuntza dagoneko il agiñean zelako noski) eta horrengatik kornubierak deus ez zuen irabazi bigarren eraberritze hortatik ere.

Jadanik 1328-garren urtean John de Grandisson Exeter'eko apez-pikuak idazten zuen “in extremis Cornubie” bakarrik kornubieraz itz egiten zutela. Hala ere, 1549-garreneko jazarleen erantzupenetik agiri zaigunaz, orduko Kornubitarretatik zenbaitek ingles tutik ez zekiten ta XVII-garren mendetik ere ba ditugu lekukotasun batzuk izkuntza zaarra oraindik bizi samar zela, erriaren sartalde guenean bereren, darakuskigutenak; baita eliz-artzain zenbaitek ere predikuak hartan egiten zituzten. Bainan osoki mordoilloturik zegoen orduko kornubiera, ta arrotz itzez gonburu beterik; grafiak, erdi-mendeetako “myrakyl”-etan bategintxerik agiri zaigunak, ez du geiago den gutxien batasunik: oldeak ematen dion bezela darabil idazle bakoitzak. Hala ere, gizon eskolatu batzuk aurki ditezke oraindik izkuntza zaarraren zale agertu zirenak eta literaturarako erabili nai izan zutenak, hala nola Nicholas BOSON 1700-garren urtean *Nebbaz gerriau dro the Carnoack* idatzi zuena (=“Itz zenbait kornubieraren inguru”; erdi-mendeetako izkera “klasikoan” honela litzake: “Nebes geryow a-dro dhe Gernewek”); GWAVAS eta TONKIN, iztegi bat bildu zutenak... Edward LHUYD Gales-erriko jakintsuak, garai hartako keltikolari audiena izan zenak, kornubiera ere ikertu zuen beste bost mintzaira keltikoekin batean, ta orduko izkuntzaren erakusgarri zenbait sar erazi zituen bere *Archaeologia Britannica* famatuan (1707). Bainan kornubiera azkenetan genuen dagoneko, eta uste izateko da XIX-garren mendearen asierako ifior ez zela geiago korrientean hartan mintzatzen. Dolly edo Dorothy Pentraeth zeritzaion emakume bat izan omen da azkenengo mintzazallea; 1777-garren urtean il zan, eun ta bi urteetan (4).

(4) L. L. Bonaparte printze izkeltzalea, euskera ba zan haren kuttuna, kornubieraz ere zaletu zan ta ikusi dut, Penzance Kornubiako uriburuaren auzoan

Egia da izkuntza bat ez dela sekula iltzen aztarrenik utzi gabe: jatorrizko mintzaiaren itz askotxo gorde zituzten Kornubitarrek beren ingles izkelkian, batez ere zenbakiak, otoitz-zatiak... eta biranuk. Baina esan ditek 1800-tik mende baten bururaino ifiorik ez duela kornubieraz jakiara itz egin; erriak ifioiz inglesaz bestelako izkuntza bat erabili zuela aazturik zirudian. Hala ere, egiantz ororen kontra, berpizkunde bat ezagutu bear zuen zoritxarreko izkuntza horrek... XIX-garren mendearen erditsuan, asi ziran mintzai-jakitun ta arkhaiologu zenbait hartan egindako idazki zaarrak billatzen, ikertzen ta argitaratzen. 1850-garren urtean, Dr. Edwin NORRIS'ek *Origo Mundi, Passio Domini Christi ta Resurrexio Domini Christi* ager erazi zituen, ondikotz ez naiko arduraz, eta utsez orniturik. Handik urte batzuetara Dr. Whitley STOKES keltikolari ospetsuak beste iru "myrakyl" argitara eman zituen, ingles itzulpen ta aparatu kritikoarekin: *The Passion Poem*, berriz ere, eta *The Creation Play ta The Life of Saint Meryasek*, Gales-errian orduantxe idorotako antzerki luze bat. Bost drama edo antzerki horiek dira gaur egunean erdi-mendeetako kornubitar literaturatik ezagutzen dugun guztia; orotara joaz 18.000 neurtiz edeiten dituzte. Norris eta Stokes'ez beste jakintsu batzuek iztegiak publikatu zituzten: 1865-garren urtean Rev. Robert WILLIAMS Galestarrak *Lexicon Cornu-Britannicum* eta 1887-garrean Dr. F. W. P. JAGO'k *An English-Cornish Dictionary*.

Bainan arkhaiologu ta mintzai-jakitun horiek kornubierari so egiten zioten iker-gai bati bezela, ez ifiondik ere berpizt aal litekean izkuntza bizi izandako bati bezela, eta ameslaritzat edukiko zituzten noski Kornubiako jendea ostera izkuntza hortan mintzatuko zela esango zietenak. Kornubitar bat gertatu zan ordea, aski ameslari —ta aski bioztoi— izan zena bere erritarrak "kernewek" zaarraren berpizkunderi buruz abi erazteko: Henry JENNER (1847-1934). Goian aipatu ditudan izkuzlarien lanegifietan kornubiera ikasi zuen eta, 1903-garren urtean, mende bat baino geiagotan ifioen aotan erabili gaberik egon zen mintzairan itzaldi bat eman zuen Britainiako Lesneven'en, Kornubitarren lengusu diren Bretoien aurrean. Ondoko urtean *A Handbook of the Cornish Language* deritzaion ikasbide bat ager erazi zuen eta, bere karrari esker, lortu zuen Kornubia erri keltikotzat ezaguturik eta onarturik izan zedin jadanik Galestarrak eta Bretoiak elkartzen zituen "Celtic Congress" delako batzarrean.

Beste izkuntza-berpizle aundi bat R. MORTON-NANCE dugu, "Fe-

dagoen Saint-Paul izeneko erri txikian Dolly Pentraeth'i eraik erazi zion illarria, kornubierazko ikurritz batekin. Erriak Dolly horren oroitzapena gorde du elezarreko notin batena bezela; esan didatenaz, esketik bizi omen zan eta ukarrik eman nai ez ziotenean, gaitzespenak botatzen zituen ifiorik ulertzen ez zuen bere izkuntzan, siñeskorrak latz-ikara erazten zituztenak...

deration of Old Cornwall Societies" izeneko elkartasunaren buruzagi dena. ("Old Cornwall Societies" horiek dira arkhaiologia ta historiako lagunarte batzuk, Kornubiako uri gutxiz geienetan daudenak). Jenner'en esku-liburuan kornubiera ikasi zuen ta benetako mintzaijakituna den aldetik, lan garrantzikoak argitara eman ditu izkuntza ta folkloreak ganean *Old Cornwall*-delako foiderazinoaren aldizkarian: *A Glossary of Celtic words in Cornish Dialect, Taboo-Names in Cornwall, Folk-Lore recorded in the Cornish Language* e. a. 1938-garren urtean *A Cornish English Dictionary* atera zuen, kornubiera zaar (XIII-garren mendea baino aurreragokoa) ta berandu (XVI-garren mendea baino geroagokoa)'ren ondakin urriekin batean, kornubiera artekoaren itz guztiak, ots erdi-mendeetako "myrakyl" edo "Ordinalia" etan aurkitzen direnak, iztegi hortan bildurik, bai eta gaurko bizitzari dagozkion itz-berriak ere emanaz, itz-berriok geienetan bretoi edo gales izkuntzaren eredura antolatzen dituelarik. 1952-garren urtean *An English Cornish Dictionary* argitara erazi zuen, kornubieraz ez bakarrik irakurri baina idatzi ere gogo dutenen onerako. Alabainan, Jenner'ek erakutsi zuen bidetik ibilliz, izkuntza bizi bati bezela begiraten dio Morton-Nance'k kornubierari: mintzatzen ba daki ta bere etxekoei ere mintza erazi die, eta literaturako idazlanak ondu ditu hartan, hala nola *An Balorez* (= "belatxikia", Kornubiaren ikur-egaztia) deritzaion antzerki bat, 1932-garren urtean lenengotz jokaturik izan baita. Izkuntzaren ikasbide labur bat ere idatzi du, *Cornish for all* (1934).

Morton-Nance'n lankide arienetatik bat CARADAR izan zan (1883-1950). Bera Kornubitarra ez izan arren —Galestarra zan ta A. S. D. Smith zuen egiako izena—, izkuntza ezin obekiago ikasi zuen eta gazte batzuk bildu zituen bere baranoan, haren erakusbideari esker kornubieraz korrientean itz egiten asi zirenak. Bi ikas-liburu oso onak egin ditu: *Lessons in spoken Cornish* (1931) eta *Cornish simplified* (1939) eta Morton-Nance'ri asko lagundu zion, honek bere iztegiak atontzen ziardularik. Literaturaren alorrean ere lan egin zuen Caradar'ek: 1936-garren urtean Jondone Markos'en Ebanjelioa itzuli zuen (*An Awayl herwyth Synt Mark*) eta, beste itzulpen edo bere kabuzko idazlan askoren artean, kornubiera berpiztuan egiñik izan datekean libururik ederrena eman zigun *Trystan hag Ysolt* olerkariarekin, egillea il ondoan haren adiskideek argitara erazi baitzuten (1951); Joseph Bédier frantzitar medievistaren "Le Roman de Tristan et Iseult" oinarritzat arturik, bi maitale ospetsuen ipuina kondatzen digu erdi-mendeetako olerkarien gisara egindako neurtitzetan.

Kornubieraren beste berpizle asko —idazle, olerkari, ikasliburugille e. a.— aipatu bear nituke oraindik. Bat bakarrik izenda dezadan idazleen artean, Mrs. P. POLLARD, 1941-garren urtean *Bewmans*

Alysaryn izeneko antzerki bat argitara erazi zuena; erdi-mendeetako "myrakyl" en eredura idatzi du bere antzerkia, baita oso trebeki ere, baina forma zaarra ba da, gaia txit gaurkoa dugu, Jainkorik izan ere ba denik dudatzen duen *Alysaryn* delako bizitza kondatzen baitigu hartan egilleak —ez da txundigarri beraz liburu horri ez ba diote abegi onegirik egin Kornubia bezelako erri siñestun batean...

Azkenengo urteotan, erdi-mendeetako kornubitar textuak oro publikatzen asi dira, Morton-Nance'n gidaritzapean, grafia ta izkuntza bategin batean, ikasleen onurarako. Hain zuzen ere. erdi-mendeetako izkuntza hori dute erabiltzen Morton-Nance'n eskolako idazleek, esan nai baitu gaurko egunean kornubieraz idazten duten guztiek.

Kornubieraren berpizkundeaz itz egitean, ezin utz nezake aipatu gaberik *Gorseth Byrdh Kernow* edo Kornubiako Bardoen Batzarrea. Bardoak ziran, dakikezutenaz, Keltia zaarreko olerkari ofizial batzuk, erri-agintarien egiñenak goraiatzea baitzuten ofizioa; noizetik noizera erri-agintariak galesez "gorsedd" zeritzaien batzarreetan batzen zituzten. Oraingo garaian izen horixe eman diete, lenengotz Gales-errian (Gorsedd Beirdd Cymru), urrengotz Britainian (Gorsez Barzhed Breizh) eta azkenengotz, 1928-garren urtean, Kornubian antolaturiko bazkun batzuei, heien elburua baita delako errien izkuntza ta kulturen alde lan egitea —Irlandan Cumann na Gaeilge edo Liga gaelikoak eta geure errian Euskaltzaleen Biltzarrak bezela. Zorritzarrez, Liga ta Biltzar horiek bezela ere, geiegi aldiz folklorekerietan dembora galtzen dute Gorsedd'etako bardoek, egiatzko kulturaren aldeko lanak bertanbera utzirik... Dena dela, Kornubiako Bardoen Batzarreak on egingo luke bere hor izate utsaz ba litz ere, Kornubitarrei oroit erazten dielarik erri keltiko bat direla— bearra baitzuten. Bardoak bi eratakoak dira: erriaren alde lan egiñaz beren burua ezagut erazi duten antzelari, idazle, jakintsu ta abarrak, eta izkuntza ikasi dutenak; azkenengo horiek bear dute idazlan bat kornubieraz ondua aurkeztu batzarrean onartuak izateko ("Bards by examination" dira) ta egia esan jatorrizko Kornubitarren alboan, atzerritarrik asko aurki ditezke heien saillean: Bretoi, Galestar, Irlandar, baina bai Ingles, Amerikar... eta Euskaldunak ere (5). Morton-Nance jauna da garai hontan Kornubiako bardo-nausia.

Horrela izan da beraz kornubieraren berpizkundera. Aitortu bear da Kornubiako jende komuna oraindik ez dijoala inglesa uztera,

(5) Nerau onartu ninduten "bard by examination" bezela, orain direla urte batzuk, "An Menedhor" (= "menditarra") izenaz; "Goizian goizik jeiki nündüzün" zuberotar kantaren kornubierazko itzulpena ba zan hortarako aurkeztu nizkien idazlanen artean. Gainera, John Mish New York'en bizi den euskal-idazlea ere Kornubiako bardo duzute; "Car Tramor" dauka izen bardikotzat, esan nai baitu "Itsasoz bestaldeko adiskidea".

berpizleen alegin bioztoi guztiak gatik ere. Baina askotxok —eunka zenbait izango dira— arbasoen mintzaira eunurteko batez goiti entzun ez zena ikasi dute azken urte hauietan, eta ikasi gogo ez dutenek ere begi onez so egin oi diote berpizkunde horri; kornubierazko izenak ematen dizkiete jende aunitzek beren etxeei, dendari aunitzek beren salgaiei; Bardoen Batzarreak antolatzen dituen jai ta ikusgarriei abegi ona egiten diete. Noizik bein kornubierazko kantuak entzuten dira radioan, eta kornubierazko prediku ta kantikak elizetan. Izkuntza ikasi dutenek aldizkari bat (illerokoa) kornubiera utsean egiñia ba dute irakurtzeko 1934-garren urteaz geroz, leenik *Kernow*, *Caradar*'ek ateratzen zuena, ta orain *An Lef* (=“mintzoa”), goian ikertu dudana literatura guztiaz kampo. Literatura hori aldiz, naiz gauza apal samarra den Gales-errikoaren aldamenean bai ta Bretoi edo Euskaldunenaren aldamenean ere, naiko eder ta zabala da eta, mintzaijakintzarako daukan garrantziaz bestalde, atzerritarrentzat ere ba du erakarmen berezi bat: alabainan, “myrakyl” zaarretako izkuntza dute berpiztu, esan dudanez, eta horrengatik kornubiera berriak halako erdi-mendeetako usain bat dauka poesiarako oso ederki datorrena (6). Bearbada berpizkundeak urrats geiago egingo du aurrera urrengo urteotan, Britainia Aundiko gobernua autonomia zerbait ematen ba dio duke-erriari, Kornubitar erri-maite batzuek eskatzen dioten bezela (7).

JON MIRANDE

(6) Izkuntza horren dasta bat izan dezan irakurleak, hona “Aita Gurea” kornubiera berpiztuan: “Agan Tas-ny, us yn nef, Benygys re bo dha Hanow, re dheffo dha wlascor, Dha voth re bo gwres, y'n nor kepar hag y'n nef. Ro dhyn-ny hedhyu agan bara pup deth-oll; ha gaf dhyn agan camwyth, Kepar del aven-nyny dhe'n re-na us ow camwul er agan pyn-ny; Ha na wra agan gorra yn temptasyon. Mes delyrf ny dhyworth drok. (Rag dhyso-jy yu an wlascor, ha'n gallos, ha'n gordhyans). Amén.”

(7) Hori eskatzen dutenen artean, ezagutuena ta ariena Miss Helena Charles da. Bere ikus-puntuak erriari erakustea gatik, *New Cornwall* izeneko aldizkari bat, ingleseaz egiña, sortu zuen andre honek. Ez uste izan hala ere Kornubitar erri-maiteok Inglesen etsai ta Britainia Aundiaren gandik berez-zaleak direnik, Gales-erriaren edo Eskozian bat baino geiago diren bezela. Hain zuzen Kornubitar autonomiazaleek eskatzen dute duke-erriak ere euki dezan Gales-erriak eta Eskoziak gaurko egunean Britainia Aundiaren barruan daukaten estatua, ots, ez izatez, baina legez bakarrik jaurrerri berezi bat izan dadin, ingles koroaren pean.

JONDONE DENUXI

Seine ibaya Frantzian, bere itsasorako bidean sugea bezala plegatzen dan tokian isla bat beti izan da. Aintzinean eta zubiak guti zirenean, isla ortatik uraren pasatzea errex zan; beren batelekin jendea pasarazteko Paristar ur gizon edo Nautes-ak baziran. Orain Parise tamatua dagoan tokian lenago Lutetia izena zeukan erri koxkor bat zan, bere isla gainean eraikia, Lutetiatik itsasorago San Denuxi'ren zelaya deritzayon toki bat bada. Ixtori au asiko da erri orrek izen ori izan gabe eta bukatuko izen orrez bataiatua izango dan denboran, kondatuko dizkitzudala ango negar eta odolezko gertaerak.

Etxe txiki batzu baziran Lutetiatik bide on batean urondoan landatuak ziranak eta aietatik batean, German sabre iresle ta su edale bat bizi zan. Goiz artan, bere ille luze oria naastuta zeukan eta bi begiak ezin irikiz lan zuen. Areta begiak iriki bearra zuen, abarka tankerako zapaten lazoak belauneraino esegi nai bazituen. Emaztea ari zitzyon, salda bero ta bi arrautzen beroazten. Gizonak azkenean besoa luzatuz zerbeza pitxerra artu zuen eta main gainean ezarri. Main aurean gure Germana eseri zan eta emazteari begira egon. Arek bereala: "Zer ari zira? Zopa otzik dukezu laister".—"Zer ari naizen? Iri begira maitea".—"Ez nauzu ezagutzen noski".—"Bai baina geroago ta ederrago aurkitzen zaitut; denbora orietan dirua ederki biltzen baitut, pitxi zenbait erosiko dizkitzut".—"Jan ezazu oztu gabe!". Alan egin zuen eta agin zorrotzek, mingain bizia lagun, gosari oparoa iretsirik izan zan. German andiak jan bearra zuen, naiz lan guti egin, eder izateko ezurrak giarrez bear baitzituen estali. Jan ta andreari musu emanik atera zan. Etxetik ateratzen ikusi bazenu orduan arrituko zinan; ainbeste labana ta ezpata mota baziran ta. Erromanoen sastakai laburra, Germanen ezpata luzea eta abar sorbaldatik dilindan, txintxarri ots bat nazkagarria egiten zuten, baina gure gizona ez zan ifloren iltzera joaiten, bakarrik ezpata irestera. Emaztea leyotik begira zeukala joaiten ez zekien Germanak, baina senarra urrundu bezin laister, paretean arrain bat marrezkitu zuen eta zoko batean belaunikatu zan.

German alaya, jende askorekin, bidean joaiten zan. Inguruko neka-zariak beren zaldi ta txerriekin ferira etortzen ziran; beste kaletar ta baserritar asko ezer ere gabe, Erromanoen auzitegian garbituko zan auzia ikustera etortzen ziran. Germanak merkatu tokira eltzean, urrundik ikusi zuen, bere lagun lukainka saltzaleak toki bat eduki ziola. Tokia agirian zegoan eta guziek pasatu bear zuten aldexean. Ez zuen aspaldi, German jenderi bere lanaren arrixkuak agertzen ari zala, andere eder bat pasatzen zala; gizonaren aire ederraz lilluratuxea zala, urrezko txindi bat botatu zion arpegi erdira; eta ezpata aoan zintzuraino sartua zeukala, jende guzia asi zitzyon arpegira diru botatzen, Gero olio edan zuan eta sua pizten zuela garrak aotik jaurtitzen zituen. Laister eraman aala diru bazeukan eta etxerako bidea artu zuen. Lutetiatik alai ateratzen zan bere Seine ondoko etxe txuri taldeari bidez, an zan bakea, an zegoan bere etxea. Etxera baiko emazteari zuzendu zan. "Gaur arratsean ez nauzu lanerako, aski lan eginik badaukat". "Azken aldi orietan its atzemaiten zaitut, badu aspaldiegi elgarrekin" egurastu ez girela. Badakizu naski, giristinoen auzia dala jende" oste andia bilduko da. Guk ere ikusi bear ginikezu. Arauez beren sinistea ukatuko dute eta Zesar-i ta Erromanoen jainkoeri zin egingo. "Eroa izan bear da, jainko baten ez ukatzea gatik, biziaren arrixkatzeko" Nik Erromanoeneri zin eginda nago, baina biotzean nere German" errikoak ez ditut bein ere ukatu. Zer duzu maitea? Ez duzu erantzuten?" — "Buruan minxka dut, ez nauzu zurekin joango, baina zoazi" zu, gero kondatuko didazut".

Germanak begia belxka, ibai ertzera jo zuen; an ziren Giristinoen lepoak mozten eta Lutetia-tik erri xoko ortara jende asko etorria zan. Uda zan eta batzu ibayean oinen bustitzen edo bateletan paseatzen ari ziran. Gaur tokiko Pintorix'en ostatua bete bete zan. Arratseko iruretan auzitegiko bilkura deya entzun zan. Gizon txiki txar bat agertu zanean jende saldo guzia ixildu zan; giristinoeri ta ikusleri begiratuz aldika bortizki itz egiten asi zan:

— "Zin egizute Zesar-i eta gure jainkoeri, eta bizia salbu dukezute." German-ak itzak baiño gizona gorrotoago zuen. Lenen giristinoa agertu zan. Gizon zar ezti, lotsati bat zan. Erromano epailearen botz zakarra berriz asi zan latinez eta jenden artean maisea ots bat: "Uka zazu"; zioten. Zaarrak nigarrez zin egin zuen eta igesi joan. Bigarren giristinoa aberats bat zan oso ezagutua eta Erromanoekin beti bat izan ez zana. Bere aurren botzak asi ziran "Aita, Aita!" deika eta aberatsak ere zin egin zuen.

Azkenik agertu zana, ixil baina burua gora, egin zan. Zaar bizar txuri bat zan. Iñork galdetu gabe asi zan esaten: "Jainko bakarra eta bere semea dira nere nagusi, aietan daukat siniste, Zesar-i ez diot zinik egingo. Ordu laurden batez, jende osteak zion "Uka ezak". Zaarrak

“ez”. Azkenean jendeak: “Bego”. Lepo mozlea epaileari urbildu zitzaion ikara baina botz sendo ta gora batez esan: “Oben gabeko baten odolik, nik ez dezaket ixuri”. Eta iñork arrapatu gabe iesi joan aal izan zan, Orduan zer egin ez zakiala, Erromano epaileari oroitu zitzaion sabre iresleaz eta andi zan ezker bereala ikusi zuen. “Soldado, gizon andi ori ekarri onera”. oyu egin zuen, Germani eskuan moltsa anpatua, ezarri zion eta esan: “Motz ezak lepo ori”. German etxe eder baten eta bere emazte pitxi ederdun baten gogoeta zeukala, bere epailearen gorrotoak aztu zizkion. Ezpata bat arturik German-ek gizon zaar-ari lepoa moztu zion. Jendeak, naikoa ikusirik, etxerako bidea artu zuen, ber-ilkia illunbetan utzita.

German etxera sartzen zan, moltsa eskuan, baina gogoia illunik. Atea iriki zionean emazteak, German zurbil zurbilik zegoan; “Zer duzu?”, galdetu zion emazteak. “Denuxi giristino zaarra il dut”. Eta dirua lurrera bota. “Or dagozu aren odol saria!” Oean etzan zan, bere gorputz guzia izerdi pats batez artua zala. Bere emaztea belaunikotz zegoan berak ikusten ez zuen zoko batean. Jarraitu zuen erdi oyuz: “Zer gaixtakeria egin dudan. Ain zaar ta ain zintzo. Olako giristino! Zer egin zidaten neri giristinoek; nik baiño siniste ederragoa daukate”. Emaztea itzuli zitzaion oe ondora ta buruaren balakatzen asi “Ni ere giristinoa nuzu nere senar gaixoa”. “Oi maitea, etxetik kanpo jaurtiki nezazu. Gorroto nauzu engoitik!”

Norbait ate joka asi zan azkarki. German ate irikitsera joan eta belaunen gainean erori, emazteak oyuz ziola: “DENUXI”. Bera zan zutik bere buru moztu ederra esku artean, German-ek esan zion: “Ez sartu ni bezalako arima beltz baten etxean”. “Barkatzen dizut German eta zurean betiereko ostatua nai nuke”.

Gauean lurra zulatu zuten eta giristino guziak deituta, arrizko tonba batean eortzia izan zan. Geroztik sainduaren obia, giristino biltoki egin zan eta etxeak inguru eraiki. Geroan Paristarren lenen obispo izan zanaren obi gainean basilika bat eraikia izan zan zeinean Frantziko errege geyenak eortziak ziran eta oraindik errege obiak ikusi litezke frantsesek Saint Denis deritzayoten Jon Done Denuxiren irian.

D. PEILHEN.





Berandu-samar bederik, ez degu Nikolasa Pradera'ren eriotzaren berri eman gabe gelditu nai.

Donostiarra genuen Nikolasa, baña Madrid'en il zaigu. An bizi baitzan aspaldi ontan.

Euskalerrria'k mende ontan izan ditu makiñabat sukaldari on, baña gutxi, oso gutxi ere, Nikolasa'ren mallakoak.

Esan genezake oker aundirik gabe, ia Europa osoan ezaguna zala. Ez gaitu beraz batere arritu, bere eriotzaren berria Paris'ko ta baita Londres'ko egunkari batzuek barreatu dutela jakiteak.

La Cocina de Nicolasa liburu ezagunaren egillea ere bera zan. Bear bada, liburu onek ez du Euskalerrri'ko sukaldearen usai aundirik izango, baña, dana dala, bai emen bai kanpoan, sukalkintza-zaleak oraindikan ere txit begi onez ikusten dute. Ta, egungo egunean, bostgarren argitaldian dabil. *Marka* polita, iñolaz ere, jan-edan-gaiaz idatzitako liburu bat izateko.

Jaun Zerukoa'k Berekin beza emakume onbidetsu ta sukaldari artetsua.

* * *

Luis Antonio Vega bilbotar idazle ezagunak liburu berri bat argitaratu digu: *Guía Vinícola de España*.

Bere lengo *Guía Gastronómica de España*ren antzekoa da, bai azalez ta mamiz, bai tankeraz ta unorez.

Naparroa'ko ta Araba'ko ardoak goienetako mallan ipintzen ditu. Batez ere, Araba'ko Rioja'koak. Aitzitik, Luis Antonio Vega'k ez ditu ain gogoko Lapurdi ta Bearno-aldekoak.

Txakoliña ere ez du oso gogoko, naiz ta goramen batzuek Bizkaia'ko ta Gipuzkoa'ko ardo edo dalako oni zuzentzen badizka ere.

Bein batez —dio Luis Antonio Vega'k— napar idazle Ramón Resa zanak, bilbotar adiskide batekin bazkaltzen ari zala, esan omen zuan etzuala egundaño txakoliña dastatu.

—Arritzekoa da Iruñe'ko seme batek txakoliña ez ezagutzea —erantzun omen zion bilbotarrak.

—Alaxe da, ba.

Ta, txakoliñ-txarro bat eskatu ta bien artean edan ondoren, bilbotarrak galdegin omen zion Resa'ri:

—Ta, zer derizkiotzu?

—*Que es un buen vinagre de salón.*

* * *

Galizia-aldetik liburu atsegin ta dotore bat eldu zaigu: *Teatro Venatorio y Coquinario Gallego*.

Bere egilleak, Jose Maria Castroviejo, Alvaro Cunqueiro ta Emilio Alvarez Blazquez entzute aundiko idazleak dira. Ta badakarzki Ricart ospetsuaren apaingarri eder batzuek ere.

Barrunbez oso ernagarria da liburu au, ta idaztankeraz berriz asko landua. Baña *barroko*-samarra. Iru egilleak, lanegin ontan, Kastilla'ko klasikoen idaztankerara jotzen bait-dute. Ez ordea uste gabe, baizik gogoz...

Liburuaren idazpuru osoak onela dio:

“Teatro Venatorio y Coquinario Gallego, o sea, Arte de la Caza, contraída a las varias especies venatorias, así de pelo como de pluma, que se crían o avecindan en el antiguo Reino de Galicia. Por José María Castroviejo y Blanco-Cicerón, Guarda Mayor honorario de pesca fluvial y caza del Reino de Galicia y sierra de Ancares, Licenciado *in utroque*. Y Arte de Cocina, referida a las susodichas especies, según los usos habidos en el expresado Reino como más deleitables al buen gusto del paladar. Por Alvaro Cunquei-

ro y Mora Montenegro, graduado en *Ars cistoria* civil y canónica por la Universidad Mindoniense, individuo de varias Cocinas extranjeras. Lleva además un Epilogo Galeato por Emilio Alvarez Blázquez, Bachiller en Mirlología y Canto de Jardín, por la Academia Tudense. Obra enriquecida con once hermosas xilografías abiertas en boj expresamente para ella por E. C. Ricart, Maestro grabador catalán, primera medalla en la última Exposición Nacional de Bellas Artes."

* * *

Oraindik orain, Inazio Olague'k Paris'en 1957'garren urtean argitara eman zuan *Journal de bord de Juan de la Cosa* liburu ederra irakurri degu.

Jakiña, egunkari au ez da zearo egiazkoa, baña ez eta Inazio Olague'k edozein eraz asmatua ere, baizikan XVI'garren mendeko idazki batzuek oñarriztat arturik antolatua.

Dana dala, egunkari onen orrialde batean, Juan de la Cosa'k, edo zeatzago esateko, Inazio Olague'k, errenkada auk ezartzen ditu:

"Nous devons nous contenter d'un rôti. Point de sauces! Je tressaille malgré moi. Adieu le *pil-pil*, les sauces vertes qui enrobent si délicieusement la chair laiteuse des merlues et des turbots, la sauce noire des *chipirones*, ces petits calmars pêchés à la ligne et dont la blancheur contraste avec leur encre aussi belle que celle de Chine; adieu les gourmandises de mon pays que l'on savoure dans les bistros avec du vin de sable..."

* * *

Ona emen, Baiona'ko "Gazte" aldizkariak joan dan Abendu'ko zenbakian, eta "Jan-edanak" atalean, zekarren sukalde-*errezeta* bat.

"ARROCHKILA (*Galette Basque*).—Kilo bat irin. 200 gr. sukre. 100 gr. burra. 3 arroltze. Levura paketa bat. Zitroin bat.

Ezar irina untzi batean. Zitroinaren achala rapaturik eman.

Zilo bat egin, arroltzeak eta sukrea ezar; burrarekin nahas, pasta bat frango gogorra egin arte.

Orduan ezar mahain baten gainean eta heda. Berriz pasta bil eta heda, *pâte feuilletée* aren bezala. Bizkotcha untzi batean ezar: lehenik kucha bat gero *crème patisère* hortarik eta berriz pasta gainetik.

Ezar labe beroan."

* * *

Ardo geiegiak ekartzen dituan kalteak txit nabarmenak eta ezagunak dira, baña...

Ona zer gertatu dan oraintsu Alemania'ko uri batean.

Jakinduri aundiko aleman batzuek, ardo geiegiak ekartzen dituan ondoren txarrak baieztu nairik, goiz batez ogei olloei ardoa neurririk gabe edanerazi zieten. Asi ziran egaztiak bereala, txit alai ta lumak arroturik, ka-kara-ka, ta azkenean moskor-moskor eginda gelditu ziran.

Ta egun artan, ogei olloak —guziak eta bakoitzak— arraultz baten orde zuten bezala, bi ipiñi omen zituzten...

* * *

Iru bider egin bear du arraiak igari: uretan, oliotan eta ardotan.
Luis Antonio Vega'k *Guía Vinícola de España*'n aipatzen duan esae-
ra zarra.

A. A.



Naas-Maas

Frederik SCHILLER

Aurten betetzen da aleman idazlari handi huren sortzearen 200 urte muga. Gudu-sendakin baten semea, MARBACH hirian jaioa. Bera ere sendakintza ikasten asia; azkenik Literatura-ra jo zuen; eta 1794 urtetik, GOETHE-ren adiskide mamia azken eguneraiño. *Don Carlos, Lapurrak, Gilen Tell*, beste obren artean idatzi zituen.

Bere olerkien artean aipagarri da "*Udaberriari*" famatua, *Beethoven*-en IX-garren Sinphonia-ren zati ederrenari ezarria. Hemen ematen dugu beste aldean, bere bi olerkiren euskal itzulpena. Gizon zuzena izan zen *Schiller* eta goren maillako idazlaria.

* * *

Frederic MISTRAL

Provenza-ko *Maillane* ondoan jaioa, Mistral-ek idatzi zuen *Mireio* provenzal-ez, eta aurten dira 100 urte argitara atera zela. Nekazaria bera eta nekazarien semea, NOBEL saria eman zioten. Orixe gure idazlari ezagunak itzulikatu zuen *Mireio* euskerara.

"Jauregi zaarkitu baten gisara zagon mintzaira-kin Mistral-ek
"egin zuenaz oroiturik, *dio DAUDET-ek bere Lettres de mon moulin*
"liburuan, gogora etortzen zait gaztelu erraustu eta tellatu gabeko
"bat, bere eskillara eta leio autsiekin dagoena, armaarriak urdifiak
"janak, txerriak alan lorebaratzean, elizatzxoan asto bat, eta gaztelu-
"kalamastra arrastoen artean, nekazari familia beartsuak bizitzen.

"Baifian, egun batez, nekazari orietakoen seme bat maitemintzen
"da edertasun igatu orietaz eta asmo sukar batek jabeturik, oldar ba-
"tean aurtikitzen ditu katora abereak, eta asten zokoak txukuntzen,

"leioak, abeak eta dorreak ornitzen, errege-aretoa urreztatzen, jauregia osotoro apaindua utzirik."

Jauregi berritu hori, dio DAUDET-ek, Provenzakako izkuntza da eta Mistral, nekazari haren semea...

Noiz apainduko da eta birraltzatuko gure euskal jauregi eroria?

* * *

URQUIJO Mintegiko solasaldiak.—CHARRITTON jaunarena

Joan den abendu-ko 3 garrean, iondone Xabierreko egunarekin, eman zuen solas-aldi mamitsu eder bat, Baionako *Gaste* aldizkari xarmanta-ren zuzendaria den *Charriton* jaunak. Mintzatu zen euskal baserrien egoeraz, beren onak eta gaitzak kondatuz. Euskaldunen urritzeaz eta iges egiteaz, abere azkuntzaz, nekazaritzaz, beren xifra, kopuru eta gaiñerateko xehetasunekin, euskara argi eta lerden batean, denak xoraturik utziz. Noiz asiko gara emen naturaltasun horrekin mintzatzeko?, zioten entzuletarik askok.

* * *

Aurtengo ilbeltzan eman zen Juan de LANDA zinema-antzelari ospatsuaren itzaldia. Hollywood eta zinemako zeretaz mintzatu zen euskera errikoi eta arronta batean motrikuar artista ezaguna. Jendeketa andia bildu zen eta gogotik txalokatu, irri ederrik egin ondotik.

* * *

Antton VALVERDE-ren solasaldia.

Otsaillean mintzatu zen gure artista pintalari eta lankide ezaguna, *REGOYOS* eta *impresionismoa* gaia artuz.

Jendea andia bildu zen gaia ernagarri eta bakana-ren kariatara, eta etzen batere etsitu; ederki eta erreski segitu zitzaion bere itzaldi mamitsuan eta eskuzarta ederrik bildu zuen. Uste dugu solasaldi jakintsu hau argitaratuko duela Valverde jaun euskaldun berriak, gu guztien atsegiñerako.

* * *

A. OLABIDE-ren omenaldia Gasteizen

Martxoan eman dira Bitoria-ko teatro batean, ikusgarri batzu eta itzaldi bat, idazlari ospetsu hunen gorazarrez. Jendea poliki bildu da,

Olabiden Bibliaren itzulpena-ri buruz A. Goenagak egindako solasaldia aditzera.

A. Olabide euskaltzaina langille porrokatua izan zen eta euskara sakonetik ikasia. Naiz ez den osorik Olabiderena, atsandiko eta neke luzeeko lan jakingarria da, *Idasteuna* izenburuarekin argitaratu duten *Biblia* liburua.

Ondarruko antzelariek bota zuten "*Jaunaren bidetan*" izenarekin Agosti Zubicaraiek eginikako ikusgarri batzu. Biziki gustatu ziren Gasteizen, leenago Elgoibarren eta Bilbaon bezala; eta hemen bereziki aipatzea merezi dute, bai egilleak eta halaber jokalariek.

* * *

Beste Itzaldi bat Gasteizen

Bitorian bertan, Otsaillean, Caja de Ahorros-eko areto batean eman zuen ARRUE gure lankideak itzaldi eder bat, leeneko "*Palankari*" gaia berari buruz.

* * *

Gure aldizkariak

GAZTE izenarekin agertzen da Baionan aldizkari bixi bat, emengoek ere irakur dezaten merezi duena. Euskara erreza derabilla eta oso gai ikusgarri eta erneak; gure *x* eta *tx* letrak erabiltzen ditu hor Charritton buruzagiak beren *ch* eta *tch* ordez, eta ezagutza zor diogu hemendik, euskeraren batasunaren karietara erakusten duen borondate onarengatik. GAZTE artu nai luketenak, Diputazioeko URQUIJO Mintegian galde egin xehetasunak.

* * *

LUZAIDE-ko euskalzaleak.—Luzaidetik igorri digute 1959 urterako pareta-egutegi Almanaka pollit bat; illabetea imprimatu egutegi bakarra gure ustez. Lau orrietan daude 12 illabeteak, zein baiño zein Luzaideko auzotegi-en iduri pollitekin; bakotxa euskarazko lerro adigarri eta bertso labur batzuekin. Nere goresmenak gure lankide Satrustegi argiarendako.

Luzaiden bertan, garagarrillaren 7-an (junio) egin gogo dute euskal besta pollit bat, bere aur euskaldunei Diputazioearen sari bantatzea ospatzeko. Bere *yantza-yausi* ospetsuak ager araziko dute plazara, bersolari famatuak ariko dira, mendiz bi aldetakoak, eta oraiño beste teatro-ikusgarri edo *Karakotxak* edo halako.

BAZTAN-Arizkune.—Erri hortako apezek agertzen duten *EL-KARTASUNA* deitu orria ere artu dugu. Bereziki aipagarri dira hemen, erriko euskaraz ekartzen duten bi sailak, berso politetan eta itz lazoetan.

Uste dugu aise geiago edatuko zela orri pollit hori, kampoko baztandarren (ez soilki arizkudarren) euskal karta zenbeit ere agertzen balute.

* * *

Beste berriak

Nafarroako Principe de Viana-koek antolatzen dute beste euskal jai bat *Etxaleku-n*, aurren sari banaketa dela bide, mayatzaren 17 eguneko atsaldean, bersolariak eta guzti. Lekumberritik pixka bat Iruñalderaago dago herrixka hori.

* * *

Donibane GARAZI-n.—Bazko zaar egunarekin ospatu da iri hortan euskal dantzen txapelgo bat, sari askorekin. Talde aunitz bildu ziran, eta pollitenak dudarik gabe *MUTXIKOAK* deituak; bainan gure ustez aunitzez lasterregi emanak geienak. Gure dantzak, eta halaber gure kantak, mantsoago eta lerdnago. xuberotarrek dakiten bezala. *MUTXIKO-en* artean soñu asko dira, baiñan 2 edo 3 biziki lerdn eta airos. Eta uste dugu plazan agertzeko (ez erakusgarri bezala) egokienak dirala, mutil eta neskatillak bikoka aritzeko. Dantza gutarra, *ariñ-ariñ* baiño askoz euskaldunagoa, plaza guzitara edatu bear litakena.

* * *

Hil berria.—Tolosan hil da bet-betan, Pantxo *Labayen* jauna, gure mendi eta baserrien ezagutzaillea, eta gure adiskide leiala. Euskal-herriak galdu duen seme on horren familiari gure dolumin bizienak eta bereziki gure lankide eta bere anaia den Antton *Labayen* jaunari.

* * *

Euskaltzaindiko biltzarrea Bilbaon

Ilbeltzan bildu arazi zuen Euskaltzaindiak batzarre bat Aldundegiko areto batean, idazteko tankeraz eta moldeaz elekatzeko. Gai

irristakorra hori gure artean izanik ere, uste dugu zenbait argibide agertuko direla euskal agerkarien batean.

* * *

Bidasoko ipuin eta kontuak

Irungo *El Bidasoa* astekarian gure lankide *Berriochoa* anaia argitaratzen asi da Bidasoa bazterretan berak bildu kontuak; sorgin eta bestelako ipuñiak. Sail atsegiña eta lan bearrezkoa hori, *Barandiaran* jaunaren lan goretsiari jarraikiz, ez bakarrik ederra, atso zaar eta *aur mikitzu* batzuetarako, literatur-zale eta jakintsu direnentzat ere ahatik; beste izkuntzetan ederretsia den bezala.

* * *

DUVOISIN aiñoarra

Aurten betetzen dira ehun urte, DUVOISIN kapitainak itzulikatu zuela BIBLIA osoa euskaraz, argitaratuz Londres-en Bonaparte printzearen ardura pean. Liburu ederra benetan, euskara errikoi eta bide batez aberats batean idatzia; aldez, oharpen eta nota gabe agertu zena, eta aldez, aspaldi agortua edizioa, Bonapartek egin arazi zuelakotz izkuntza-lariendako soilik.

1859 urteko liburuaren lehen azalean hala dio; BIBLE / edo / Testament zahar eta berria / DUVOISIN KAPITAINAK / Latinezko bulgatatik lehembiziko aldiko / Laphurdiko eskarara itzulia / Luis-Luziano Bonaparte printzeak / argitara emana / [hemen emperadore-etxearen zigilua] / Londresen / 1859.

* * *

Iurgi F. Haendel

Musikalari handi unen iltze-muga aurten ere. *Halle*-Alemania-koan sortua 1785-ean; txirribita jotzaile bezala 18 urteetan, leenbiziko opera idatzi zuen 19 urteetan; eta laster Londresera, han bizitzeko 50 urte. Bere Oratorio "*Saul*" oraintxe imprimatu du ildo-xeean ezin obeki, New York-eko URANIA etxeak. Idatzi zuen ere "*Mesias*" izen andikoa, bere "*Largo*" xoragarriekin. Hil zen 1859 urtean.

* * *

Pintura Erakusketa Donostiako Erriko-etxean

Giputz pintalarien Erakusketa ederra azaltzen da Casino-peko aretoetan. Beren artean Ricardo BAROJA erdi beratarra-ren lauko misterioitsu eta ernagarriak, gero eta geiago onetsiak. Baita bere emazte zena-ren lauko batzu, J. Arozena eta A. Valverde gure lankiderenak, eta iru gure pintalari maisu A. Martiarena-enak, besteen artean. Baiña geien geienak, erdi itsu zagon Barojarenak. Pintalaria ez ezik, burdin moldatzaille-grabalari, eskulturgille, idazlari eta oroz gaiñetik artista mintzalari oi ez bezalako izan zen, XVI garren mendetik iges etorritako izpiritu bat iduri hau.

* * *

Ipuin sariketa

Miarritzeko "Euskal kulturaren alde" zaikon elkargoak eraturik eta gizaseme eskuzabal bateri esker, aditzera ematen da idazlariei, ipuinsariketa hau, baldinkizun oken pean.

LENENGOA.—Sariketa ontan sar ditezke, gaurtik asi ta aurtengo "Euskeraren Eguna" rarte, Abenduaren 3'garren arte alegia, edozein eguneroko edo aldizkarian azalduko diran ipuiak. Beraz ezin sar ditek sariketa ontan, aurrez argitara ez dan ipuirik.

BIGARRENA.—Etzaye ipui auei, luzeran mugarik jartzen, baiña ipuien egille edo biltzailleai adierazi nai diegu umeentzat egoki izatea jaramon berezia egingo zayela. Beraz, zarrak edo berriak, norberak asmatuak edo beste izkeraetatik itzuliak izan, guziak onartuak izango dira.

IRUGARRENA.—Iru sari bereziz sarituko dira artuko ditugun ipuiak: Lenengoa, 25.000 (ogetabost milla) liberakoa; bigarrena, 15.000 (amabost milla)koa; eta irugarrena, 10.000 (amar milla)koa. Gaiñera, bere esku izango dira epailleak nai ditzaten milla liberako beste sariak ere emateko.

LAUGARRENA.—Ipui guziak, izparringi edo aldizkarietan izenorde edo pseudonimo batekin azaldu bear izango dira; eta argitara emanda gero, ipui auek "Euskal-Kulturaren Alde" bazkunera bialiko dira, zuzenbide ontara: 14, rue Lalanne-Biarritz B. P. Azal batean sartuta, eta bertan nun argitara emanak diran adieraziaz; azal orren barnean, beste bat itxia igorriko da, egille, itzultzaille edo biltzaillearen benetako izen eta zuzenbideaz.

BOSKARRENA. — “Euskal-Kulturaren Alde”ko buruzagiak epaile izango dira, ta beren erabateko epaiak onartzekoak izango dira, alabearrez.

SEIGARRENA.—“Euskal-Kulturaren Alde” elkargoa izango da, sariketa ontan sarituko ta aren liburuan argitaratuko diran ipui guztien yabe.

* * *

Auzokoen umorea

CHURCHILL-eri eskatu zion bein batek, aitorenseme-titulo bat, eta ingles politikoak erantzun. Ez, ezin datzut eman, baina oberik ba dut zuretako.—Zer? Nere baimenakin esaten aal diezu zure ezagunei eskeini datzutela titulo bat, baiño zuk ez duzula onartu.

* * *

Weyler generala, gudulari ospatsua izan zen, baina zikoitza zelako fama ere ba zuen; bere seme batek galdegin zion bein.—Aita, loiteko pyjama bat erosi bearra nago.—Lo egiteko pyjama? Hortarako ez da logalea besterik bear, gizona.

* * *

Bernard SHAW idazlari ezagunak esaten zuen bein; bi zorigaitz badira gure bizitzan; gure naikariak gertatzen ez ikustea, bata; eta bestea, eginak ikustea.

APAT ETXEBARNE



EMAKUMEAK

Badegu emakumeok jazkera-moda berria. Egia esan, ez ain berria ere. Gutxi-gora-beera, antziñako klasikoa bait-da.

Moda berri onen xectasun nagusienak auetxek dira: bizkar borobillak, gerria bere tokian, gona malguak...

Beraz, bakuntasuna ta *naturalitatea* dira udaberri ontako modaren oñarriak.

Joan ziran beraz betiko, edo beintzat aldi luze baterako, *trapezio*, *zaku*, *ligne vent debout* eta beste orrelako oraingo *xelebrekeri* oriek.

Eztago esan bearrikan noski, moda au Paris'ko modista-etxeak jaurtigi dutela. Batez ere, Cristian Dior, Jean Patou ta Nina Ricci-etxeak, diotenez.

Gaiñontzean, ta koloreei buruz, kalerako jantzietan beñepein, urdiña erabilliko omen da bereziki. Baña ez edozeiñ urdin, baizikan, eta ain zuzen, itxas-urdiña. Ta, gañera, kolore zuriez zerbait nastuta.

Kolore urdiñ ori —diote— itsasotikan irten eta, baga baten gisara, erri guzietako kaletan zabalduko omen da...

Gauza auek geienak Ives Saint Laurent'ek sortuak izan bear dute. Saint Laurent au Cristian Dior zanaren etxeko *modelista* gazte bat da, ta oso itxurazko gizasemea ezpada ere —errettratoetan apaiz-gai ernegatu bat dirudi—, badu iñolaz ere mutillak buruan, illea baño zerbait geiago. Orain illabete batzuek, Frantzia'ko *héros national*, deitzen zion *New York Times*'ek...

* * *

Oraindik ere egunkari ta aldizkari batzuetako orrialdetan idazten da aldiz-aldiz Greta Garbo'z.

Aldizkari orietako batek zion lengo illean, Greta'k, orain ogeita bost-bat urte, esan zuala: "Ni ez naiz beifiere ezkonduko. Nik ezten senar bat baizik; nere lana."

Ta esan ta egin, noski.

Beste zertxobait ere ernagarri-samarra irakurri genuen aldizkari ortan bertan Greta Garbo'z. Alegia, orain urte batzuek, bere Erri'ko Gobernua'k —Suezia'koak— korreo-sillu berezi bat atera zuala, zinemako ain izen aundiko arte-lari izan zanaren irudiarekin.

Erregin bat edo beste izan ezik, emakume gutxik iritxi izan oi dute orrelako berexgorik.

* * *

Oraintsu Paris'en billera batean Jean Cocteau'k mikrofonotik itz auek esan zituan: "Maria Callas ta Brigitte Bardot dira gure denbora auetako egiazko bidutzi sakratuak (*monstres sacrès*)."

* * *

Bi gizaseme ezkonduakoak, Anton eta Peru, ongi bazkaldu ondoren —bazkaldu ezezik, edan ere bai—, eztabaidan ari dira emakume-kontuz.

Anton'entzat ezta munduan Marilyn Monroe baño emakume ederragorik. Peru'k berriz ezta Amerika'ko *vamp* ospetsua ain gogoko.

Peru'k azkenean dio:

—Bere biribiltasun nabarmenak kenduko balitzaizkake, ze emango luke Marilyn Monroe'k?

—Nere emaztea —erantzuten du itunki ta burua makurtuaz Anton'ek.

* * *

Oraintsu eskuetara eldu zaigun Paris'ko emakume-aldizkari "Marie France"-ren zenbaki zar-samar batean, argitaratzen da Euskalerrria'n gertatzen dan Joseph Peyre'ren novelatxo bat. Obeto esateko, Gipuzkoa'n gertatzen dana: Ketari'n eta Pasai-San Juan'en. *Itxasotik irtendako senar-gai bat* da bere idazpurua, ta senar-emazte-gaiak Joshe Maria —*champion de ancienne régates*— ta Marixu dituzte izenak.

Irakurgaiian Donostia, Mutriku, Bermeo, Lekeitio ta beste emengo erri batzuek ere aitutzen dira. Baita, Marixu'z landara, beste euskal-izeneko emakume bat edo beste: Mayalen, esate baterako.

Literatura bezala ezta geiegi balio. Ez eta Euskalerrri'ko oiturei buruz ere, baño, alaere, lan polita da, ta atsegin-pozez irakurri degu.

* * *

“Gauza ondo jakia da, gizonaekuei iratsi eutseela Jaungoikoak errespeto ta itzal modu bat eureen nagusitasuna agertuten dabena, bafia mutill dantzari ta kortejo zaleetan bere ez dot aurkituten errespeto, ez biar leukeen itzalik. Igaroten nintzala bein fiestia ebillen Plaza batetik, ikusi nituban mutill bi joiazala neskatillak egozan lekura; urreraturik kendu zitubeen eureen txapelak, egin kortesija ta buru makurtutiak; gelditu nintzan puska bat zer ikusiko ete neban, ta orra nun jagiten dan umiak baño larroseta geijago eukan emakume bat; eruan ebeen dantzan ebillenagana, ta zan bere auzoko mutill bat; egin eutsazan onek salto, gora beera ta ongi etorri andijak, iños ikusi bagako prinzesa bat balitz legez; plaza guztija barrez ta txaloka eurei begira; emakumia gaztaña zaarra baño arruago. Aseraturik ikusita ainbeste erotasun mutilletan, alde egin neban andik, esaten nebala neure artian: ze errespeto ta itzal gura dabee euki mutill, imenzione, jesto ta zorakerijarik andijeenak egiten ditubeenak Plaza agirijetan emakume argal batsubeen oifetan? Nun da zentzua ta juizijua? Nun da gizonaren nagusitasuna ta itzala?”. — *Juan José Mogel. Baseerritaar nekezaleentzako eskolia. 1816.*

* * *

Gauza aundi guzien asieran emakume bat arkitzen da beti.—
Lamartine.

MAITE.



ADABAKIAK

Lisola.—Jose Maria Iparragirre, *Gernikako Arbola* eresi illezko-rraren egillea, etzan Gabiria'n il, Jose Maria Salaberria'k eta, berari jarraiturik, beste idazle batzuek ere adierazten diguten bezala, baizik Itxaso'n, Zozabarro-txiki izeneko baserrian.

Itxaso'n il zala, ta ez Gabiria'n, argi ta garbi egiztaten digute Iparragirre beraren eriotz-agiriaren asierako errenkadak.

Ona emen, itzez itz, errenkada oriek diotena: “Como cura propio de la parroquia de San Martín de la villa de Villarreal, provincia de Guipúzcoa, mandé dar sepultura eclesiástica en el día de la fecha al cadáver de don José María Iparragirre, natural de esta villa, *residente accidentalmente en el Concejo de Ichaso*, de profesión músico y poeta...”

* * *

Otsalar.—Etzitzaizula G. Aresti'ren itzulpena gogoko izan? Bar-katu, baña zurea ere baliteke bateon bati ez gogoko izatea. *Gustoei* buruz ezer ez bait-dago idatzita...

Dana dala, eskatzen diguzun bezala, emen dijoa zure itzulpena. Ta agindu, *Otsalar*.

“VIII'GARREN MENDITARRA (*Serranilla VIII*)

López de Mendoza (Marqués de Santillana)

Vytoria'tik atera nintzan
aste ontako egun batean,
Alegria'tik igarotzean,
neskatxa lepuzkoarra ikusi nuan.

I

Gaona ta Salvatierra bitartean
 aran arbolatsu orretan
 mendiak apartatzen diran ortan,
 abere zain ikusi nuan,
 egun sentia bezelakoa
 gona gorrizka batean,
 nornai gizonek naiko lukean eran,
 ...arrebatzat ez dut esan.

II

Moncayo'koak goretsi nituan
 eta bere keñada ta koloreeri,
 ez natzaie atzeratzen,
 ezta Bores'ko neskatxari;
 bañan arpegi ori
 bere menditar ta guzi,
 elitzake arkituko ordea,
 Yllana ere etzan ain edergarri.

III

Bedmar'eko neskatillatzaz,
 itz egitera naia,
 arrazoiz nintzan goraltzen
 bere gorputz itxura ona;
 bañan ez nuke ukatuko,
 egia, etzala ain lirañik,
 nire emaztea kenduta,
 andere ta menditarrik."

* * *

J. M. E.—Gallego-iztegitxo ori, Jose Luis Pensado Tome'k 1958'garren urtean *Homaxe a Ramón Otero Pedrayo* liburuan osorik argitaratu zuan.

Lengo mendekoa da noski, Pensado Tome'k dionez, baña 1833'garren urtea baño lenagokoa.

Ez du ezer asko balio, baña Euskalerra'ri dagozkan xeetasun batzuek badakarzki. Ona bi edo iru:

"*Sella*.—Cubo en figura de cono truncado para conducir agua,

con dos hierros de abrazaderas. Es el mismo que en Navarra y Provincias Vascongadas llaman: Herrada.”

“*Tella*.—Teja.”

“*Vaynas*.—Judías verdes. En las Provincias Vascongadas se llaman lo mismo. Es palabra castellana, aunque no está en uso.”

Baña oraindik are ernagarriagoak eta *xelebreagoak* dira Iztegi-
txoaren itzaurreko asieran ezartzen diran auek:

“Cuatro lenguas o idiomas distingo en España e Islas adyacentes: el limosino, que se habla en la Corona de Aragón, el Vascuence en Navarra e Yslas (?) Vascongadas, el Lusitano desde Santander hasta el Cabo de San Vicente y el Castellano en todo el resto de la Península.”

“Cada idioma tiene sus dialectos particulares procedentes de aquella lengua matriz. El Vascuence sólo se habla en Guipúzcoa, el Vizcaíno en Vizcaya y en Navarra el Labortano. En Alava no se habla determinadamente ninguno de los tres dialectos, pues hallándose límite de cuatro provincias participa de todas y del castellano más que ninguna. El Vizcaíno es un Vascuence tan corrupto y castellанизado que he visto no entenderse una mujer de San Sebastián con otra de Lequeitio. Hay tanta diferencia, que aunque no se entienda la lengua, al momento se distingue un Azpeitiano de un Durangués y de un Roncalés.”

* * *

Musika-zale.—Ain zuzen ere, aurten betetzen dira berrogeita hamar urte Isaak Albeniz musikarari ospetsua il zala.

Albeniz onek zer-ikusirik etzuan Pedro ta Mateo Albeniz'ekin, eta deituraz ezezik, odolez ere euskalduna edo erdi-euskalduna zan, Cataluña'n, edo zeatzago esateko, Gerona'ko Camprodón deritzan errian jaió bazan ere.

Bere lan-egin garaiana. *Suite Iberia* da noski, baña *San Antonio de la Florida* ta *Pepita Jiménez*, *Catalonia* ta *Navarra* ere txit ezagunak dira.

Gaztetan berari Madrid'en pianoa erakutsi zioten maisuen artean, Manuel Mandizabal tolosarra arkitzen zan, Adolfo Salazar'ek dionez beñepein.

* * *

Aiztondo.—Lapurdi'n *boina*'ri euskaldun geienak *boneta* deitzen diote. Beste batzuek berriz *xapela*. Baita noski, gure ango adiskide min batek dionez, adar-estalkia ere...

Euskal-ortografiaren batasun alde

Baiona'ko "GAZTE" illeroko albistariak bere azkeneko zenbakian (Otsailla, 1959) Euskaltzaindia'ren ortografia osoki ontzat artu duela pozarren ikusi dugu. Euskaldun gazteriaren illeroko polit onek, Bidaso'z besteko aldizkari ta argitarapen guziak bezalaxe, *x* letra falta zizun Euskaltzaindia'ren esanetara etortzeko, eta "GAZTE"'k, ororen gaiñetik euskal-ortografiaren batasunari begiratuz eta Euskaltzaindia'ren eskabideari apalkiro erantzunaz, orainarteko *ch*'ren ordez, Bidaso'z emengoek darabilgun *x* onartu du. Gure zorionik biotzekoenak, beraz, "GAZTE"'ri, euskeraren onari begiratuz soil-soilki urrats eder au eman duelako.

"GAZTE"'k eman digun apaltasunezko eta mendetasunezko ikasbide zoragarri oni gaiñerako euskal-idazle guziak jarraitzea litzake gure pozgarririk aundiena. Borondate oneko euskal-idazle, aldizkari ta argitaldari guziaz eskatzen diegu, beraz, jarraitu dizajotela "GAZTE"'ren erakuspide eder orri, bakoitzak beren aldetik zerbaiten amor emanaz euskal-ortografiaren batasun alde. Ontarako, bearrekoa litzake, ene ustez, puntu nagusi auek (xehetasunetan ez gaitezen murgildu oraingoz) euskal-idazle guziak on-artzea:

1.º Bidaso'z onuzko euskal-idazleak *rr*, *ll*, ta *tt* erabili *rr*, *ll* ta *tt*'ren ordez.

2'gn. "Herria" *k* eta Bidaso'z besteko albistari ta argitarapenak oro *x* erabili *ch*'ren ordez.


3'gn. Ba-dago oraindik ere makiñabat euskal-idazle, Bizkai aldean batez ere, seta utsez edo ez jakiñez "eusk" itz-sustraia "euzk" idazten dutenak. Alaxe: "euzko", "euzkera", "euzkaldun" ta abar, "eusko", "euskera" eta "euskaldun" idatzi bearrean. *S* ta *Z* letrak ongi bereizten ditugun euskaldunontzat (ba-dakigu Bizkaia'n berex ten ez dutena, *s*'rik ezpaidakite oguzten eskualde ontan), ezpaita gaizki erabilitako *s* ta *z* baiño mingarriagorik. Egiatzko euskaldunak beti ta beti orrela ogutzi ta idatzi izan du: euskera, sorgin, askatu, gazte, zazpi ta abar. Sekula ez, ordea, euzkera, zorgin, azkatu, gaste, sapsi...

Gure egunetako aldakuntza biurri auek alderdikeri ta seta gaizto baten ume ziztriñak dira ta egiazko euskaldun-animaren iltzalleak. Beraz, bide oker auetan saiesturik dabiltzan euskal-idazleai, zentzatu ditezela eskatzen diegu, ta ankaz gora idatzi azi dituzten euskal-itz ederrok betiko tradiziñoari jarraituz idatzi ditzatela.

Euskal-ortografiaren batasun alde egindako oi u nirea da soilki ta emen esandakoen erantzukizuna neronek bakarrik daukat. Alabaiña, euskal-idazle guziaz jakin-erazi nai nieke, Euskaltzaindia'k xede auek begi onez ikusten ditula ta lenengo proposiziñoan libertatea ematen ba'du ere bi modutan erabiltzeko, bigarrenean eta irugarrenean ERABAKIA aspaldi arturik daukala (guda aurretik gero!) lerro auetan esan bezala erabiltzeko. Munduko errialde ta izkuntza guzietan idazleak beren Akademia'ren esanetara makurtu oi dira. Ondikotz! mundu guzian Euskalerrria'n ezik! Euskalerrria'n euskaldun bakoitza akademiku ta maixu da ta ez du iñoren leziorik ametitzen.

Euskaldun maiteak: ez ote dugu arrokeriaren pipia edo sitsa biotz barruan sartuta? Gure iritzitan uste aundikoak gerala beñepein ezin uka.

YON ETXAIDE



ZINEMA

Film-pilla koxkor bat agertu zaigu aurtengo neguan, igazko urritasunaren aldean. Ona ikusi ditudanetatik zenbaiten berri laburra.

Mordoxkarik andiena, oi bezala, Ameriketatik etorri zaigu. Oen artean leku berezia merezi du eskuarki THE PRODIGAL ("El hijo pródigo") delakoak, onena izatea bezain berezia eta nabarmena baita txarrena izatea. Esango nuke, eta asko esatea da, au dela iguingarriena amerikanoek Biblia'rekin, gizon indartsu eta emakume erdi-billuxiekin sortzen dituzten saltsa koipatsu orietan guztietan.

Beste burutik astekotan, Elia Kazan'en EAST OF EDEN ("Al Este del Edén") aipa dezagun aurrenik. Steinbeck'en gai irristakorra ezin obeki emana dago. Naiz erabat naiz zatika, den dena da doi eta egoki eta besterik baiño geiago James Dean zenaren lana. Txorakeriak esan dira onezaz, onean eta txarrean, baiña, gogoko dugun ala ez, eztu gutxi galdu zinemak bere eriotzarekin.

Jendeak ez bide dio egin besteri aspaldian Billy Wilder'en THE WITNESS FOR THE PROSECUTION ("Testigo de cargo") dertzanari egin dion arrera. Ezta arritzeko: gure egunotako epikaren borroka-lekua auzitegietan dago eta gure Akiles eta Ulises aukeratzekotan gizon-iltzaille burutsua eta legegizon maltzurra autatu bearko ganituzke. Agatha Christie'ren ipui laburraren (eta geroxeagoko komediaren) gaiñean eraikitako film onek eztu *suspense* delakoa bakarrik. Beregana dezake ikuslearen gogoia, naiz gertaera guztien berri alde zurretik jakin —orixe gertatzen zitzaidan neroni—, Charles Laughton eta beste lagun azkarren antzeari eskerrak.

Western-etan, Ameriketako erri-landarearen kimuetan, bi dira ikusgarri: Delmer Daves'en 3.10 TO YUMA ("El tren de las 3,10") eta John Sturges'en GUN FIGHT AT THE O.K. CORRAL ("Duelo de titanes"). Zerbait berri badakarte zaararen zaarrez usanduxea ageri den film-mota orretan. Leenbizikoaren bukaerak, zoritxarrez, ustekabekoa izanik, eztu ikuslearen gogoia beteko, oker ezpanago.

Lapur eta eraille gogortu batek ez eze, kristau biozperaagoak ere eluke noski orrela jokatu, gizon baten bizia eta Yuma'ko presondegiaren artean balego aukera.

Besteak —eztakit guztiak oartu diren— gai ezaguna du, eta gertatua gaitzera: Tombstone'ko inguruan Earp eta Cranton'darrek tiroka egin zuten kontu-garbitzea. Etzen besterik John Ford'en MY DARLING CLEMENTINE (“Pasión de los fuertes”, emen), Henry Fonda, Walter Brennan eta Victor Mature'kin. Oraingoan Burt Lancaster da Wyatt Earp, Earp anaien buruzagia, eta Kirk Douglas Holliday medikua edo agin-ateratzaillea, Ford'enak, bere “Stagecoach”-en maillara eldu gabe, gizen gutxiago zuen bear bada azkeneko onek baiño. Oraingoa, ordea, kolore, kanta eta abar, gogokoago izango dute askok.

Ezta ixiltzekoa Joseph Pevney'ren MAN OF A THOUSAND FACES (“El hombre de las mil caras”), Lon Chaney sonatuaren bizitza. Badute amerikanoek oitura gaurko jendeen bizia zinematrazeko, il orduko eta il baiño leen ere bai. Diodan au, ordea, besteak baiño geiago da: egia ala gezurra, badu bizitza onek bestelako baliorik. James Cagney ezta emen betiko mutur-jokalari bizkorra eta eztugu ezer galtzen aldaketa orrekin.

Stanley Kramer'ek España'n egin duen “Orgullo y pasión” baiño okerragoak ikusten dira. Kañoizar orren gora-beerak, D. C. Forester'en eleberrri batetik artuak, gogaikarri xamarrek dira, egia esan, zearo aldrebesak ez esateagatik. Baiña España'ko gauzen berri jakin nai duenak, arkituko ditu berortan iñoiz asma etzitzakeanak. Ikusiko du, esate baterako, Escorial'go monasterioan asten den Aste Santuko prozesioa Segovia'ko ubidearen azpitik igarotzen: an daramate gaitzera Ama Birjiñaren irudia, aurtxoa besoetan duela. Gertaerek asper-tuxe daukaten ikusleak ikuskizun eder bezain ugarietan lasai ditzake begia eta gogoa. Bestelako “paisajeak” naiago dituenak —geienon aragia argala da-ta—, badu ikusteko Sofia Loren'en dantza bat. A, gure Prai Bartolome bizi balitz!

Inglatera'tik etzaigu bere biziko gauzarik etorri. Robert Neame'ren THE MAN WHO NEVER WAS (“El hombre que nunca existió”), azken-gerrateko ixpiazkoaren gora-beerakin, polita da. Gauza bat irakasten digu, gaitzera. España'n gaudela adierazteko eztela deus askoren bearrak: aski dira kitarra-soiñua eta guardia civil baten (obe hiren) kapelu okerra. THE ONE THAT GOT AWAY (“El único evadido”) ingelesek alemanekin darabilten *fair play* edo joko garbiaren ezaugarria da: bekaitzik gabe ikus ditezke gaur atzoko etsaiaren ibillerak.

Geiago nai zuen Ken Annakin'en ACROSS THE BRIDGE (“Al otro lado del puente”) izenekoak. Mejico'ko lur beroetan —edo lur beroen muga— gertatzen den Graham Greene'n ipui labur bat artu

dute oiñarri, ezin geiago luzatuaz. Berez, ordea, Graham Greene'n aurrak badute alako legor-antxa: "Auto Sacramental"-etatik ateratako Adimena, Fedea edo Pekatuaren eite geiago dute ezur-aragizko kristau jatorrena baiño. Eta, jakiña, zenbat ere puztuago, ainbat gizatasun gutxiago.

Frantzia'tik film bat beñipein agertu zaigu, amar bizitzako etxea etxola artean bezain nabarmena: Jacques Tati'k burutik burura betetzen duen MON ONCLE ("Mi tío"). Chaplin itzak lilluratu ondoren ere, leengoan dago Tati. Bere mutuan, ordea, eztu mintzoaren bearrik oraingo bizitzaren alegia azaltzeko, otxan-itxuran aski zorrotza. Ato-rrarik etzulia gizonaren aspaldiko ipui ura berbera da, gaurko izkuntzara itzulia eta zein bizi-eremura, itzik gabe!

España'ko zineman, gauza jakiña da, badira bi gazte zerbait egin nai luketenak, dirua irabazteaz gaiñera: Bardem eta Berlanga. Bardem'en oraiñengo saioa, "La venganza", ezta emen agertu. Gero, Valle Inclán'en Sonatekin asia omen da: Jainkoak bakarrik daki zer irten ditekian ortik.

Berlanga'renetan "Los jueves milagro" izan da azkena. Iritziak eztaoz bat irudimen-jolas arin oni buruz, desegokikeriak ugari dituelako. Berlanga, ordea, ezta bear bada zearo errudun. España'ko zineman guztizko eskua duten esku izkutu eta indartsuek puska geiegi ken eta aldarazi dizkiote: Teologiarekin egin du topo gizagaxoak. Emendik moztu, ortik ebaki, ango urratua pasaratu eta emen adabakia ipiñi, ezta Berlanga'k gogoan zeukan soñekoia ezagutuko duenik.

Eztu teatro-gaiak aipatzeko oiturarik, teatrora joateko ere gutxi. Oitura ori beingoz austeaz ezta orratik pekatu larria izango. Ots andikoa izan da Madril'en Buero Vallejo'ren azkeneko obra: "Un soñador para un pueblo". Ongi josia ta ongi emana dago, ene itzak ezer balio badu. Bada, ordea, besterik ere. Pertsona nagusia Esquilache siziliarra da, arako Madril'go kale-argitzaille eta garbitzaille, baita kapa eta kapelu zaarren etsai ura. Egillea, jakin bear da, Esquilache'ren alde dago: obeto esan, Esquilache artu du aitzaki maite dituen gauzak goratzeko. Alegiaren mami gordea batera azaltzen dute batzuek eta bestera besteek. Iñongo osiñean sartu gabe, esan ditekian agian España'ko XVIII'garren mendea dakarrela auzitara: gure Gipuzkoa'n Aita Larramendi eta Azkoiti'ko zalduntxoak sortu zituen. Ezta aaztu bear, gaiñera, Azkoiti-Azpeitietako matxinada Madril'go Esquilache uxatu zuten zalaparten oiartzuna izan zela. Auzi orretan, nolana ere, goragarrri agertzen dira, Buero Vallejo'ren ustez, orduko zenbait buruzagi "argituren" asmoak eta egiñak, jendeak, berez naiz besteren eragiñez, ontzat artu ezipazituen ere.

L. MITXELENA.

« JAI-ALAI » (Schola Cantorum)

Donostia egunez, Schola Cantorum'eko dantza ta musika taldeak JAI-ALAI jokatu ziguten, Victoria Eugenia antzokian. Bi egunetarako antolatu ikusmira ta bietan, igande-asteartetan, goizean izan genduan. Zergatik goizean? Arratsalderako lain ez dalako ala euskal-antzezkarriak erritar batzuentzat bakarrik diralako, ots euskaldunentzat?

Baliteke inork gauza biak uste izatea. Egiaz, euskal-arteak ta, batibat, dantzak ez ditu gure tartean geiegi txoratzen. Ez uste izan gero, zenbait kritikalarik edo, lerro bi ere opa dizkietenik dalako jaialdi oieri. Alare, naikoa Euskal-erritik irtetea —Segovia bertara, nai badezu— Bizkai'ko launako lerdan orrek, adibidez, jendea odol sutsuan ta txalo ta oiuz ezartzeko.

Aitortu dezagun zuzen ta garbi, dantzetan beintzat, azken urte autan lan ta saio onuragarria dagitela Euskal-erri guzian neska ta mutil ugarik. Ez det jaialdirik galtzen ta, urre gorria izan ez arren guzia, ni beintzat ondorengo onetara iritxia nauzute: erriko dantzak, folklorea, gaur gallurrenara urreratu digutela dantzari oiek; ta gazteri orren oldarrak gorago egin aal izateko jauzi bizkorra egin bearrean arkitzen dala, au da, ballet-era.

Balleta esan det, bañan ez da naikoa esatea. Agian, koreografia, *mise en scène* ta teatroaren moldaketak eskatzen dituan eskua ta argia aipatu bearko nituke.

* * *

Zorionez, alor onexetako saiaketa degu "Jai-Alai".

Ez det paradoxaz asi nai, bañan urriago bear luke lenik. Badirudi programaren egilleak edo ugaritasunaren oparia egin nai izan digutela, edo ikusmiraren denbora ta goitasuna oparo mukurutzeko zati batzuei balio kaskarregia eman diotela. Gure gogoz, "Gabonetako erronda" ta

“Arrantzaleak” deritzaien zati bi oiek gabe, programa arriñago ta naikoa litzake. Gaiñera biak, naiz eta ainbat abesti sentigarri entzun ta “Kaxarrenka” ta “Kaskarots” diran dantza jostalariak ikusi, gorago aitatu degun tajua palta dute. Zenbat aberastasun! Bañan multzoan, abesti, dantza, jantzi ta antzelariak, denak kontakari baten arnasa ta animarik gabe.

J. A. Urrutikoetxea ta J. J. Franco Zabalegi gazteak asmatu, sortu ta dantzatu dizkigute “Jai-Alai”-ren koreografiak. Len esanak aztutzekoak dira, bestalde, txalotu bear ditugun sorkarien aurrean.

Lenik ezaguna genduen Olaizola'tar Joseba'ren “Oleskari zarra”-ko dantza ori. Norbaitek zion musikalaria aren sentimen gardenaren frutu bera dala dantza-musika ori. Franco'ren merezimendua, musikoaren ametsa ain egoki ta zintzo dantzakizun dotore biurtzea.

“Kresala” izan da ordea, guretzat, “Jai-Alai”-ren gauzarik itxarongarriena. Ipuiak iru aldi ditu: ametsa, eromena ta eriotza. Franco'k, ta bere adiskideak, asma ta dantzaten du. Persona bi izaki ta korapillorik gabeko kontakizuna, orra aldartea ballet baten sortzeko. Izan du kopeta Franco'k saiaketa onetan murgiltzeko ta adoretzu agertu zaigu, Garbizu'ren musika eragingarria baitaratuaz, gorputz oroz ta mimika egokiz amodiozko ipuia dantzaten.

Urrutikoetxea'ren goramenak izparringian ere irakurri dituzu. Bana-banakoak izango dira gure errian Urruti aña eskola dutenak. Mundu zabalean ibillia degu euskal-ballet aintzagarrian, ta agirikoa zaigu Paris'ko igurtzia, bere oin-joku bizkorra ta ritmuaren nagusitasuna ikustean. Guk koreografilaria gorapatuko degu. Urteaga'ren musikaz, San Juan zortziko ezagunarekin, Gipuzkoa'ko dantzen apotheosis eraiki digu, dantza-koruen joskera biziaz ta antzeztokiaren kolorez.

Schola'ren dantza-talde edo korueri buruz esan bearrekoa da neskatxenak diziplinaz ta dagokion graziz jokatzen duten bezela, mutillak ezberdifiak eta saildu gabeak arkitzen ditugula.

Puntu auetan ezin utzi neska-mutillek atera zuten “Ingurutxoa”. Egia esan, dantza bera gorago ezarri gendun antzezlariak baño. Napar-errietako enparantzetan ta antzokirik apaiñetan ateratzekoa da, izan ere, “Ingurutxo” dotore ori. Agiz adierazi zigun dantza-sokaren birunda, erreberentzi ta kolore txukun aien bidez bere etorkia. Onelakoak ordea, antzokietan eta orkestakin, talde aukeratuak atera bear iituzteke. Ez da bearrezkoa soka luzea ateratzea, bañan bai merezi duten axolaz eta begirunez. Zer nolako *suite* edo xorta ioria, bakan eman zizkiguten Ingurutxo, Aurreku, Sagar-dantza ta abar, karrusel baten ari, kolore ta ritmuz josi ta jantziatz!

* * *

“Jai-Alai”-ren musikalariaiak ez dira, noski, dantzariak baño gutxiago aintzakotzat eukitzeko. Errezkada luzea ta ospetsua ezarri barko nuke, beraien izenekin. Nork izan lezakean, adibidez, Garbizu'ren asmamena “Kresala”-n, Escudero'ren zindotasuna “Santa Ageda” abesti iñarrosgarrian ta Guridi'k duan ats eta maisugoa merezi duten ohorez jaulkitzeko jakinduria ta etorria.

Ezin bukatu, jakifia, amateur utsak dirala aitortu gabe “Schola Cantorum”-eko kantari, dantzari ta zuzendariak. Orien biotzak ta oldarra gafienera nai ta nai ez jaso bear.

Alare ez degu uste, sentimentu utsez, erritasun utsez alegia, diardutenik, artea sortzeko edermiñez baizik. Au da pozgarriena. Gazte oiek, euskal-artearen bidez, garai aldeetara egatzeko asmo ta itxaropena izatea.

Ainbeste goi-asmo itotzen dituan gaurko gizarteak ez al ditu oien kemenak zapuztuko.

Onelako arazoetan erri laguntzaren faltari ta erantzukizun astunak egozten zaizkio ta arrazoiz sarritan. Bañan bada beste korapillo bat ere: zergatik dugu, batipat Gipuzkoa'n, zaletasun oiek afizio billakatu ta lantzeko bildurra?

Bildurra edo dana dalako arek ez du gutxi moteltzen egamin ori.

ANSOLA G.



MUSIKA'Z

Bergara'ko Orfeoia Madrid'en

Joan dan Abendu'ko illaren erdi-aldean Madrid'en igaro nituan egun batzuek.

Ta, goiz batez, Alcala-kalea'n, gipuzkoar lagun zar batekin topogin nuan. Ta esan zidan berak:

—Baaldakik gaur arratsaldean Bergara'ko Orfeoiak kantatzen duala?

—Non? —galdegin nion.

—Zartzuela'n.

—Zartzuela'ko Teatroa'n, alegia?

—Bai.

—Gero arte, orduan.

—Ori dek. Gero arte.

* * *

Ostatura eguardian eldu nintzanean, eskuratu nuan Madrid'eko egun artako ekuskari-programa bat. Ta onek, Zartzuela'ko kontzertoz, zion:

“Orquesta Sinfónica de Madrid. Director: Vicente Spiteri.—Primera parte: *Pequeña serenata nocturna*. Mozart.—Segunda parte: *Novena Sinfonía, en “re” menor*. Beethoven.—Coro: Orfeón Vergarés.—Director: Dr. Oyarzábal.—Cuarteto solista: Conchita Domínguez, Celia de Anca, Carlos Munguía, Antonio Caro.—A las siete de la tarde.”

* * *

Sei t'erdiak inguruan urreratu nintzan Zartzuela'ko Teatro ederrera. Jendea erruz ta barra-barra zetorren. Ta dotorea, gañera. Txapelak ugari-samar ikusten ziran. Ta euskera, berriz, gure emengo erri batzuetan baño geiago entzuten zan.

"Kaxo!" ta "kaxo!" saio bat egiñez-gero, atera nuan kontzertorako sarrera. Egia esan, ez oso merke ere. Gauza onak beti garestiak izaten nonbait.

* * *

Barrena sartu nintzanean, Teatro osoa, aundia izan arren, leporaño jendez betea arkitzen zan. Ta, jendearen artean, soñieko ta marra ederrez apaindutako andere asko.

Iragarrita zegoan bezala, Orkesta'k lendabizi Mozart'en *Gauseresi txikia* jo zuan. Ta txit ongi, gañera. Zoragarria benetan lumaz eta sedaz egifia zirudien aingeru-musika ura...

Ta ondoren eman zion asiera, Orkesta'k berak bakarrik, Beethoven'en *Bederatzigarren Sinfonia*'ri. Aurreneko unetan alako urduritasun gutxi bat oartu genuan Orkesta'gan, baño bereala jabetu zan au osoro Beethoven aundiaren musika-orrialde berdingabeetaz, ta gero, Bergara'ko Orfeoia'rekin batera, iñoiz entzun eztegun bezalako *Bederatzigarren Sinfonia* eman zigun. Ain ederra...!

Ta, bukatu zuanean, Teatro'ko jende guzia zutitu zan eta, zoratuta bezala ta *bravo!* oiur egifiaz, ia ordu-laurden batean txaloka etengabe jardun zan.

* * *

Kanpora irten nintzanean barrungo txalo-otsak jarraitzen zuan artean. Ta jendeari *Novena* itza baizik etziztaion entzuten...

Bilbao'ko Athletic eta Real Madrid'ek egunaurrean jokatu zuten futboleko partidua ikustera joandako bilbotar adiskide bat alderatu zitzaidan eta, agurtu ondoren, esan zidan:

—Zorionak, gipuzkoarrak! Atzo guri baño zueiri gaur txalo geiago jo dizkitzute, alazankoa...

Ta donostiar batek berriz:

—Noiz ua txokora?

—Biar. Ta i?

—Larunbat-arratsaldean.

—Zerbait nai al dek etxe koentzat?

—Esaiek ongi nabillela. Ta oso zintzo. Esaiek amonari *Novenan* ikusi naukela...

* * *


Erri baten kultura era askotara neurritu liteke, iñolaz ere. Baña era orien oñarrietako bat, enurarik gabe, erriaren beraren musika-zaletasuna da. Ta ontan Bergara'ri, lurbira osoan ere, erri gutxik jo lezaioke kukurruku.

Ta esan genezake oker aundirik gabe noski, Bergara'ko erriak, bere gaurko musika-jaiera berezi ori, ia guzia, Roman Oiarzabal jaunaren lan trebe ta alegin leiatsuei zor diola.

* * *

Bosteko ori, don Roman!

URREA.



EDUARDO MOKOROA JAUNA

IL ZAIGU 91 URTEKIN

Ilbeltzaren 30'n, joan dan ostiral gaeuz Goiko Jaunak bereganatu zuan On Eduardo Mokoroa zanaren anima. Zeruan gerta dedilla!

Igandean jendetza aundia inguruan zuala izan zan gorputzaren entierro ikusgarria. Requiem Meza ta gañerako elizkizunak atzo astelenez ospatu ziran Santa Maria'ko Eliza nagusian.

Erriko agintari, musika-talde, Eskolania Gorriti, Tolosa'n eta Probintzian zerbait diran guziak, ikasle, adiskide, lagun eta ezagunak bildu ziran, On Eduardo Mokoroa, musikalari aundi, kristau zintzo ta euskaldun jatorrari azken agurra egiteko.

Ori ta geiago merezi bait zuan Tolosa'ko organista zarrak, Gorriti'ren jarraitzaileak. 75 urteren buruan Jainkoa'ri ainbeste Gloria, Musika'ri ainbeste lan eder eta Euskal-erria'ri etengabeko fama eman dionak.

Ez goaz emen aitatzera zenbat eta zenbat musika-komposizio utzi dituan: Meza, Salve, Miserere, Motete elizarako eta beste zer nai gañerantzeko. Eundik gora guziak goi arnas eta jakituriz beteak. Tolosarrok ongi ezagutzen ditugu San Juan omenez egindako Meza... Izaskun'go abestia, abar eta abar, Orfeon Tolosano'aren denborakoak. Eta Musika zaletasun piska bat eta Fede apur bat degun bitartean, ots! beti! jo ta kantatuko ditugu gure eliz ta kaleetan. Zer maillaraño igo zan Musika'n Madrid-en, Paris eta Bruselas'en irabazitako sariak erakusten dute.


Eta azkenik LEIDOR Teatro lan eta opera bikañak oso gora jasotzen du Mokoroa'ren izena. Opera au Emeterio Arrese'ren itz neurtuz josia euskaldun Musika ta Lirikan egin dan onentxoena bezela jotzen dute irizle ta kritiko zorrotzenak. Orain arte konziertotan jo izan diran puskak garaipen bizieta lortu dute.

Eta Opera oso-osorik agertu ta entzun araziko dan egunean (agian datorren urtean Donostia'n) ziur gaude Mokoroa'ren entzutea ezilkorra egingo dula, musikalari bikañen artean. Arriaga, Gorriti, Usandizaga, Aita Donosti etxeakoak; Smetana, Sibelius eta beste antzeakoak alderatzeraño.

Bukatzeko otoitz bat irakurle-entzuleai Mokoroa'ren oroimenez. Goian Bedi! Eta aren alargun andre, seme-alaba ta sendikoai gure atsekabe ta samintasunaren agerpena.

Tolosa 1-II-1959

A. M. L.



LIBURVAK

ITUN ZAR ETA BERRIA. Olabide'tar Erraimun, S. I. (1869-1942).

Bilbo'n, Yesu'ren Biotzaren Deya, 1958.

Emen dugu azkenik, A. Etxeberria eta beste zenbaiten kupidarik gabeko lanari eskerrak, apain baiño apainago argitaratua, A. Olabide zenak urte eta neke askoren buruan euskeraz eman zuen Biblia osoa. Infolaz ere, euskaldun batek letra-saillean inoiz burutu duen egitekorik larrietakoa da eta are larriagoa agertzen zaigu euskaldun berri batek egin zuela gogoratzean. Itzuli ere etzuen nolana egin, gogo heroz, arreta andiz eta jakite ugariz baizik. Maiz eduki bearko dugu gogoan eta esku-artean liburu au aurreratzean.

Ezta leen aldiz agertzen orain euskerazko Biblia osoa. Aurten eun urte, ain zuzen, eman zuen argitara Bonaparte'k Duvoisin'en itzulketa ederra. Aita Uriarte'k ere osorik itzuli zuen, osorik agertu ezpada ere. Etzituen Bonaparte'k, egia esan, Elizak agindu bezala argitaratzen, ezpaitzitu euskaldunen arimen onerako eragin, baiña uts oriek —bear ziren oarrak eta baimenak— erraz osa zitezkean, euskaldunok nai izan bagendu. Etzegoen deus itzulpen orietan. Vulgata-tik artuak ziren ezkerok. Elizak ontzat eman etzazekeanik.

Eztizkigu oraingo A. Olabide'ren Itun zaar eta berriak leengo Testamentu zaar eta berriak aantzarazi bear; leenago ere itzuliak zeudela jakitea ere ezta aski oraingo au gutxiesteko. Ezin berdin ditzakegu elkarrekin gaiñera, erabat beintzat. Jatorrizko izkuntzeta-rik artua dago Olabide'rena, ez latifietik, eta Biblia-gaietan egungo egunean arki ditekean jakitearean laguntzarekin itzulia. Enaiz, ordea,

sail onetan aurrerago sartuko, gauza ere enaiz eta. Argitasunik nai duenak jo beza Lafitte jaunak, *Herria* astekarian aurrenik eta liburuxka batean gero —orren berria aurreraxeago ikus dezakezu— euskal-itzulpen zaar eta berriei buruz argitara berria duen idazlan jakintsura.

Olabide'ren izkerari lotuko natzaio, izkuntza-gaietan ere eredu eta gidari gisa ager baititeke Olabide. Ots, joera baten eredu bezala, ezpaitu beste inork ain urruti jo bide orretatik eta, batez ere, ezpaita beste inor ain zearo eta jakiñaren gaiñean ibilli bide orretan barrena.

Olabide'ren izkeraz ere mintzatu zaigu Lafitte eta bat nator, itzez itz, beronen esanekin. Guztiarekin ere, ez aal da alferrik esana izango esatera noana. Badirudi, bada, euskalki bakoitzeko euskaldunek izan bear luketela itza auzi onetan, euskalkien arteko berexkuntzak baitira nolazpait ere auzi osoaren mamia.

Orhi'ko xoria Orhi'n laket. Arrotz idurituko zaio zenbaiti Olabide'ren izkera, beste zenbaiti arrotz agertuko zaion bezalaxe Urte, Duvoisin, Uriarte, Larregi eta Lardizabal'ena: nolana ere, eta beren artean dituzten berezitasun larriak gora-beera, bixkiak dirudite azken oek guztiok Olabide'ren aldamenean. Nik (izen-ordain iguingarri au ezin-bestean darabilt) leenago ezagutu nuen Olabide (Itun berri-ko Olabide, jakiña) besteak baiño. Berrak ekarri ninduen auengana gogoak baiño geiago. Gero, askozaz geroago, sortu zen gogo eta atsegiña, poliki-poliki, irakurri-ala. Eninduen beraz oiñaturak jo eta aldarazi *in actu oculi*, luzaroko jardunak baizik. Aldatu nintzan, orratik, eta atzerri latzean ikusten dut ene burua berriro Olabide'ratzean.

Laburzkí mintzatzeko, saio-izkera, ots, euskera experimentalak, deritzat Olabide'ren izkerari, bide berri batetik abiatu ezkeror noraiño el litekean antzemateko sortua edo. Orretarako, biar-etzitako euskaldunei begira, aaztu egin bear nora ezean, gutxi edo geiago, gaurko euskaldunak, atzokoak ez ezik.

Ezta gaitz saio-euskera orren zenbait ezaugarri nabarmen azaltzea. 1078-1079 orrialdeetan zabaldu zait liburua ala bearrez (*Gogotak=Eccl. 2, 26-4, 8*) eta or berton idoro ditezke geientsuak.

Ortografiatik as gaitzke: *Yainkoak, yayotzeko, yosteko, asterrtu, makurrkeria, negarr-eguna* (*r* gallurdunaz idatziak auk), *aberên, gôra, zapaltzallên*. Eztira berrikeri auk Olabide'k asmatuak, ezta Olabide'k bakarrik erabilliak (*aberên* eta antzekoak eztira gaiñera *Itun berria*-n agertzen), berrikeriak dira orratik: bearrik gabe, alegia, eta batasunaren eta euskal-irakurlearen kaltean sorturikako era berriak, Altube'k argi eta garbi adierazi zuen legez. *Y* letra, esate baterako, ezta erabiltzen asi batasunerako, nagusi ageri zen batasuna

apurtzeko baizik, yakin eta esaten duten euskaldunek *jakin* eta abar idazten baitute (1). Oiturari bagagozkio —gutxitan izaten baitira oiturak arrazoizko oiñarririk gabeak—, gaññera, eztugu emen agertzen den bidegabereren bat edo beste bezalakorik egingo: oker bada *ajola*, okerrago *ayola* idaztea *axola* izan bear lukeana.

Uskeriak dira ia auek: itzen aukerara bagatoz, arkituko da zer esanik. Olabide ezta, egia, itz-berri-zale amorratua: maiz aski zenbaiti berriak iduri lekizkioketanak ez dira berriak, zaarrak baizik. Arestian aipatu ditudan bi orrialdeetan, adibidez, iru orrelako topatu ditut: *iñartxia* “bekaitza, bekaizkeria”, *azaga* “azkena, bukaera”, *yarauntzia* “ondarea”. Irurok, dakidanez, *hápx legómena* dira, 1956'ko *Refranes y Sentencias*-en bakarrik ageri direnak. Ba ote zuten orrelako zaararen zaarrez aspaldi usteldu ziren itzak oraingo liburu batean sartzeko eskubiderik? Ez, ene ustez, ezin-bestean izan ezik, eta emen ezin-besterik etzegoela bistan dago. Zaar-zalea nauzute, baiña zaar-naiz berri-zaletasunean bearrezkoa dirudi neurriak.

Euskalki guztietarik artu du Olabide'k itzetan ere eta itzetan batez ere. Eztago ezer txarrik, berriz ere, bere neurrian egin ezker. Baiña Azkue eta Lhande'ren iztegian arkitzeagatik utsagatik —eta orietan arkitzen ez direnak ere badira ugari liburu onetan—, eztu itz batek beste edozeñek ainbat esku. Olabide'k, berriz, maizegi artu ditu Euskal-erriko xokorik galduenetan jaso izan diren itzak, baita aspaldidanik nonnai aaztu zirenak ere, literaturan naiz erri-izkuntzan zabalduago eta ezagunagoak direnen kaltean.

Diodan orrialdeetan bi aldiz agertzen da *dordoa*. Enekiengonki zer zen eta Azkue-gana jo bear: Bizkai'ko itza omen da *durdua* “dificultad” eta Mogel'ek (baiña zein Mogel'ek eta non?) darabillena. Ez ote genduen emen ere euskaldun geiagok adituko gendukean modukorik?

Ortik kanpora, nabarmenagoak ikus ditezke. Ona zenbait ale. *Igarotzen ziranek, berriz, burbuñoka biraokatu ta esaten zioten* (Mt. 27, 39): *burbuñoka* “moviendo la cabeza, p. ej. de perlesía y aun voluntariamente” Erronkari'ko Uztarrozen entzun omen zuen Azkue'k. *Emakume bat an ikusi nun birao-izenek kunkuín... ta eskuan urrezko ontzi bat iguingarriz kunkuín* (Ap. 17, 3-4): *kunkuín* “repleto” (*blei*, alegia) Zuberora'n erabiltzen omen da (Larrasket'ek *kün-*

(1) Badirudi emen, erderaren igesi gabiltzala, sarritan bezala, erderari euskeraz bear elukean eskua ematen diogula. Ez genduke, alegia, gaztelaniazko *j*-rik nai, euskeraz arrotza delako: otsa esan nai dut, ez letra. Lasai gaitezen. Zerbaiten berri dudan izkuntzetan gaztelania da bakar-bakarra *j* letra orrela ebakitzen duena. Ezta, beraz, arritzeko, gaztelaniaz apur batean bederen aazten bagera, euskeraz ere letra ori bestela irakurtzea.

küño “(arbre) surchargé de fruits” dakar). *Ekalo* “atmida kapnoú, uaporem fumi” (Act. 2, 19—Joel 3, 3), *kelaño*, *kemeta* edo *kemordo* alegia, Baztan’goa omen da. Eta onelaxe bein ta berriro. Irakurleari etzaio biderik geiegi zabaldu bear, agian, baiña arantzaz eta sasiz iraurtzekak ere eztirudi egoki.

Ar ditzagun *ekera-oxezkiak*, sortalde-sartaldeak. Bi gauza esan ditezke bigarrenaz. Erronkari’ko itz onek, aurrenik, eztu “sartalde, etziñalde” esan nai, “laiotza” baizik. Gero, etzegoan artu bearrik, baiña artzekotan etzukean Erronkari’ko itxura berexi ta arrotz orretan sartu bear, beste euskalkietan duenean baizik: *oi(h)eski*, Zarraitzu’n *oeski*. Bestela, *anaxe*, *exar*, *oxal*, *texu* eta abar esan bearrean giñake, Erronkari’n bezala. Aurrenekoari (*ekera*-ri alegia) dagokionez, norknai daki *egutera* askozaz zabalduagoa dagoela gure artean *ekera* baiño: au (Azkue’k du berriz itza) Ezkioga’n erabiltzen omen dute. Eztut batere argi ikusten gaiñera ez batak ez besteak “sortalde, eguzki-alde” esan nai dutenik, baiña ortan utz dezagun.

Erderatikako euskal-itzak eztitu zearo baztertzen Olabide’k; geiegi xamar bai, ordea. Batzuetan, nola ez ba, erderaren osiñean amil-tzen ere da, erderaren itzuri dabillega. Etzuen *seape*, *ziape* artu nai izan *sinapi* (*sinapis*) itzultzeko, latinietikakoa zela igerri ziolako non-bait, eta *yeben* (*yeben-azia*) sartu zuen orren lekuan. Baiña *yeben* (*xeben* bear luke izan) ezta euskal-itza eta orixe esan nai dut, eztela euskal-itza: *jeben* Baraibar’ek Araba’ko Valdegovia’n bildu zuen, euskal-mugetarik urruti, beraz, Erdi Aroan ere euskerarik egiten etzen lurraldean. Gaiñera, eta au da okerrena, *jeben*-en jatorria *ziapere*-rena berbera da, alde au gora-beera: *ziapere*-ren *n*-rik ezak eta *p* orrek argi adierazten dutela aspaldidanik gureganatua dugula eta orrenbestez euskal-itz garbia dela, *jeben*-en *n*-k eta *b*-k aitzitik erderak itzari eman dion itxura salatzen dutelarik. Badu beste arras gogoko itz bat, *barano*, “inguru” adierazteko. Zuberua’ko itz zarra omen dugu eta an ere, leen eta orain, edatuagoa dago noski *üngü(r)ü*. Baiña *inguru* latinietik artua omen, eta nola lasai erabilli? Enuke iñor naigabetu nai, baiña obe dugu *inguru* erabilli. Euskal-erri osoan zabaldua dago ura; au, berriz, euskal-lurralde batean leen eta orain, agi denean, iñoiz ez. Geiago bear dutenentzat bijoa beste argitasun au. *Inguru* latinietikakoa da, ez erromantzetik artua, aspaldidanik euskaldundua, beraz; *barano*, aldiz, bearnesetik artua, sartu berria beraz bestearen ondoan, bearnesa ere erdera baita eta euskeraren mugaide, ain zuzen. Gaztelaniazko *baranda*-ren jatorri berbera du, jatorri illun xamarra egia esan, Corominas’en iztegian ikus ditekenez.

Eunka dira liburu onetan, millaka eypadira, itz berriak, zaararen zaarrez aaztuak edo bazterren batean ezagunak badira euskal-literaturan iñoiz sarrerarik izan ez tutenak: *adei*, *akalde*, *alatz*, *antxintxika*,

asketsi, atuxa, bakaldun, dedu, deunetsi, gaizkatu, gentza, ludi, ukar, ukusi... Ezta oraingoa *erail* eztela euskal-itza, ezta *deun* ere, *eraille, deunga* jatorretarik gaizki atereak direla. Ezta euskeraz *bayetsi*-rik ere: Oihenart'en errefrauetan, *Otsoak zer baitetsa, bait-detsa, etsirena*, da. *Onetsi* euskal-itza da, baiña eztu "bedeinkatu" adierazten, "maitatu" baizik.

Olabide'k bazekien bazuela besterik orien orde: maiz euskaldun guztiek, beti euskaldunik geienok nekerik gabe adi ditzakegun itzak. Etzeuzkan, ordea, gogoan diren euskaldun kaxkar-ezjakiñak, bear lirakean euskaldun jantziak baizik, biar edo etzi ugariago sor litezkean euskaldunak. Etzion beñipein jaramonik egin Larramendi'k Mendiburu'ri eman zion burubideari: "Beste batzuek ditugu gure Euskeran nai ez lukeenak beste hizkundeetatik hiztxo batere... Bederako ergelkeria! Etzaitzela zu malmeti. Euskerari eratxi zaizka Gaztelaniatik, Latinetik edo beste hizkundeetatik hitz asko, baiña adituaz ta oituaz Euskerakoak bezain ongi aditzen diranak: eta oyek utzi behar eztitugu. Ta beharbada noiz edo berriz obeko da onelakoak usatzea Euskerakoak baño, batez ere Eliz-gauzetan ta gure arimen salbazioari dagozten egikarietan." Larramendi'k, izan ere, bere askakari ugariak erdaldunentzat sortu zituen eta oberik opa zien euskaldunei. Olabide'k, aldiz, eztitu bear bada *arima, barkatu, bataio, bekatu* eta antzekoak erabat baztertu, baiña eztira liburu onetan erraz arkitzen.

Eztut adierazi nai, iñolaz ere, bere eginkizun nagusiaz den gutxi-ena ere aaztu zenik. Bestetara noa. Euskaldun berria izanik, eta bere aldiko euskaldun berria, ezin gauzak ikus Larramendi'ren begiz. Etzizaiokean orduan euskaldun berri batek begiramen andirik ekarri euskaldun jator bati, ots, euskeraz debekurik gabe mintzatzen denari. Jakiña eta ezaguna baitzen euskaldun jatorrek "obetu bearreko" izkuntza zarpail batean egiten zutela. Eztago Txomin Agirre'ri bertsolarien jardunak ematen zion tristura oroitu besterik edota Campion'en arako txantxetako ura: "Los vascos son unos burros que no saben lo que se vascuencean." Barreatua zegoen gaiñera izkuntza nolana eraberritu, aldatu, ugaritu eta murriztu zitekealako iritzia, oitura eta tradizioaz batere konturik egin gabe.

Aipatu ditudan xeetasunok, berriz diot, eta beste anitzek, garbiro azaltzen digute Olabide etzela ziñetako eta benetako euskeraz ari, saio-euskera edo euskera experimental batean baiño. Norbaitek ikus ezpadeza, argibide au eskeñiko diot. Ba ote da Euskal-erri osoan eliz-gizonik Olabide'ren zenbait esaldi dauden daudenean prediku batean emango lituzkeanik? Onako au, esate baterako: "Entzun duzute esanik dagola: EZ IZORRTU. Nik, berriz, dasaizuet: emakumea irritsez iñork begira dunekoxe, bere biotzean arekiko izorrkeri egin

du." (Mt. 5, 27-28: Ex. 20, 14-n bestela dago.) Ori ezta orrela esaten, itz ori luzexegoa baita euskeraz (2). Itz orrek, gaiñera, eztu or ezarri nai zaion zentzua. Ezta ori, ordea, okerrena: itz ori ezin dezake sermolari batek ezur-aragizko euskaldunen aurrean esan. Amets-euskaldunek, ordea, zernai gauza entzun dezakete eta eztute inoiz txintik aterako. Itzak, jakiña da, badute beste zerbait, adime- nez nolazpait besarka ditekian adieraz gaiñera, adimenak ikusten ez- padu ere biotzak uki dezakena: beren giroa, usaia, lurriña eta sen- timen-kutsua. Orrexek, gauza ezerez orrek, gidatzen du idazle eta iztun trebea itzak autatzean eta orixe da —saio-izkera batean, baiña ez benetako izkuntzan— antolatzaillaren erabaki utsez bazter eta deusezta ditekiana.

Euskalki-naastea ere saio-tankera orretatik datorkio liburu oni. Elkarren ondoan ageri dira, esate baterako, *aalke*, *aantzi*, *arean*, *arrituenik ez dugu*, *asagotu*, *gaur* (ez *egun*) *iize*, (*sua*) *lako*, *neba*, *senide* (ez *aurride*), *tuxuri* ta *txerren*, *yardetsi*, *zeia* ta *nik dakit* beste zenbat. Euskaldunik geienok beldur gifiñake, noski, orrenbeste- tara ausartzeko: ez ote da bearrezko orrelako naaste batean izkuntza biziaren kemen eta jatortasuna urtzea eta desegitea argizagia surtan be- zala? Itzak berak, izkuntza baten zatirik aldakorrenak eta askatuena, eztira ezer iztegi osoaren egituraz eta sistemaz kanpora. Elkarrekiko ar-emanak direla bide bakarrik dute zeiniek bere adiera. Eta itz batek, ingurukoak geitzen, gutxitzen naiz aldatzen bazaizkio, ezin leangoan irau.

Esanak esan, bada miresgarriagorik. Olabide'ren izkera, ain na- barra izanik azalez, gipuzkera soilla da mami-mamiraiño jo ezkerok, eta gipuzkera murriz-ertsia gaiñera. Otsak, zorioneko y kendu ez- kero, gipuzkoarrak dira: *apari* ipiñiko du, esaterako, *ez afari*. Itzak, bai, nondinaikoak dira, baiña alaz ere *mingain* eta *ikutu* aukeratu ditu, au da, gipuzkerari, ia bakarrik dagoenean ere, aurrea eman dio heste euskalki guztien gaiñetik (3). Eta morfologia, izkuntzaren muiña, giputza dugu eta giputz baiño giputzagoa batzuetan: Gipuz- koa'n *sar zaites* entzuten eta irakurtzen bada ere, *sartu zaites* ager- tzen da emen, beti edo geienetan. Aditza batez ere gipuzkoarra dugu, analogiaz zertxobait aldatua: *dikat*, *ditute*, *zaituz*, *zaituzt*, *zituden*, *lituke*, e. a. Adizkiak, bestalde, azken urteotako "gipuzkera labur-

(2) Zuberoa'n ere, eta xuberotarren itzak gureak eztuen pisua du puntu onetan, itza luzeagoa da. Ikus Larrasket, s. v. *izorra*: "L'a appartient au thème: *isor* est fautif." Eta au gaiñeratzen du: "mais le Basque est discret dans l'emploi des mots de cette famille: il dit, de préférence (barka, arren), *haur esparantxan*."

(3) Orain, liburu onetan, *Itun berri*-ko *ikutzen* bera *ikuitzen* biurtu da. *Itto* ere irakurri dut nonbait.

tukoak" dira: *dulako, dunik, nauna, zegon, zerabilkin*, ta gero *aizala*. Aditzaz kanpora ere badira laburpenak, orain beintzat: *areqorik, ordun, ua*.

Aditz sintetikoa artu du batipat Olabide'k enseiukarrean bezala, emen metatu ditu ikatz-illintirik bizienak irakurlearen buru-gaiñean: "Yainkoaren emaria ba'zenezagu, ta "idazu ur" dasaizuna nor dan ba'zeneki, ur bizia zerorrek zeneskayoke." Beste pasarte askotan bezalaxe, elkarrekin daude or, pillaturik, otsoak ardiekin iduri, erabiltzen diren adizkiak, erabilli izanak eta sekula erabilli eztirenak. Ona beste bat: "Abraham'en seme ba'ziñate, Abraham'ek zekionari zuek ere zenekiokete." (Ioh. 8, 39.) Grekoz emango dut, eta eztaukat adarra jotzeko gogorik, norbaiti lagunduko diolakoan au ulertzen neri lagundu didan antzera: *Ei tékna toû Abrahám este, tà érga toû Abrahám epoiéite*. (Vulgata-k *facite* dio.) Urdail ona bearko du izan irakurleak orrelako aditz-pillo egoskogorrrak egosteko. Eta, zertarako? Labur-bearrez, izkuntzak indarrik gal eztezan? (4). Ez ote da orrelakoak inguruko erderatan itz batez adierazten direlako eta lotsagarri litzakealako aiek baiño eskasago agertzea? Eta aiek itz batean esaten badute, guri, euskaldunoi, zer?

Alde onak baditu Olabide'ren izkerak, alde onak ugari, txit onak eta onenetakoak. Gaiari begira, aurrenik, esan dudan bezala, emen erabilli den arreta eta zeaztasuna. Alde orretatik *longe princeps* da Olabide'rena Bibliaren euskal-itzulpenen artean. Obe du ori aldameñean euki Izkribu Santuak euskeraz aipatu bear dituenak.

Izkuntzari dagokionez ere, dudarik gabe, ezin-utzizkoa eta miratu bearrekoa da aurrerantzean euskal-aberastasun zaar eta berrien bilduma jori au. Ederki ikasi zuen euskeraz Olabide'k. Eta buruz, tajuz ta adorez, ez esku aríñez nekearen nekez baiño egiten den lanari gertatu oi zaionez, arena ere iraukorra izango da. Joera ortakoen artean baiñipein gailen eta nagusi jasoko du burua.

Señalagarri diren zatiak elirake berealakoan aipatuko. Euskal-itx eta esaeren balioa ederki azaltzen du sarritan: *esku-igar* "habens manum aridam" (Mc. 3, 1), *makur aundia da, noski, zuena* (I Cor. 6, 7), *nereak egin du* "consummatum est" (Ioh. 19, 30), eta zenbat eta zenbat. Goramen bereziak merezi ditu euskal-aditzaren bereiztasunak bere lekuan utzi dituelako, euskalari gorengoen iritziak gora-beera (eta etziren zoritxarrez euskaldun berriak): bat da Olabide'rentzat *zatzaskit* (*zu!*, ez *zuek*) eta bestea, zein bestea ere, *zakizkit* (*zu!*, be-

(4) Laburrago mintzatu ziren aatik bein baiño geiagotan euskal-autore zaarrak. Etxeberri Ziburukoarena (*Eliçara erabiltceco liburua*, 274 or.): *Aha-sabaiari lehen datxekala mihia*. Olabide'rena (Ps. 137, 6): *Nere mingaña ao-sapayari itsatsi'a geldi bedi*.

riz ere). Orain, egia da, *mintzo sakida* ikusten dut Testamentu zaarrean (Cant. 2, 14): antolatzaillarena? Beste leku batean, bear bezala, *erruki zakiskigu* (=bizk. *zakiguz*) ageri baita (Tob. 8, 10), *urrikal zakiskigu* Duvoisin'enean. Orain berriro izan diren bozetan, eztakit Olabide'ren botoa jaso duten: *bait-* darabil beti onek.

Uts larriak, bi ditu itzulpen onek. Esan dudan naturaltasunik eza, aurrenik, eta pekatu larria da. Laboratorioko ontzien erdian jaio dena, *Faust*-eko Homunculus aren gisa, nekez elduko da gizatasun osora. Beste utsa teoriari dagokio, baiña saioetan teoriak, eta teoria zuzenak, bear du izan gidari, sasi-tartean galduko ezpagera.

Biotz-biotzez nai zuen Olabide'k euskalkien arteko batasuna, etzuen ordea bear zen lekuan billatu. Aurrera, gerora begira zegoen ura eta euskalkien batasuna atzean, aldi igaroan daukagu: iñoiz izana da eta gero eta urrutiago dagoena. Urteak joan-ala, euskalkiak bereizten eta elkarrengandik urruntzen ari dira, edozein izkuntzaren dialektuak bezala. Bizkaieraren berririk ez tuen giputz batek igerriko dio gutxi gora-beera zer esan nai duen *astoa legez* edo *ni bere* irakurtzean: errazago, nolana ere, *astoa lez* edo *ni be* irakurtzean baiña. Bearrak eta indarrak batera joerazten ez gaituzte iño —eta txorakeria litzake orduan euskaldun guztiak giputzon esanera egongo direla sinestea—, atzera begiratu bear dugu, euskalkiak are geiago elkarrengantik bazter ez titezen. Nola, gero? Zenbait puntutan erraz da azaltzen: idatz dezagun *jakin*, *duela*, *zuen*, *orduan* lapurtarrek bezalaxe eta gaiñera Gipuzkoa'n izan diren mordoillo-antzeko idazle guztien erara.

Itz batean, eredutzat artzekoa dugu Olabide. Giza-eredu jatorra dugu, gutxi bezalakoa, euskera ain ongi ikasteaz gaiñera orrenbesteko lan ikaragarria egin zuelako. Euskaldun berri izanik eragozpen geiago zuen ezker, ohorea ere neurri andiagoan dagokio.

Izkuntz-eredutzat, ordea, gidari segurutzat, iñola ere ez. Etzen berez iztun trebe orietakoa —Jainkoaren doaia izaten da ori—, jakintza-gizona zen izatez, ezer baten. Nai zuena zeazkiro adieraziko zizun, naiz astun eta korapillatu-antzean geienbat: etzen itzekin bestela bezala jolas arin-bizian ibiltzeko gizona.

Bestetik, etzuen beñere menderatu izkuntza, eztiot Axular'ek, Mendiburu'k, Agirre'k edo Prai Bartolome'k bezala, ezta umillago diren Duvoisin'ek, Lardizabal'ek edo Uriarte'k adinean ere. Etziztzaion eman izkuntza, egia, nekearen nekez bereganatu zuen, baiña puntu onetan ezti orrek, zoritzarrez, batera ajelatu.

Gero eta obeto ari zela ere, egia da. Liburu onetan bertan, Orixe'k erakutsi duenez, alde andia dago Itun zaarretik, oraiñengo itzulitik, Itun berrira. Itun zaarrean bertan, ordea, eztira bear bezain urriak

pasarte gogor eta legorrak. Asieran aipaturikako orrialdeen ondoan dago onako au: *Yainkoak, ogasun eta onak, / ayetatik yateko aukera eta dagokiona arrtzea, / eta, bere lanean bertan pozik izatea damazkion gizonak, / Yainkoarengandik emari au du.* (Eccl. 5, 18.) Nekez arkituko da zati luze xamarrik ukitu gabe euskaldunei eskein dakien-kenik.

Bein, aldizkari onetan (EGAN 1957, 133 or.), Axular'en alde onez eta txarrez mintzatu zitzaigun A. Mujika: arriskubide izan ditekete, zion, euskal-gaietan ongia eta gaizkia ezagutzeko ainbat jakituri eztutenentzat. Nik, berriz, bestetan ikusten dut arriskua: Olabide'ren Itun zâr eta berrian ez ezik, azken urteotan egin diren beste zenbait saiotan ere bai. Emen ere eztago bide galtzerik gauzen berri dakienarentzat, bai ordea auzi askori buruz —eta euskal-gramatikaren punturik geienak auzi biurtuak ditugu gaurko eta emengo euskaldunok— zalantzan dagoenarentzat.

Zer dago baztertzeorik Axular'engan, oraingo ustez? Itzak, gu-txi edo geiago (*desplazer, desordenatu* eta antzekoak), *ezen, nola, non* eta *zein* batzu; itz-ordena ere apur bat aldatu bear omen zaio, guztiok dakizkigun legeen arabera. Euskal-gramatikaren mamiari eta biotzari bagagozkio, ordea, baditeke ifioiz oker ibiltzea Axular, baiña eztat nik beñiere uts arkitu.

Ezta ori Olabide'rekin gertatzen zaiguna. Itxura txarreko esaerak ugari ditu: *mintzo egiten zitzaien* (Mc. 2, 2), *zoaz, ordea, apaizari aurkesteko* (Mc. 1, 44), *amets askotik, iruzurrak datoz* (Eccl. 5, 6), *ezagun dut* (Eccl. 3, 12: *ezta nabari dut, ezagutu dut* baizik), *nerekiko niotsan* (= *mion*, Eccl. 3, 17).

Ar dezagun *eritzi* aditzaren jokaera. Oiturarik zaarrena —ta ja-torrena, noski— dativoarekin erabiltzea da. Onela Leizarraga'k: *hari eritziren zayo Emmanuel, Lystrakoek Barnabasi Iupiter eritzi, eta Pauli Merkurio*; onela bizkaitarrek: *Alan derist Peru Landetako (Peru Abarka), ta alan orazinoe batari deritxo barrukua ta bestiari aozkua* (A. Villasante'ri eskerrak ezagutzen dudan XVIII'gn. mendearen azken-aldian egindako Kristau-ikasbide batean). Orobat Gipuzkoa'n: *Ango elizari deritza Eleiz garailea edo bengularia, Nola deritze beste Ordenai?* (Ubillos). Larramendi'k, iztegirako itz-hilla zebillela, onela galdetzen omen zien baserritarrei: *Oni nola deritza?*

Bestetan ikusi eztudana Olabide'gan dakust: *Mari ez ote zeritzak onen ama...?* “*Amak bear luke, nik uste —dio Zaitegi jaunak, Euzko-Gogoa, 1958, 603 or.—: ama irart-okerra bide da.*” Ezta, ez, irart-okerra, urrena beste au baitator: *Zeuden mendia Oliamendi deritza*. Testamendu zaarrean ere orrelaxe darabil: *Aren ama Amital zeritsan* (Ier. 52, 1).

Okerragoa da emen agertzen den ikako izkera ikaragarria: *Etsita ote zeudek nagusiak Kisto'a dukala au? Bañan au nongoa dukan bazekikagu; Kisto'a zetorrkanean, berriz inork ez zekikek nongoa dukanik* (Ioh. 7, 26-27). Ez ote dakar onek gogora arako *abominatio desolationis* ura? Belarriko miñak salatzen du ezin ditekeala gure izkuntzan orrelakorik esan.

Saioa egiña dago. Eztago bide orretatik Olabide baiño gorago joaterik. Liburu au ezta inondik probetxugarriago bide orretako amildegiak agerian uzten dituen aldetik baiño. Argituko aal ditu Jainkoak guztion begiak, gure izkuntzaren onerako!

Liburu au argitara den mallan argitaratzen egiñaalean saiatu diren guziek zorion beroak merezi dituzte, Aita Etxeberria'gandik asita. Papera, inprenta-lana, oarrak, argibide ugariak arretaz landuak izan dira. Poztutzen gaitu benetan "Jesus-en Biotzaren Deya" berriz ere euskal-bideetan barrena abiatu dela ikusteak.

L. MITXELENA



ZERU-MENDITIK.—*Iratzeder*. 1959. Editions Ezkila. Notre Dame de Belloc.

Ez da egia noski orain irureun ta irurogei-bat urte Salas Barbadillo'k ziona. Alegia, Euskalerrria'k olerkaririk ez duala ematen. Gure iritzia da, olerkariak bai, ta ugari gañera, ematen dituala gure lurak, baña onak, gutxi.

Bestalde, esan izan oi da, bertsoak, ez onak, baizik txit onak bear dutela izan. Bestela, ta on utsak badira, txarrak izatea bezala dala-ta.

Egia esan, esaera auek zer-ikusi aundirik ez dute ez *Iratzeder*'ekin ez bere *Zeru-Menditik* bertso-bildumarekin. *Iratzeder* olerkari bikañea bait-da, ta *Zeru-menditik* berriz goieneko mallako bertso-bilduma.

Zeru-Menditik iru ataletan bereistutako berrogei-bat olerki dakartzki. Guziak, 1941 ta 1946'garren arteko urtetan egilleak antolatuak. Atalen izenak auetxek dira: *Munduari ihes*, *Munduari gogor* ta *Munduari nausi*.

Jakiña, olerki guziak ez dira on-osoak. Ez eta doaiez berdiñak. Batzuek besteak baño obeak dira, baña danak, txit jasoak eta gain-gañekoak ez diranak ere, badituzte ahapaldi bat edo beste eder-erna-garriak.

Iratzeder beraren doairik garaiena berriz, nortasuna da iñolaz ere. Ta nortasun au alako *fraidetasun* batean-edo ezarri ta errotua dago. Ez ordea edozein *fraidetasunetan*; *fraidetasun* uts-soil ta garbi batean baizik. Zeatzago esateko: beneditar *fraidetasun* ziñezkoan. Ta ez da arritzekoa. Iratzeder, irakurle guziok jakingo dezutenez, Beloke-ko praille beneditanoa bait-da.

Baña ez uste izan bilduma ontako olerki guziak erligio-gaiezkoak diranik. Badira bestelakoak ere: familiari ta Euskalerra'ri dagozkan gaiezkoak, esate baterako. Baita jostakin bat edo beste ere. Ta txit politik, gañera. Adibidez, *Chinkulin* izenekoa.

“Chinkuli kuli chinkulin
Nere maiteño chocholin
Cho! Cho!
Chinkuli kuli chinkulin
Jainkoa dago zurekin
Cho! Cho!”

Dana dala, ezin uka erligio-gaiezkoak dirala noski olerki-xorta ontako neurtitzik ederrenak.

Auen artean merezi dute aipamen bat *Deus, Deus meus* deritzatenak. Izen ontako eleiz-eresiaren *parafrosis* bat da poesi au, ta iñolaz ere, euskeraz ogeitabost urte auetan idatzi dan ederrenetakoa.

Onatx bere ahapaldi bat:

“Jainkoa, nere Jainkoa,
Zertako zaude, nitarik urrun, zertako nauzu ahantzi?
Auhenez eta marrumaz nago, atsekabeek ithoa.
Egunaz deika, gauaz oihuka behar othe dut nik bizi
Jainkoa, nere Jainkoa.”

Euskalerra'ri buruz antolatutakoen artean berriz onentxoena, gure iritzi apalez, *Nun habil orai?* izenekoa da:

“Etchahun!

Nun habil orai, Etchahun, zoin bidetan kantuz,
Hire pertsuño minkorrak jender karkailatuz?
Hire bihotz kartsu eta zabalegi hori
Bidetan othe deramak zarrapo ta zauri?
Herrestan othe haiz bethi beilaz-beila joaki,
Ezpain zimurrak irri, barnea urriki?
Ez othe ditek geihago, ontsa bazkaldurik,
Kikera zolan kausitzen hire trufa tcharrik?

Etchahun!

Izen bero, izen ilhun...

Etchahun!”

Ernagarriak dira *Amatto bihotz sabala, Ez nauke, Elgarrekin, Jakes, Azken orena* ta abar ere.

Gogoangarriak benetan, *Azken orena*’ren bukaerako bertso auek...

“Hil-da bakean. Gana da. Eta haren gorputza,
Bi eskuak juntatuak, ohe gainean datza,
Hil soineko duelarik zerume jauntzi beltza.

... ..

Hor da, airaldiz ase hegaztin bat bezala:
Hegal kartsu hoik bilduak, hor ezindurik hila,
Begitartean atchikiz zoraldien itzala.”

Liburuxkaren lenengo orrialdean itz auek ezartzen dira: “Zorion keta dabilzan —Eskualdun anai gazteri— Jainkoak oro helaraz gaitzan Bethiereko Eskual-Herrirat kopeta-gora eta kantari!”

Ta auek berriz azkenekoan: “Agertzekoa: ARGIZ ARGI (1947-1957).”

Betor aguro.

A. ARRUE



Aita Manzisidor, S. I. SANTU BIZITZAK, EGUNEAN EGUNEKOA. Lenengo xorta: Ilbelta, Otsailla, Epailla, Jorrailla. Bilbao, 1958.

Gero eta larriagoa da euskaldunok langille argi eta porrokatu bati, A. Manzisidor jesulagunari, diogun zorra. Jendeak ain ongi artu duen liburu sail azian *Gure Patroi Aundia*, San Inazio'ren bizitza ederra, genduen azkena (1956). Eta orain eskeifii diguna ezta iruko baten leen zatia besterik.

Egunean eguneko Santuen bizitzak, Kristau-urtea, gogoko irakurketa da aspaldidanik mundu guztiko kristautzat; ortik atera dute eta ateratzen on eta atsegin. Euskaldunok, ordea, urri genbiltzan. Eztakit ba ote genduen beste bildumarik, Joannateguy'ren bi liburuez kanpora: *Ehunbat Sainduen bicitzea* (1876) eta *Sainduen bizitza* (1890, Ilbelta-Apirilla bakarrik). Gipuzkoa-aldean beintzat oraingo au da, noski, leenbiziko sorta.

Santu bakoitzaren kondairari buruz enaiteke ezer esaten ari, eta eztago ezer esan bearrik, iturri onetara jo baitu A. Manzisidor'ek ur-billa. Izkuntzaren aldetik, ezin obeki dagokion gaia aukeratu du egilleak. Gertakariak kontatzen mutilla izan da beti (eztago *Gure Patroi Aundia*-ri begiratu besterik) eta bizi eta argiro kontatzen duena euskera erraz, laster, malkarrik gabeko batean esaten du.

Euskera ori txukunago agertzen da oraingoan bestetan baiño: leen falta zuen azken leunketa apur bat badu orain. Zenbaiten laguntza aitortzen du esker onez egilleak liburuaren itzaurrean eta esker ona merezi dute irakurleengandik ere.

Egingo nuke izango duela liburu onek irakurle ugari. Ori merezi du eta orrela izango al da arimen eta izkuntzaren onerako. Euskal-idazleak berak ere ezta ezer galduko ori irakurtzearekin. Izkutu sakinik ikasiko ezpadu ere, aaztuxe dauzkagun gauzatxo bat edo beste ikas dezake: euskeraz lasai, jator, leunkiro eta irakurlearentzat nekerik gabe mintzatzen.

Ar bitza egilleak, berriro ere, EGAN-en eta nere zorion-eskerrik beroenak.

L. M.



EUSKAL-ANTZERKIAK. KONTU-KONTARI. Etxaniz'tar Nemesi. "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1958.

Zarautz'ko Itxaropena etxe ezagunak bere "Kulixka-sorta" liburu sail politean D. Nemesio Etxaniz idazle bizkorren "*Euskal-Antzerkiak ta Kontu Kontari*" deritzan idazti mamitsu bat eskeñi digu. Auxe, benetan, azkoitiar apaiz burutsu ta emankorraren idazlanen aukera ezin ta egokiagoa, aren doai, goi-argi ta asmamen indarra guri erakusteko.

Lenengo antzerkiaren izena "*Gabak zekarren eguna*" da, Arantzazu'ko Amabirjiña agertu zaneko gertakizunez egiña. Antzezlagunak garai artakoak beren jantzi, itxura, esaera ta eresiz apainduak. Baita ere, ordea, beren gorroto, grifiña txar eta billaukeriz zirikañtuak. Azkenean gure antziñako asaben artean pakea nagusi... ta Amabirjiña erregin, maitasuna garaille irtetzen diralarik.

Antzerki au itz lauz baiñan noizik beinka bertso ederrez ornitua Arantzazu'ko Praileak eraturako batzaldian saristatua izan zan. Zuzen eta legez irabazitako saria. Ongi merezi bait du.

Kondaira-zale ta antziñateko maitaleak ba dute nun ase bere Histori egarria; ta gure antzeslari taldeak gai biribil ta ikusgarri bat antzekizun dotore-dotore bat eratzeko. Noiz ezagutu al izango degu egun ori? Irrikitzen gaude bai antzerkigille ta bai antzezlariorik txalotzeko.

"*MAITE ERE NEURRIZ*" deritza bigarren antzerkiak. Atal bakarrekoa degu. Oraingo aldikoa, biotzbera, espa gaiztoz bete. Beste aldetik ordea, teatroa, bizitza bezela burruka bait da, sentimendu samurrez, ta eguberri usaiez oretua. Egiaren antz gutxitxo nabaitzen diogu. Sumatua gertatua baño geiago. Olako ipuin itun-pozgarriak maite dituztenak erruz dira ordea. Eta iñori ez zaio izango gogaitgarrri txukun, txairo ta errez idatzia dagolako.

"*BIZITZA ZOTZEAN*" au ere ekitaldi bakardun komeritxoa. Obeto esateko bakarrizketa edo "solilokio" bat. ANTON gizarajoaren monologoa bere burua iltzea erabaki duanean azkenean, zorionez *Olentzaro begi-gorri*'k biurtzen dio biziteko gogo.

Mintzaldi sakon, bizi ta giartsua arlotearen ezpañetatik ateratzen dana. Jardun mingotsa ta erabat parregarria.

Idazleak giza-biotza ongi ezagutzen duala adierazten digu; eta euskeraz gauzak goitar irritsu eta errikoï esaten iñor gutxik irabazten diola ere bai.

ANTON doakabea HAMLET txiki bat dugu; ta Etxaniz antzerkigillea'ri Shakespeare'ren antza usmatzen diogu. Nola nai poeta ta pensalari zorrotz bat. Jarduna antzezlari bikain batek bere gain artzen

ba'du atera lezaioke txinparta ederrik entzule-ikusleen biotzak ikutzeroaño.

Azkeneko antzerkitxoa goibel itunetakoa dugu: "GABON ZAU-RIA". Ongi idatzi ta tajutua au ere.

Lizardi'ren "Xabiartxo"ren gaia arturik senar-emazte batzuen kezka larriak agertzen dizkigu, il zorian daukaten aurtxoaren aurrean. Batik bat ama saminduak seaskan eri dagon semetxoari egiten dion itzaldi samurra; ta festa; ematen dizkion musu, losin ta laztanak. Amaren solas gozo, eztitsu ta maite-maiteak... biotzetik atera oi ditunak egilleak ondo asmatu ta egiazki aldatu ditu gero GABON jaiari lotuta bukaera unkiagarri batez.

Plauto erromatar komerigille otsaundikoak lan ederrenak zartuta gero ondu omen zituen. Beraz Etxaniz jauna lore-lorean zaude, adinean bide ortatik jarraitzeko. Garaipen koroia laister dukezu buru zuriaren gafean. Euskal teatro-zaleok ba dute nun aukeratu zer-bait eder eta berri ikasi ta gertu nai ba'dute aurrerantzean.

A. M. L.



ORBELAK. *Kerexeta'tar J. "Arantzibia"*. Zarautz, 1958.

Poesi-liburu onen "Itzaurre-orde" argian, ederki arakatzen ditu Lekuona euskaltzaiñak oraingo lirikaren ezaugarriak. Orietakoa omen dugu illuntasun apur bat ere: "Ez dala poesi-mueta au sobera argi izaten; illun-antxa baizik, laño-antxa, lanbrotsu. Naita gafiñera; naita illun. Egunsenti-antzer, edota illunabar-orduetako argi il antzera. Lanbro-antzean egindako margo-lana bezela."

Neretzat beintzat orrela da eta orrela aitortu bear. Barruti orretan "kristau berria" naizen ezker, sarrera gutxi izan dudan ezker, alegia, maiz somatzen dut illunbetan nere burua. Bear bada, gauzak berez ur gardena bezain garbi direlarik, nere begi kamutsak dira argia ikustea eragozten didatenak.

Ezin naiteke, beraz, urrutiegi ausar kritikan. Nere ezjakiñean ere, zerbañt igertzen diot beñiñein "Arantzibia"-ren doñuari: berria dela eta batez ere bere-berea duela. Iru sailletan berezi ditu olerkiak, beti labur eta txairoak: Izadikoak, Maitezkoak, Biozkadak. Gaiak, ikusten duzunez, nonnaikoak izanik, euskal-olerkarien kuttunetakoak

dira. Baiña eztirudi emen, inolaz ere, betiko leloa entzuten ari geranik; betiko leloa bada ere, "Arantzibia"-ren eskuz antzaldatu ageri baitzaigu. Sorgindua ere esan diteke, edertasun-sorkinkeriz, sorgiñak eta sorgiñen erregiña ezpaitabiltza olerki auetatik urruti:

*Anboto'ko Anderea
Batzarre-buru nagusi.*

Olerki oin-arin auetan inoren itzalik ikus baditeke, "Lauaxeta"-rena dela esango nuke, *Arrats-beran-go* Lauaxeta'rena, euskalkia delako edo. Erri-gaiak, erri-apaindurak dira beti oifarrri ta, alaz ere, eztitugu maiz aski arpegi ezagunak ezagutzen. Ain daude sotildurik, itxuraldaturik, eder-lañoz inguraturik. Eta bertso biribilletan emanik, onako auek bezala:

*Alako baten, txistu min batek
Iratzartu dau goizeko isilla:
Azkon zorrotz bat arin-aringa
Urten da, egas, norbaiten billa.*

Gogoz eta nekerik gabe irakurriko ditu edonork liburu onetako olerkiak. Liburua bera ere, Itxaropena'renean egiña, txukun-atsegiña da bere utsean.

L. M.

IPÍÑA TA IPÍÑA'TARREN BARRI. Bilbao, Verdes-Atxirika'renean, 1958.

Liburutxo au —dio azalean— "bertako seme batek Ipiña'tarrai biotzez eskintzen deusie". Badakit nor den Ipiña'ko seme zintzo eta euskaltzale sutsu ori; eztakit, ordea, badudan eskubiderik bere izena agertzeko, ixilpean gorde nai izan duen ezkeroko egilleak.

Besterik, beintzat, ager dezaket. Eztitu 35 orrialde baizik Ipiña, Zeanuri'ko auzoaren berri onek, baiña orrialdeak urri bezain trin-koak dira. Or daude azalduak auzoaren izaera eta egoera, Ipiña'ko eliz-gauzen kondaira (eliza, abatetxea, illerria, ermitak) eta ipuin-sorta mardul bat azkenik, bertan bildua.

Badute burua arro jasotzeko eskubidea Ipiña'tarrek auzoko berriak onen txukunki euskeraz ipiñiak ikustean. Gaiñerako euskaldunek ere irakur bezate mesedez irakurgai au: eztute ezer galduko, bai asko irabaziko. Atsegin biziz irakurriko baitute Arratia'ko izkera

gozoan egiña dagoen liburuxka polit, jator, mendi-usai sarkorrez beterikako au.

Sarrera Mañarikua jaunarena du: izena aipatu ezker, zertarako besterik esan?

L. M.


*Pierre Lafitte, de l'Académie Basque, AUTOUR DE LA BIBLE
TRADUITE EN BASQUE PAR LE PERE R. OLABIDE.
Bayonne, Editions "Herria", 1959.*

Herria aldizkarian argitara dituen artikuluekin liburuxka polit bat osatu du Lafitte jaun euskaltzaiñak. Aita Olabide'ren *Itun sâr eta berria* dela-ta, ederki agertzen digu noiz eta nola eman izan diren argitara euskeraz Izkribu Sainduak, osorik ala zatika, eta nor izan diren itzul-lanean saiatu direnak. Egoki erakusten digu euskal-literatura osoan ageri dela, oiezaz kanpora ere, Biblia-ren ukitua eta distira

Aita Olabide jesulagunaren bizitza labur bat dakar bigarren partean eta beronen *Itun sâr eta berria*-rekiko iritzia azkenik. Euskal-literaturaren gain-barrenak ain ongi dakizkien egilleak eskeintzen dituen argitasun ugariak ezin obeki datozkigu euskal-letren kondaira erdipurdika baizik ezagutzen eztugunoi. Iritzi zuzeneko da, gaiñera, guztiok dakigunez, eta neurri doia darabil nori berea ematean.

Oar bat. Royaumont'en antolatzailea —agian, obeki, Larregi'rena— Lardizabal izan zen gure artean, ez Añibarro. Lardizabal'en liburuaren bigarren zatia, *Testamentu berriko kondaira edo historia*, agertu berria da berriz ere (Bilbao, 1957).

L. M.



“LORAMENDI” Fr. Joakin Bedoñakoaren Gorazarrez Euskaltzaindiak Antolatzen duen literatura-sariketa.

1. Sariak, urrengo aipatuko diran gaiez egiñikako lanentzat izango dira:
 - I Bertsotan. Nai dan bezalako luzeera eta gaia duen poesiarentzat. Leenbiziko saria, bi milla pezeta; bigarrena, milla.
 - II Itz lauz. Bere denboran ikusiaz eta iritziak emanaz “Loramendi”-ren poesiaz egiñikako lanentzat. Lanen luzeera ogei eta berrogetaamar orrialde artekoa izango da. Sariak, leenbizikoa milla pezetakoa, eta bigarrena, bosteunekoa.
 - III Itz lauz. Milla pezetako sari bat ipintzen da Leniz aranz egiñikako lanik onenarentzat: bere historia, biografia, ikuspegiak, eta abar. Luzeera ogei eta berrogetaamar orrialde artekoa.
 - IV Teatroa. Sari bi ipintzen dira, bi milla ta bosteun eta milla ta bosteun pezetakoak, bi teatro-lan onenentzat, ekitaldi batean edo geiagotan idatziak. Obeto ikusia izango da sariketarako nolabait Leniz aranari dagokoa (bertan gertatzen dalako edo bertako ipuiñetan edo historian erroa duelako).
 - V Poesia-esana. Sari bi daude, bosteun eta berreun eta berrogetaamar pezetakoak, “Loramendi”-ren poesiaren bat ondoen esaten duten aurrentzat, bai neskakilla ta bai mutikoentzat.
2. Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira, Gipuzkoako Diputaziora, 1959 abuztuaren 20-a baiño leen, makiñaz idatzirik eta lerro-une bat utzirik. Lema batekin firmatu bear dira eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu.
3. Batzarrea Euskaltzaindiak izendatuko du.

ON-EGITEAN dago ZORIONTASUNA

Maitagarri-ipui batetik sortutako antzerkitxo

Antzez-lagunak:

ENEKO, errege-umea.—PERU, Amaia'ren etxeko morroia.—SORGIÑA, IRENE, Amaia'ren etxeko mirabea.—AMAIA, errege-umea.—MAITAGARRIA.—ZUAITZA.—LOREA.—GARIA.—SENDAGILLEA.

Oarrak: Maitagarri-ipuietan agertu oi diran bezelako jantziak bear dira. Iruditegiak ere antzerkiak esaten duan bezelakoa izan bear du.

Iruditegia irikitzen danean, ENEKO agertuko da iruditegi-erdian.

ENEKO.—Jaun-andreak. Aro bi dira, kideko diran aroak: aurtzaroa ta zartzaroa... Zaarrak ume biurtu oi dirala, entzun oi degu sarritan, beintzat, eta. Orregaitik, ba, gure antzerkitxo au, irudimenak jositako antzerkitxo au, umeentzako eta zarrentzako egindako antzerkitxo degu... Ez gazteentzako egindako antzarkitxo... Beste gai batzuk maite bait dituzte gazteak. Ala ere, gaurkoz beintzat, barkatuko diguten ustean, ekin dezaiogun gure lanari...

(Gaua! Ilargiak argi egiten duan gau bat. Ikusleen esku-aldetik agertzen diran eskallera-malletara urreratu, ta txistua joko du ENEKO'k. Laister agertuko da, eskallera-bera, PERU, jauregiko morroi apaña.)

Ta?

PERU.—Berdin, Jauna.

ENEKO.—Goibel?

PERU.—Goibel, Jauna...

ENEKO.—Ta zer dio sendagille jaunak?

PERU.—Amaia'k ez duala gaitzik...

ENEKO.—Gaitzik ez, eta zerk ematen dio, ba, ituntasun ori.

PERU.—Orixe da sendagille jaunak asmatu nai lukeana, ta asmatu ezin duana...

ENEKO.—Amaia... Amaia... Ez ote det nik berriro ikusiko...!

PERU.—Ikusi, bai, jauna. Etxe-barruak ez diola mesederik egiten, eta etxetik-kanpora erten bear duala, agindu dio sendagilleak. Emen izango da, biar, beraz...

ENEKO.—Bakarrik?

PERU.—Bakarrik edo lagunen batekin. Ez dute bakarrik utzi naiko. Bakartasunak ez bait dio mesederik egiten.

ENEKO.—Ondo dago, Peru. Ikusi, ikusita ere poz izango du nere biotz minberatu onek... Tori, Peru... ta erne, berriro ere, zure belarri ori, nere txixtuarentzat. Gabon, Peru.

PERU.—Gabon, Jauna.

(Eta ixil-ixillik izkutatuko da, berriro, eskallera-gora, PERU, morroia.)

ENEKO.—Nere zorigabea au! Nolakoa ote da, gaur, Amaia'ren arpegia, izar argiena baño argiagoa zan arpegi eder ura! Ez dute dizdirik egingo aren begiak... Illa egongo da, noski, aren ezpafietako gorritasuna... Irriparre-goxorik ez da agertuko aren aoan... Amaia! Nik egitekoa ba'litz, edozer egingo nuke nik, zure barru ori alaitzearren...

(SORGIÑA agertuko da, ikusleen-eskubi-aldetik eta zuaitz baten aurrean geldituko da tente.)

SORGIÑA.—Zuk egin leikezuna da, ba, Eneko...

(Ezpata aterako du ENEKO'k.)

ENEKO.—Nor da emen, zeletan?

SORGIÑA.—Iñor ez, zeletan. Gorde ezazu ezpata ori. Nik esan bear dizudana egiteko, ez dezu ezpatarik bear...

ENEKO.—Nor zaitut, ba?

SORGIÑA.—Nor naizen...? Ez dezu jakin bearrik. Zuri laguntzera etorri naiz.

ENEKO.—Neri laguntzera?

SORGIÑA.—Ez a'lzenduke, ba, Amaia'ren barrua alaitu nai?

ENEKO.—Ez nuke munduan besterik nai...

SORGIÑA.—Nik dakit Amaia'ren barru ori alaitzeko bide bakarra.

ENEKO.—Bai?

SORGIÑA.—Bai.

ENEKO.—Ta nor da bide ori?

SORGIÑA.—Ibillaldi luze bat egin bearko dezu ortarako.

ENEKO.—Ez dio ajolik. Nora joan bear det...

SORGIÑA.—Ñañarri mendira... Belar batzuek arkituko dituzu Ñañarri mendiko gurutz-pean. Egosi itzatzu belar oiek, eta belar oiekin egindako urak, orrek alaituko du, berriro, Amaia'ren barru-illuna... Zoatz, ba. Goizeko intzetan bildu bear dituzu belar oiek eta...

ENEKO.—Ñañarri mendira?

SORGIÑA.—Ez al'dakizu arutzako biderik?

ENEKO.—Ez, ez dakit, ba...

SORGIÑA.—Zoatz, orko nere txabola ondora... Artu ezazu bertan dagoan bide txurra ta ez dezu bide-galtzerik izango...

ENEKO.—Eskarrik asko! Ba'noa laisterka. Ez det denborarik galdu nai ta...

(Ta laisterka ertengo da ENEKO ikusleen ezker-aldeetik. ENEKO iruditegitik irtetzen dan bezein laister dunbada bat (tiro bat) etzungo da.)

SORGIÑA.—Ja, ja, ja. Nerea zera Eneko... Nere morroi betirako. Ez zaitu gaurtik, iñork ezagutuko... Agure zaar baten itxura izango dezu gaurtik-aurrera. Agure zarpil. Ille zuri ta bizar zuria... Eskale antzeko agurea... Zenbat egur-karreto egin bear ote dituzu, Eneko. Ja, ja, ja. Zaldun izaki ta nere morroi izan bear gaurtik aurrera. Ja, ja, ja...

(Ta algara bizi baten izkutatuko da SORGIÑA ere, ikusleen ezker-aldeetik... PERU azalduko da Jauregiko eskalleratan-bera.)

PERU.—Zer ziran algara oiek! Eta ez da iñor ageri! Eneko ote zan ba...? Eneko? Ez! Ez zan Eneko izango. Lentxuago eman dizkiodan berriekin, ez zitzaion algara egiteko gogorik geldituko... Ta nor ote zan, ba, Eneko ez izatera?

(IRENE agertuko da eskallera-buruan.)

IRENE.—Zer ziran algara oiek, Peru?

PERU.—Nik ez dakit, Irene. Emen ez da iñor agiri...

IRENE.—Ez genduan, ba, amets egingo?

PERU.—Amets egin?

IRENE.—Emakume batek egindako algarak iruditu zaizkit neri, al-gara oiek...

PERU.—Ez da, ba, emen emakumerik agiri, Irene. Goazen etxera. Eguna ere laister degu ta...

(Eta PERU ta IRENE, eskallera-buruan izkututzen diranean, argi gorriak piztuko dira iruditegian. Zaar-itxuran agertuko da ENEKO, aizkora txiki bat gerrian eta lokarri bat eskuan. Egurretara dijoa ENEKO. Ez du itzik esango. Makal-makal igaroko du iruditegia batetik bestera, ta iruditegi atzean izkutatuko da ikusleen eskubi-aldetik. Jauregiko eskallera-buruan agertuko da AMAIA. IRENE datorriko atzetik lagun bezela. Errege-kumea degu AMAIA. Errege-kume bateri dagokion jazerka ekarriko du ba... Iruditegi-erdiko zuaitzaren aurrean dagoan eserleku batean eseriko da AMAIA. Ta AMAIA'ren alboan, IRENE.)

IRENE.—Ipuiren bat irakurriko al'diot, Amaia?

AMAIA.—Ez, Irene! Ez det ipuietarako gogorik.

IRENE.—Sendagille jaunaren agindua betetzen ez ba'degu, ordea, ez da, iñoiz ere, sendatuko.

AMAIA.—Nik ez det gaitzik, Irene... Barrua daukat nik-illuna. Zoriontasun pixka bat nai nuke nik neretzat eta ez det zoriontasunik billatzen munduan. Illuna zait nere munduko biziera au...

IRENE.—Ez al'da, ba, aberats bizi?

AMAIA.—Aberastasunak, ordea, ez didate zoriontasunik ematen!

IRENE.—Ez al'dauka, ba, nai-guztia bere eskuetan?

AMAIA.—Nai guztia, ez, Irene! Poz-apur bat nai nuke nik neregan eta pozik ez det arkitzen neregan. Gogaketa illunez beterik daukat biotza, ta gogaketa illun oietan murgilduta bizi naiz... Zoatz, Irene. Denborea galtzea besterik ez dezu emen egingo ta... Izango dezu zer egiña etxean. Bakarrik naiago det nik. Zoatz, Irene...

(AMAIA'ren agindura joango da IRENE ta Jauregiko eskalleratan izkutatuko da. Gogaketa illunetan geldituko da AMAIA. AMAIA'ren atzean, AMAIA'k ikusiko ez duan eran agertuko da SORGIÑA, ikusleen ezker-aldeko baztarrean...)

SORGIÑA.—Munduan ez dago zoriontasunik, Amaia. Alperrikoak izango dituzu Sendagille Jauna'ren aginduak. Zu ez zera zoriontsu izateko jaioa. Gazte batek azaldu izan zizun, iñoiz, maitasun apur bat. Maitasun orrek argituko zizun, bear ba'da, zure biotz ori. Bafian aaztu zan zutaz Eneko... Beste batek entzungo ditu, bear ba'da, gaur, aren maite-itzak. Zuretzako ez dago zoriontasunik, Amaia. Illun bizi zera ta illun ilko zera. Bai, Amaia. Illuna da zure etorkizuna...

(Eta agertu izan dan tokitik, izkutatuko da SORGIÑA...)

AMAIA.—Egia da, bai! Argi gabeko bizitza izango da nere bizitza. Maitasunik gabeko bizitza. Aaztu zan nitaz Eneko ere. Galdu ziran betirako neretzat aren maitasunezko itz gozoak. Eriotza bezin ituna izango da nere bizitza. Zoriontasunik ikusi gabe il bear-ko det. Zoriontasunik ez bait dago mundu onetan...

(Eta len SORGIÑA bezela, agertuko da orain MAITAGARRIA ikusleen eskubi aldetik...)

MAITAGARRIA.—Ez, Amaia... Ez da egiazkoa zure gogaketa ori. Zoriontasun beterik ez ba'da ere zoriontasun apur bat beti izan oi da munduan. Eta edozeinek izan lezake zoriontasun apur ori. Ez da askotan guretik urruti izaten. Billatu egin bear izaten da, ordea. Ta zu, ez zera zoriontasun orren billa saiatzen, Amaia. Zergaitik ez diozu izadiari galdetzen...?

(Eta agertu dan tokitik, izkutatuko da MAITAGARRIA ikusleen eskubi aldetik.)

IRENE.—Izadiari galdetu? Izadiari galdetu?

(Eta poliki-poliki jeiki, ta poliki-poliki joango da iruditegi-atzeko errekarafño. Makurtu, ta ur-pixka bat artuko du eskuan.)

AMAIA.—Ona ur garbia duan errekatxoa. Gau ta egun kantari dijoan errekatxoa. Izadian ezerk zoriontasunik izatekotan, onetxek izan bear du, noski. Galdetu dezaiodan, ba. Esan zaidazu, errekatxo, ba al'dezu, zugar, zoriontasunik?

(Tente ez, belaun gañean jeikiko da ERREKATXOA.)

ERREKATXOA.—Ez, Amaia, ez. Nere sor lekuan bizi bear ba'nu beti, orduan izango nintzake zoriontsu, noski. Orduan gordeko bai nintzuke garbiak, nere urak. Bañan nere izatea zer dan, ondo dakizu zuk. Zoko batetik bestera, amilka, ibilli bearrean arkitzen naiz eta uri barranean sartzen naizenean, neretzako izaten dira uri artako zikinkeri guztiak. Eta an galtzen det nere garbitasuna. Ta zertarako aitatu nere azkena? Itxasoak irentsi-ta, iltzen naiz beti. Ez naiz, ba, zoriontsua, Amaia. Izadian zoriontasunik ba'dago, sustrai sendoko zuaitz oietan izango da, noski. Galdetu zaiozu, ba, ementxen daukazun zuaitz lerden oneri...

(Eta bertan etzango da ERREKATXOA.)

AMAIA.—Zuaitz oneri? Zuaitz onek gordetzen ote du, ba, nik neretzako nai nuken zoriontasun ori?

(ZUAITZ ondora urbilduko da AMAIA.)

Esan zaidazu zuaitz eder. Izadiak beregan gordetzen duan, eta errekatxoak beregan ez daukan zoriontasun ori, zuregan al'dezu zuk?

ZUAITZA.—Ez zazu neregana zoriontasunik billatu, Amaia... Urte asko ditut eta lerden nago oraindik Egia da... Bañan Jaungoikoa'k

bakarrik dakizki, nik igaro oi ditudan estutasunak. Oraindik urte asko ez dirala, zuaitz-lagun asko nituan nik emen, nere inguruan. Bakarrik bizi naiz orain ia. Gizonaren aizkora ankerrak bota zituan nere lagunetako asko. Tximixtak erre zituan beste asko. Aizkora bat ikusten dedan bezein azkar, edo zerua goibeltzen asten dan bezein laister, dardar egiten didate sustraiak. Eta onen-beste bildur artean ezin, ba, zoriontsu bizi izan... Zoriontasunik arkitu nai ba'dezu, Amaia, ez zazu zuaitz-arteana billatu. Lore apain artean arkituko dezu bear ba'da...

AMAIA.—Lore artean? Loreak ote dira, ba, Izadi'ko izaki zoriontsuak? Ba'ote da Izadia'n zoriontasunik? Lore-arteana izatekotan, lore onek izan bear du, noski. Ederra ta aundia bait da... Esaidazu, Lore, zoriontsua al'da zure bizitza?

LOREA.—Ez, Amaia... Ez naiz Erreka ta Zuaitza baño zoriontsuagoa. Bestela usteko dute, bear ba'da, gizonak... Goiz-intzetan nere orriak zabaltzen ditudanean, ez det ximurrik agertzen arpegian. Ederra agertzen naiz eta usai ederra zabaltzen det inguruan. Auetxek dira ordea nere pekatuak. Edozein emakume txorutzen da nerekin eta ni bere etxera eraman arteko pakerik ez du arkizaten. Bere etxera. Zertarako, ordea? Nere arpegian zimurrik txikiena agertzen dan bezein laister, zimauregi botatzen nau, batere errukirik gabe. Ta zimauregi batean il bear dedala jakitea, ez al'da naikoa zoriontasunik gabe bizi izateko? Ez naiz, ba, ni zoriontsua, Amaia... Ta gari-sail onetan zoriontasunik billatzen ez ba'dezu, ez dakit nik, nun billatu dezakezun, Amaia...

AMAIA.—Garian ez beintzat!

GARIA.—Zergaitik ez, ba, Amaia?

AMAIA.—Izadi'ko gauza guztietan, errukarriena, zu ikusten zaitudalako.

GARIA.—Ala uste al'dezu?

AMAIA.—Ala uste det, bai. Laister orituko dira zure galburuak eta itaitariak etorri ta laister ebakiko zaitue ondo-ondotik. Ale guztiak azke uzten ez dituzun artean, jo ta jo ibilliko zaituzte gero. Errota-arriak ez dizute pakerik emango, auts biurtzen ez zaituen artean. Su-bizian erreko zaitue okiñak. Eta gazte ta zaar, beartsu ta aberatsen jaki biurtuko zera azkenean. Zorigaitz-asko eramateko jaioa zera Garia. Zorigaitz asko...!

GARIA.—Eta ala ere, zoriontsua naizela esango ba'nizu, Amaia...?

AMAIA.—Ez nizuke sinistuko...!

GARIA.—Zoriontsua naiz, ba, Amaia. Ta zuk esan dituzun gauza oiegatixek naiz zoriontsu. Egiak dira zuk esan dituzun gauza guzti oiek. Gazte ta zaar, beartsu ta aberatsen jaki biurtzen naiz,

bai. Ta auxe da, izan ere, nere zorientasunik aundiena. Ai, Amaia. Onelako zerbait egingo ba'zendu zuk ere, ez ziñake bizi zeran bezain illun, biziko. Lagun urkoari on egitean, ortan-txe dago mundu onetako zorientasunik aundiena. Onetxek egiten nau ni zorientsu. Onela ez egiteak, egiten zaitu, zu, zorigabeko. Bai, Amaia...

(Besterik gabe ixilduko da GARIA. Oldozkor eseriko da, zuiatz-aurreko aulkian, AMAIA.)

AMAIA.—Egia ote'da, ba... Ortan ote dago zorientasuna? Lagun-urkoari on egitean ote dago, ba? Onela dio Garia'k. Eta arrigarria da! Garia'ren bizitza joko nuan nik, bizitzarik mingarriena bezela. Ta ala ere, zorientsu dala aitortu dit Garia'k berak...

(Iruditegi atzetik agertuko da ENEKO. Egur-sorta bat dakar bizkar-gañean, AMAIA dagoan tokira iristen danean, estroputz egin, eta muturrez aurrera eroriko da ENEKO.)

Ene!

(Jeiki ta ENEKO'rengana urreratuko da AMAIA. ENEKO'ren ondoan belaunikatu, ta ENEKO'ri lagundu-naiean ekingo dio AMAIA'k.)

Nor da au. Ez det nik ezagutzen. Zauritua dago. Arnasarik ere ez dauka. Il egin ote da gizajoa. Nun ote dabil Sendagille Jauna.

(Jeiki, ta Jauregi'ko eskalletara joango da, estu, AMAIA...)

Sendagille Jauna. Sendagille Jauna...

SENDAGILLEA.—(*Barrutik.*) Zer dezu, Amaia.

AMAIA.—Gizon zaar batek min artu du, Jauna... Betor lenbaitleen. Il ote dan bildur naiz...

(ENEKO'rengana biurtuko da, estu ta larri, AMAIA. AMAIA'ren ondoren etorriko da SENDAGILLE jauna ere.)

Bizi al'da, Jauna?

SENDAGILLEA.—Bizi da, bai, Amaia. Oraindik bizi da, bañan ez luzaroko. Zaarra da, ta ez dira nolanaikoak artu dituan golpeak. Baña nor da bera ?

AMAIA.—Ez det ezagutzen, Jauna. Bañan ez nuke iltzerik nai.

SENDAGILLEA.—Alegiñak egingo ditut, Amaia. Zauri batzuek dauzka emen eta zauri auek sendatzeko bear ditudan gauza bila nijoa etxeraño. Zaindu ezazu zuk, bitartean, Amaia...!

(Bitarte onetan aurreko oiek esaten ari dala danen-gaindik daraman soñeko-zaarra askatuko dio SENDAGILLEA'k ENEKO'ri. ENEKO jeikitzen danean, asierako jazkerakin agertu bear du. Lurrean gelditu bear du, ba, ENEKO'ren soñeko zaarrak. SENDAGILLEA Jauregi'ra joaten danean, errukizko-muxu bat emango dio AMAIA'k ENEKO'ri eskuan. Muxu onek eraginda bezela, belauñ baten gañean jeikiko da ENEKO ta esku biak luzatuko dizkio, tente jarriko dan AMAIA'ri. Esku bietatik elduko dio AMAIA'k.)

ENEKO.—Amaia!

AMAIA.—Eneko!

ENEKO.—Zuri zor dizut mesede au, Amaia.

AMAIA.—Eta zuri zor dizut nik, nere zoriontasun au, Eneko. Orain bai dala zorionsua nere biotza. Goazen, Eneko.

(Eta eskutik elduta, eskuak goi-antzean, joango dira Jauregi'runtz AMAIA ta ENEKO. Iruditegi-atzean agertuko da MAITAGARRIA. AMAIA'ren eta ENEKO'ren atzetik etorriko da iruditegiko ao-arteraño. AMAIA ta ENEKO, Jauregi'ko eskalleratan izkutatzen diranean, onela itz egingo die MAITAGARRIA'k ikusleeri.)

MAITAGARRIA.—Lagun-urkoari on-egitean, Jaun-andreak, ortan dago, bai, gizonaren zoriontasuna. Orixe egin zuan bere bizitza guztian Jesukristo gure Jaunak ere: ON EGIN. Eta on egiñaz igaro zituan ark bere bizitzako egunak...

(Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da MAITAGARRIA.)

ZAPIA POLIKI-POLIKI

1958'garren urteko Epailla'ren 27'an

«SUSTRAITZ»



EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA EUSKAL-ITZEI BURUZ

Euskaltzaindiak, idazlari ta izlariei zuzenbide batzuek eskeifi naiez, eta asko zuzenbide oien zain-antzean daudela jakifnik, onako agiri au azaltzendu :

Oiñarri-legea

Iztegi-saillean ezta bidezko itz asmatuetara jotzea ezin bestez baizik, eta orduan ere diran erabidean izkuntzaren joerak gordeaz. Ori iztegiari gagozkiola. Gramatikaren barrutian, ordea, ezta sekula zillegi asmatzen ibiltzea edo izkuntza aldatu nai izatea.

Euskal-itzak zein diran jakiteko bidea

Eta iztegiaren auzi au xehetasun geiagorekin garbitu naiez, euskal-itzak zein diran, au da, euskal-literaturan erabiltzeko itz jatorrak eta bidezkoak zein diran jakiteko, bidea eta neurria finkatu nai du aurrenik Euskaltzaindiak. *Euskal-itzak dira euskera bizian sustraituak daudenak.* Sustrai ori zenbat eta sakonagoa izan, ainbat ete eskubide geiago du itz batek erabillia izateko. Itz baten zabaluneak, antziñatasunak eta idazle-zaarrak itz ori erabilli ote duten jakiteak, asko esan nai du itzaren sustraia zenbaterainokoa dan neurtzeko. Sustrai aundiko itzak, bada, euskal-itzak dira, naiz eta erderatik etorri. Bada gure iztegian olako itzen pilloa : jatorriz kanpotik sartuak, baiña euskeran gogotik errotuak daudenak, alegia. Beraz, etxeko biurtuak dauzkagu, gure gureak dira itz oiek. Euskal-itzak dira, bada, erderatikakoak izan arren. Itz oiek eskubide osoz erabilli ditezke, eta oien lekuan erabiltzeko asmatu diran itz berriak eztira geienetan euskal-itzak eta eztute aiek ainbat eskubide erabilliak izateko.

Ona emen olako euskal-itz jatorren zerrenda bat. Erderatikakoak izanarren, etxeko biurtuak dauzkagu eta, emandako neurriaren araura, euskal-itz jatorrak dira :

Abendu, aingeru, alkate, bake-pake, balio, bekatu-pekatu, doe-doai, damu, deabru, errege, erregiña, erlijio-erlejiño, familia, fede, fruitu-frutu, gorputz, gramatika, gloria-loria, infernu-inpernu, jende-jente, kantatu, kolore, liburu, lore-lora, mundu, meza, obeditu, olgeta, paradisu-parabisu, sakramendu-sakramentu, saindur-santu, umil, zeru...

Euskaltzaindiak, bada, itz auek eta antzekoak diran beste asko, eskubide osoz erabilli ditezkeala erabakitzen du, euskaldunak, jatorrak eta garbiak diralako. Eta idazle ta izlariei erabilli ditzatela eskatzen die, itz asmatuetara jo gabe.

Berebat, izkuntza berezien gaiñetik zabaldurik dauden kultura eta zivilizaziozko itzak ontzat artzea eta erabiltzea Euskaltzaindiak begi onez ikusten du. Adibidez, politika, teknika, literatura, liturjia, metro, kilometro ta abar.

1959 APIRILLAREN 2-an.

PUBLICACIONES

DE LA

REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLOIDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR. por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 20 Ptas.

Suscripción anual: 60 »

EGAN: Ejemplar suelto: 20 Ptas.

Suscripción anual: 50 »

Suscripción anual conjunta a BOLETIN Y EGAN: 80 Ptas.

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales.
Número suelto: 10 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN



ESCELICER, S. A.
SAN SEBASTIAN